# Ikastetxeetan genero-indarkeriaren prebentziorako esku-liburua

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Egileak: Norma Vázquez eta Ianire Estebánez

Laguntzailea: Berritzegune Nagusia

# Edukia

1. HEZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA GENERO-INDARKERIA ................................ 3

1.1. Genero-indarkeria oso gertu ematen da... ..................................................... 6

1.2. ...jolastokian gertatzen ari da ........................................................................... 7

2. INDARKERIA ETA PAREKIDETASUN EZA ..................................................... 9

3. GENERO-INDARKERIAREN HAUTEMATEA ..................................................14

4. ZERO URTETIK, TOLERANTZIA ZERO ........................................................18

5. ERAKARGARRITASUN ETA AUKERATZE EREDUAK........................................25

5.1. Erakargarritasunaren funtzionamendua ........................................................ 26

5.2. Modu askean erabakitzeko mitoa ................................................................... 29

5.3. Rolloa, mutil-laguna... Nola erabakitzen da? ................................................ 30

6. MASKULINITATE HEGEMONIKOA, ARRISKU ...............................................34

7. NESKEN GORPUTZA OBJEKTU BIHURTZEKO ARRISKUA ...............................39

8. SEDUKZIOA ETA LORPENA: JOLAS  ARRISKUTSUAK....................................42

9. MAITASUNA EZ DA INDARKERIA ...............................................................45

10. KONTROLA ETA JELOSKORTASUNA EZ DA MAITASUNA ..............................51

11. ZIBER-INDARKERIA..................................................................................56

12. JABEKUNTZA ETA LAGUNTZA BABES MEKANISMO BEZALA..........................62

13. HEZIKETA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN HAURRAK .....................................66

14. GENERO-INDARKERIAREN SEME-ALABAK.................................................69

15. SEXU-ORGANOEN MUTILAIO ARRISKUAN DAUDEN NESKAK .........................73

16. GENERO-INDARKERIA SAIHESTEKO JARRAIBIDEAK ...................................79

BIBLIOGRAFIA ...........................................................................................106

## 1. HEZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA GENERO-INDARKERIA

XXI. mendeko jendarteak eraldaketa ugari ekarri ditu: familia motak, genero-rolak, sexualitatearen adierazpenak, bikote harremanek sortzen dituzten formak eta itxaropenak; kolektibo minoritarioen eskubideen aitorpena hedatu da; gure egunerokotasunean informazio eta komunikazioaren teknologia berrien presentzia areagotu da; herri-mugimenduak, eta batez ere mugimendu feministak, emakume eta gizonen bizitza ulertzeko modua aldarazi du; emakumeek eurentzat debekatuak zeuden hainbat espaziotara heltzea lortu dute mobilizazioari esker... eta horregatik guztiagatik, genero-indarkeriaren agerpenak ere aldatu dira, eta batez ere, genero-indarkeria ulertzeko modua ere aldatu da.

Hala ere, aldaketak eta aurrerapenak eztabaidaezinak diren arren, genero-indarkeriaren adierazpenak presente daude gure egunerokotasunean, eta biktimen kopurua kezkagarria da. Gero eta salaketa gehiago jartzen dira[1], baina beldurragatik isilpean geratzen diren beste hainbat kasu daude; beldur horrek emakume eta adingabeei eragiten die. Erailketek oihartzuna lortzen dute hedabideetan, baina badira batere oihartzunik ez duten kasu ugari ere: gure jendartean normaltzat hartzen badira ere, zigorgabetasuna eta indarkeria kronikoa protagonista duten istorio ugari ditugu gure artean.

Guraso eta irakasleok genero-indarkeriari aurre egiteko erantzukizuna daukagu, baina ez bakarrik nerabezaroan, ez bakarrik harreman afektibo-sexualetan ematen direnak. Horretarako ezinbestekoa da indarkeria mota hau modu integral batean ulertzea, honako estereotipoak gaindituz:

- Indakeria bere agerpen fisikoekin lotzea bakarrik.
  Indarkeriak beste agerpen ugari ditu, eta horri buruzko ikerketa guztien arabera, maiztasun gehiagorekin agertzen da arlo psikologikoan, hitzetan, arlo ekonomikoan, espazio birtualean... Aldarrikapenerako beharrezkoa izan daitekeen arren, gure arreta indarkeria fisikoan edo muturreko indarkerian bakarrik jartzen badugu, nerabeek eta gazteek beren egunerokotasunean pairatzen duten indarkeriaren prebentzioarentzat ez da beti lagungarria izango.

[1]Genero-Indarkeriaren Behatokiaren datuen arabera, 2014. urtean 126.742 emakumek salaketa aurkeztu zuten tratu txarrak direla eta, 2013. urtean baino %1,5 gehiago. Euskal Autonomi Erkidegoan salaketen tasa honakoa da: 10 mila biztanle bakoitzeko 35 salaketa.

- Emakume helduen arazoa dela pentsatzea, eta batez ere biztanleriaren sektore jakin batean eragina duela (baztertze arriskuan dauden familiak, etorkinak eta abar).
  Genero-indarkeriaren biktimak maila kultural, sozial eta ekonomiko guztietan topatuko ditugu. Biktima batzuek oihartzun handiagoa dute baztertze-egoeran bizi diren bizilagunentzako zerbitzuak erabiltzen dituztelako. Gainera, aurreiritzi eta ezjakintasunagatik[2], genero-indarkeria pairatzen duen biktimaren "profil" bat sortu da (pertsona, egoera eta kausa jakin batzuekin). Profil horrekin bat ez datozenen artean lotsa, isiltasuna eta konfiantza faltari aurre egiteko beldurra handiagoa da.

- Genero-indarkeria harreman edo konpromiso egonkorra duten harreman heterosexualetan bakarrik ematen dela pentsatzea. Genero-indarkeria ez da bakarrik bikotetan ematen, ez da bikote heterosexualetan bakarrik ematen, eta ez da bakarrik harreman egonkorretan ematen. Indarkeria presente dago unean-uneko harreman sexualetan, genero berbereko bikote-harremanetan; senideak, klasekideak, auzokideak, senideen ezagunak, irakasleak, neba-arreben lagunak, ezezagunak... horiek guztiak ere indarkeria eragiten dutenak izan daitezke. 1/2004 Lege Organikoan genero-indarkeriari buruzko definizio zehatz bat jasotzen da, baina horrek momentu horretako egoera politikoari erantzuten dio. Prebentziorako lana legeak markatzen dituen mugak baino askoz harago doa[3].

Prebentzio egoki baterako garrantzitsua da honakoa ulertzea: genero-indarkeria ez da fenomeno bat (horrekin apartekoa eta ustekabekoa dela ulertzen badugu), ez da ondorio kaltegarri bat (horrekin gaixotasun edo minantz bat dela ulertzen badugu). ARAZO bat da, mundu mailan emakumeen heriotzaren lehenengo kausa da,

---

[2] "Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren kasu gehienen atzean alkoholaren gehiegizko kontsumoa eta drogak daude (inkesta egin dutenen %62 oso edo nahiko ados), eta eraso gehienak estres momentuetan edo unean-uneko kontrol falta ematen denean gertatzen dira (%61). Hurrengo sinesmenak honakoak dira: genero-indarkerian salaketa faltsu ugari daude (%39), etxean bortitza den pertsona lagunartean edo lanean ere bortitza izango da (%38), eta genero-indarkeria pairatzen dutenen emakumeen gehiengoa etorkinak dira (%27)". Kopuru hauek 2015. urtean Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako txostenetik hartu dira. Ikus bibliografia.

[3] Nazio Batuen Erakundeak, emakumeen bazterketa legegintzan eta praktikan aztertzen duen Lantaldearen bidez, 2015. urteko uztailean kaleratutako txostenean, azpimarratzen du genero-indarkeriaren arreta sistema zabaldu behar dela, 1/2004 Lege Organikoa bikote edo bikote ohi heterosexualetara mugatzen delako, eta emakumeei eragiten dien indarkeria kasu guztiak beregain jaso behar dituelako.

egunero 180 neraberen heriotza sortzen du eta emakume adingabeen urrakortasuna handitzen du, sexu-abusuak pairatzeari begira[4]. Errealitate horrek behartzen gaitu indarkeria hau fenomeno isolatu eta/edo ulertezin legez ez hartzera, benetan aurre egin nahi badiogu modu eraginkorrean.

### 1.1. Genero-indarkeria oso gertu ematen da…

Zaila izan daiteke eraso bat ulertzea oso gertu gertatzen denean, gure hezkuntza-zentroaren barruan gertatzen denean, eta biktima eta/edo erasotzailea pertsona ezagunak direnean edo maite ditugunean; errezagoa da indarkeria hori gaitzestea urrun gertatzen denean, zenbat eta urrunen, hobeto. Baina urrun dagoenak bat-batean izenak, aurpegiak, gertaerak, sentsazioak eta sentimenduak dituenean, orduan esperientzia horrek ezinegona sortzen du gure baitan, eta kolokan jartzen du gure ulermen- eta erantzun-gaitasuna.

Genero-indarkeria errealitate deserosoa da: gure sakoneko sinesmenekin aurrez aurre jartzen gaitu, emakumeen eta gizonen jokabide onargarrien inguruan pentsatzen genuena kolokan jartzen du. Zaila da genero-indarkeria ez antzematea bere adierazpen agerikoenetan (batez ere fisikoetan) eta/edo muturrekoetan (ume eta nerabeek euren buruaz beste egiten dutenean, eskolan ikaskideengandik jaso duten jazarpenagatik, adibidez), eta horien aurrean protesta egiten dugu. Haatik, horren agerikoak ez diren bestelako jarrerak antzematea zailagoa da, oso normalizatuta ditugulako, hau da, tradizionalki emakume edo gizonezkoek izan dituzten jarrerak direlako, eta, beraz, ez diogu gure buruari galdetzen ea hori zalantzan jarri behar dugun ala ez.

Emakumeek, batik bat, adingabe, nerabe eta gazteek pairatzen duten indarkeria, lehentasunezko gaia da hezkuntza-komunitatean. Delitu bezala ezagutzen diren salaketen mota biek (genero-indarkeria eta sexu-erasoa) azalerazten dituzten datuek gure arreta bereganatzen dute: Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren arabera, 2015. urteko urtarril eta abuztuaren artean, 759 salaketa jaso ziren 14 eta 30 urte arteko emakumeen aldetik, jasotako salaketen %29 izanik[5]. Salaketa jaso dutenen erasotzaileen kasuan, %22a 14 eta 30 urte bitarteko adina dute. Sexu-erasoekin lotutako salaketei dagokienez, adin tarte horretako eta 14 urte baino gutxiagoko biktimen portzentajea %74ra igotzen da. Adin hauetako erasotzaileen

[4] Osasunaren Mundu Erakundearen datuak, 2014.
[5] Iraitz Vazquez, 2015. urteko azaroaren 3an El Correon argitaratutako “Crece el número de víctimas y maltratadores menores de edad en el País Vasco” artikulua, egun horretan bertan idatzitako bertsioan ere kontsultatutakoa.

kasuan, portzentajea %19koa da. Eta hauek identifikatutako eta salatutako indarkeriaren datuak baino ez dira, proportzio txiki bat baita, kontuan hartzen badugu badagoela azalerazten ez den indarkeria edo lagunei bakarrik adierazten zaiena[6].

Eskola ez da bakarrik ikaskuntzan eta garapen kognitiboan laguntzen duen espazioa; garapen emozionala garatzeko espazio erreal eta sinbolikoa da, baloreak jasotzeko, eta eskola barruan zein kanpoan jasotako baloreak zalantzan jartzeko lekua ere bada, bizitzeko modu ezberdinak alderatzeko espazioa, ikastekoa, zaintza eta enpatia lantzeko lekua. Gainera, espazio honetan pertsonen arteko erakargarritasunaz hausnartzen da, adiskidetasun harremanak eta afektibo-sexualak sortzerako orduan ezaugarri eta eredu ezberdinek zer nolako eragina duten aztertzen da; eskolan taldean bizitzen ikasten dugu.

### 1.2. ...jolastokian gertatzen ari da

Eskolan ere indarkeria forma ezberdinak gerta daitezke: umiliazioak, bultzadak, kolpeak, bazterketa, jazarpena... eta horregatik guztiagatik, eszenatoki aproposa da ume eta nerabeei irakasteko euren burua eta besteena defendatu behar dutela, mina eragiten dutenak geldiarazi behar direla, mota guztietako ezberdintasunak errespetatu behar direla eta ezberdina dena ez dela baztertu behar. Eskola, sozializaziorako espazio bezala, indarkeria prebenitzeko sozializaziorako espazioa ere izan behar du.

Funtzio hau hobeto aurrera ateratzeko, honakoa kontuan hartu behar da:

- Generoak, hau da, jaio aurretik gorputz biologiko bakoitzari egokitzen zaizkion konbentzio sozialek, eragin handia dute nortasun pertsonala sortzerako orduan. Ezaugarri batzuk naturalizatzen dira: indarkeriaren erabilera, adibidez, maskulinitatearekin lotzen da, eta, beraz, mutilei aitortu eta indartzen zaie; nesken kasuan, ostera, kontrakoa.

[6] Arabako Foru Aldundiak 2015. urtean DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleen artean egindako inkesta baten arabera, %24k esan zuen inoiz indarkeria egoera baten protagonista izan dela (fisikoa, psikologikoa, sexuala, berbaz egindakoa edo internet bidez). Talde honetatik, %21ek bizipen hau partekatu zuen, eta %79a isilik geratu zen eta ez zuen ezer esan. Neska eta mutilen gehiengoak (%75) euren adineko norbaitekin komentatu zuen (euren lagun-taldeko norbaiti edo klasekideei). Gainontzeko %24a helduak diren pertsonekin partekatu zuten, honako banaketarekin: %19 gurasoak edo senideren bat, %5 polizia eta %1 irakasle bati. Datu hau eman zen, galdera teoriko batean, indarkeria kasu baten aurrean egotekotan, %32k irakasleari esango liokeela erantzun zuen arren. Ikusi bibliografia.

- Generoaren prototipo sozialak umeen jokabidean eragiten duten pautak dira, baina inola ere ez dira nortasun egonkor eta absolutuak. Modu indibidualean garatzen dira, onarpen eta gatazka prozesuen bidez; barnerapen hori hein handi batean umeek helduen inguruarengandik jasotzen duten presio, isun eta estimuluek sortzen dute. Eta, noski, estereotipoetan oinarritutako identitate dual hauek (maskulinoa dena ezin da femeninoa izan, eta alderantziz, maskulinoa gizonezkoentzat da eta femeninoa emakumeentzat) etengabe indartuak izaten dira, eta hedabideetan oihartzun ikaragarria izaten dute; sarean, inguratzen gaituen publizitatean, kontsumo handiko kultur produktuetan eta abar.

- Umeen garapena mugatzen duten rol hauek zalantzan jartzeko, beharrezkoa da hezkuntza-zentroaren barruan gertatzen diren gatazketan genero ikuspegia txertatzea, hau da, neska eta mutilen jokabide anitz eta ezberdinak azalduko dituen begirada ezberdin bat garatu behar da, rol horiek naturalak eta adinarekin bat doazenak direla bultzatu barik.

- Begirada hori barik, genero-indarkeria naturalizatzen dugu, muturreko agerpenetan eta atzera egitea ezinezkoa denean izan ezik. Eta genero-indarkeriaz ari gara, eta ez indarkeria-mota guztiez, agresibitatea eta indarkeriaren erabilera rol maskulino hegemonikoaren zati garrantzitsua delako, eta rol horrek bere biktimak aukeratu dituelako.

Nazio Batuen Erakundeak egindako definizioaren arabera, **genero-indarkeria**ren definizioa ohiko indarkeria eta genero arrazoiengatik norbanako edo taldeen kontra eragiten den indarkeria banatzeko erabiltzen dugu. NBE Emakumeek izendapen honen erabilera mugatzen dute: norbanako baten aurka bideratzen den indarkeria, berak duen generoagatik, eta berak teorian bere jendartean eta kulturan bete behar duen rolaren gaineko espektatibengatik.

Gida honetan genero-indarkeriarekin[7] lotutako hainbat ezaugarri landuko ditugu, eta, aurreko definizioak kontuan hartuz, genero-indarkeria horrela definituko dugu:

[7] Gida honek ez ditu genero-indarkeriaren adierazpen guztiak beregain hartuko eta interes berezia duten hainbat gai aztertu barik utziko ditu, aztertuak izan ez diren arren eta ezagutzeko eta esperientzia handiagoa eskatzen duten arren. Adibidez, hurrengoetan sakondu beharko dugu indarkeria homofobikoa eta sexu erasoak prebenitzeko materialetan.

*batez ere emakumeen kontra eragiten den indarkeria (modu berezituan ume, nerabe eta gazteei dagokiena) eta oro har emakume edo gizon izatearen espektatiba sozialak betetzen ez dituen edozein pertsonaren kontra eragiten den indarkeria.*

Pertsona hauek sexu-genero-sexualitatearen estereotipoak hausten dituzte eta zalantzan jartzen dute euren gorputza, itxura, jarrera, gustu eta izateko eta harremanak sortzeko modua. Beraz, honetaz ari gara: transgeneroak eta transexualak diren gorputzak, nerabe eta gazte homosexualak, lesbianak, eta pertsona "arraro" horiek guztiak, dualitate sexualera eta generoaren dikotomiara egokitzen ez direnak.

Gida honen helburua hezkuntza-zentroei elementuak eta erremintak eskaintzea da, prebentzioa hobeto bermatzeko asmoz.

## 2. INDARKERIA ETA PAREKIDETASUN EZA

Indarkeria ez da gertaera biologiko bat, ez da berez sortzen den zerbait, kulturaren parte den produktu soziala da. Kultura hori txikitatik ikasten dugu eta horregatik normalizatzen dugu. Gure jendartean, genero-indarkeria autoritatearekin, boterearekin eta kontrolarekin lotuta dago, bere intentsitatea eta forma edozein

dela ere. Indarkeria eragiten duenak uste du autoritate hori azpimarratzeko eskubidea duela, eta bere autoritatea zalantzan jartzen bada, berriro ere autoritate hori indartzeko eskubidea duela sentitzen du. Indarkeriarekin amaitzea, beraz, ez da bakarrik hezkuntza kontu bat, emakume eta gizonen arteko botere-orekarekin ere lotuta dago.

Genero-indarkeriaren oinarrian emakume eta gizonen arteko parekidetasun eza dago. Hori bai, horrek ez du esan nahi lotura zuzena dagoenik indarkeria eta desberdintasun horien artean, bien arteko interakzio konplexua dagoela esango genuke[8]. Ez dugu pentsatu behar genero-desberdintasunaren oinarrian dauden pautak, legeak eta ohiturak desagertarazten baditugu, *berehala* indarkeria gutxituko denik. Ideia horrek ez du babesik gaur egun.

Onartu beharra dago hainbat arlotan parekidetasunean hobetu dela (partziala eta itzulgarria den arren): osasunean, hezkuntzan, politikagintzaren parte-hartzean, enpleguan... Horrek normalizatutako indarkeria azaleraztea ekarri du. Hori dela eta, parekidetasunarekin lotutako politikak garatu duten herrialdeetan, sexismoarekiko eta indarkeriarekiko tolerantziak behera egin du, jarrera eta jokabide bortitzekiko gaitzespena eta errefusatzea handitu den bitartean. Horrelako politikarik garatu ez duten herrialdeetan, ostera, jarrera eta jokabide berberak ez dira emakumeen kontrako indarkeriatzat hartzen, eta, beraz, jendarte horientzat ez dago inolako arazorik jokabide horietan.

Bestalde, parekidetasunaren aldeko urratsak egonkortzeko bidean hainbat erresistentzia sortu dira. Hainbat arlotan, hezkuntzan adibidez, ume guztiei ikasteko eskubidea aitortzea lortuta dago jada; beste arlo batzuetan, krisialdi ekonomikoak gogor borrokatutako lorpenak desagertarazi ditu, zaintzaren arloan, adibidez. Indarkeriarekin lotuta, ikus dezakegu gero eta gehiago entzuten direla argudio neomatxistak (tradizionalki matxistak direnetatik ezberdintzen ditugu, modernoen itxura dutelako, teorian parekidetasunagatik kezkatuta daudelako,

---

[8] Adibide bezala honakoa har dezakegu: Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) 2014. urtean egindako txostenaren arabera, genero arloan ezberdintasun gutxien duten herrialdeak (datu hori lortzeko hainbat datu jasotzen dituzte, besteak beste: hilkortasun-tasa, nerabeen haurdunaldiak, politikagintzan parte-hartzea, hezkuntza-maila, ekonomian parte-hartzea...) Eslovenia, Alemania eta Suedia dira. Herrialde horietan nolabaiteko indarkeria pairatu duten emakumeen portzentajea %22, %35 eta %46koa da, hurrenez hurren, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren arabera. Ikusi bibliografia.

baina *pertsonen*[9] ongizatean pentsatzen dutelako). Emakumeen bizipenei zilegitasuna kentzen diete, emakumeak figura mendekatzaile eta gorrotatzaileak bihurtzen dituzte, gezurtiak direla esaten dute eta ekintza positiboa bultzatzen duten politikak zalantzan jartzen dituzte –politika horien bidez, mendean dagoen kolektiboaren jabekuntza bilatzen da parekidetasuna lortzeko asmoz, genero-ezberdintasuna badagoela oinarri hartuta–.

Harreman eta jokabide bortitzak sostengatzen dituzten pauta kulturalak aldatzeko, ez da nahikoa parekidetasun politikak ezartzearekin (gainera, politika horiek beti ezartzen dira zailtasunekin eta eztabaida gogor baten ostean); eskolan koedukazioa edo baterako hezkuntza ezartzea ere ez da nahikoa: beharrezkoa bada ere, umeak eta nerabeak sozializatzen diren ingurua eraldatu beharra dago. *Indarkeriaren haziak* identifikatu eta eraldatu behar dira, eta esfortzuak horretara bideratu behar dira.

Parekidetasun ezaren eta genero-indarkeriaren arteko harremana hobeto ulertzeko, hiru ezaugarri kontuan hartu behar ditugu:

- Ezberdintasun forma guztiei ezin zaie indarkeria deitu. Bestela, ez ditugu genero-indarkeria prebenitzeko erreminta nahikorik izango. Parekidetasunik ez duten harreman sexista asko daude, baina guztiek ez dute zertan bortitzak izan.

- Sexismoa eta indarkeriaren arteko muga oso estua denez, ez da nahikoa prebentzioa bakarrik indarkeria ekiditera bideratzea. Parekidetasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lan egin behar dugu, indarkeria alboratzeko eta bortizkeria erakargarri izateari uzteko.

- Parekidetasunaren aldeko edozein lanek genero-indarkeriaren prebentzioa ere landu behar du, Marian Morenok zehazten duen legez: "Koedukazioa edo baterako hezkuntzaren helburu nagusia indarkeria matxista prebenitzea da, estereotipoen kontra borroka eginez, gure egunerokotasunean genero ikuspegia txertatuz, gizon parekide batek nola izan behar duen azaltzen duen katalogoa aurkeztuz, parekidetasunaren aldeko emakume batek nola

[9] Argudio neomatxisten baitan, indarkeriari dagokionez, honakoak topatuko ditugu, besteak beste: bortizkeriak ez duela generorik, hau da, emakumeen eta gizonezkoek pairatzen dutela maila berean, eta, beraz, "etxeko indarkeria" landu behar dela –eta ez genero-indarkeria–, biktima guztiei arreta integrala eskaintzeko asmoz.

izan behar duen azalduz. Koedukazioa, laburbilduz, txikitatik jartzen diguten generoaren motxila orekatzean datza"[10].

Parekidetasun ezak indarkeria ekoizten eta sostengatzen duten egiturak sortzen ditu, baina pertsonok ikasteko, zalantzan jartzeko eta eboluzionatzeko gaitasuna dugu... beraz, ezberdintasun egoeran bizi arren, indarkeria zuzenari epe laburrean aurrea hartu ahal diogu. Interakzioa eta komunikazioa erreminta ezinbestekoak dira gure ingurua, gure harremanak eta gure jarrera eraldatzeko.

Harreman zuzenek, gurutzatuek, pertsonalek, taldekakoek, arlo sinbolikokoek edo arlo zehatzean lan egiten dutenek imajinarioak, baloreak eta jokabideak eraikitzen dituzte, eta horiek umeek, nerabeek eta gazteek jasotzen dituzte uneoro. Horretarako, indarkeriaz ari garenean, beharrezkoa da komunikazioaren formak garatzea, modu zuzenean eta azpijoko barik.

Adingabeekin lan egiten dugunean, askotan gertatuko zaigu umekeria bat iruditzen zaigula, adibidez, mutiko batek neskato bati ileetatik tiraka egiten dionean: asmo txarra kentzen diogu, pentsatuz mutikoak ez zuela mina sortzeko asmorik. Noski, ileetatik tiratzeak ez du esan nahi horren ostean neskatoa gogor jipoituko duenik, baina bere jarrera alda dezan, eta indarkeria bitarteko bezala erabiltzeari uko egin diezaion, ileetatik tiratu duen momentu horretan bertan jakin behar du bere jokabidea ez dela egokia izan, itsusia dela eta bere jarrera errefusatu behar du, barkamena eskatzen duen bitartean. Berriro errepikatu ez dezan, pertsona bezala onartuta sentitu behar da, eta modu ez bortitzean adierazteko dituen zailtasun horietan ulertuta sentitu behar da; baina errukitzen badugu eta ekintza hori zigortu gabe uzten badugu, bere jarrera onargarria dela pentsatuko du: ez duela inolako ondoriorik, eta, beraz, *normala* dela barneratuko du.

Noski, ileetatik tiraka egin ostean, neskatoak ez du zertan jipoi gogorra jaso, baina laguntza eskatzen ikasi behar du, ez du zertan isilik geratu, edo ileetatik tiratzeak min handirik ez diola egin esatera behartuta sentitu. Barkamena jaso aurretik ere, ez du zertan erasotzailea barkatu. Ez badugu bere burua defendatzera eta laguntza eskatzera bultzatzen, ikasiko du indarkeria jasotzea merezi duela, emakume izate hutsagatik.

[10] Aipua blog.educastur.es/marianmoreno/ blogetik jasota dago. Egileak sortutako baliabide honetan koedukazioari buruzko argitalpenak, artikuluak, material didaktikoa, aurkezpenak eta hausnarketak topatu daitezke.

Eta ekintza hau ikusi dutenek ikasi behar dute ez dagoela ondo honetaz barre egitea, erasotzailea txalotzea edo biktimaz barre egitea. Ikasi behar dute taldea ezinbestekoa dela horrelako indarkeria sostengatzeko edo gelditzeko, bere lehenengo urratsetatik. Ezin dugu utzi talde batek neskato baten kontrako horrelako ekintzak onartzea, eta gero, neskato hori heldua denean, pentsatzea jendarteak emakumeen kontrako indarkeria salatuko duela.

Genero-indarkeriaren prebentzioa horrela bideratu beharko litzateke: *Tolerantzia zero, zero urtetik hasita*. Hau da, ezinbestean zalantzan jarri behar ditu sozializatzeko moduak eta indarrean dauden erakargarritasun-, hautapen- eta harreman-ereduak. Maitasunari eta adiskidetasunari buruzko ideiak kolokan jarri behar ditu. Ez die bakarrik biktimari eta erasotzaileari begiratu behar; ingurune osoa hartu behar du, genero-indarkeria gertaera sozial bat delako, eta hala landu behar da.

Baina, batez ere, genero-indarkeriaren eta parekidetasun ezaren prebentzioa modu egokian lantzeko, neska eta mutilek dituzten zalantza, kontraesan eta anbiguotasunak antzeman eta landu behar dira. Gaur egungo neska eta mutilak jendarte aldakor batean hazten ari dira; sexu-genero-sexualitate sisteman aldaketa partzial eta kontraesankorrak burutu dituen jendarte batean hazten ari dira.

Jendarte honek, batzuetan jarrera parekidea eskatuko die, baina beste batzuetan moral bikoitza izango du eta jarrera bortitzekiko erakargarritasuna bultzatuko du. Era berean, neskak euren askatasuna erabiltzera bultzatuko ditu, baina gero sufritzen dituzten erasoen erantzule egingo ditu; jendarte honek hizkuntzaren erabilera ez sexistagatik bere kezka agertuko du, baina gero ezagutzaren arlo askotan emakumeen ekarpenei muzin egiten die; jendarte honek neskak euren lanbidea garatzera animatzen ditu, baina emakume bat guztiz osatzeko amatasuna eta bikotea ardatz bezala jartzen jarraitzen dizkio.

Genero berbera dutenen ezkontza onartzen dituen jendarte bat daukagu, baina gero homofobia, lesbofobia edo/eta transfobia oinarri duten erasoen aurrean, ez du beti beharrezkoa den irmotasunarekin erantzuten. Gure jendarteak intersex gorputzak baztertzen ditu, gizon edo emakume "marken" baitan egokitzen ez diren pertsonak gutxiesten ditu, mediku baten laguntza behar duen akatsa edo elbarritasuna izango balitz bezala tratatzen dituzte[11]. Gure jendartean, gero eta

[11] "Intersexualitate" izendapenaren baitan biltzen diren gorputz maskulino eta femeninoen kategoria medikoen gaineko ezberdintasunetan, kromosomen patroiak eta zenbakiak

aniztasun kultural handiagoa egon arren, aniztasun horren aurrean jendartea deseroso sentitzen da, eta bere aurrean oso astiro eraldatzen da.

Horregatik guztiagatik, oso garrantzitsua da koedukazioan eta genero-indarkeriaren prebentzioan txiki-txikitatik lanean hastea. Helburu horretara heltzeko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa. Ez da egun bakar bateko kontua, edo interesa duten pertsona jakin batzuen lana; lan iraunkorra eta etengabea izan behar du. Jokoan dugu gure osasuna, gure osotasun fisiko eta psikologikoa, eta umeen, nerabeen eta gazteen eskubideak eta zoriontasuna.

## 3. GENERO-INDARKERIAREN HAUTEMATEA

Indarkeria-mota ezberdinen hautematea edo pertzepzioa mugatua da gure jendartean. Indarkeria ikusten ikasi dugu, baina bikote heterosexual baten baitan gertatzen denean –edo harreman hau hautsi denean–. Eraso sexistak ere identifikatzen ditugu, baina horretan pentsatzen dugunean, burura etortzen zaiguna honakoa da: zelai isolatu eta ilun batean ezezagun batzuek egiten duten aldi bereko

(adibidez, XXY edo XO) bil daitezke, ehunen erreakzio ezberdina hormona sexualetan (adibidez: obario bat eta barrabil bat izatea, edo obarioen eta barrabilen ehunak dituzten sexu-guruinak), edo hormonen oreka ezberdinak. Pertsona batzuen ugaltze-aparatua ez dago zertan guztiz identifikatuta egon emakume edo gizonezkoarekin; beraz, jaiotzerako momentuan intersex bezala identifikatzen dituzte. Haatik, beste batzuetan, detekzioa beranduago heltzen da, nerabezaroan edo beranduago. Nahiz eta normalean euren "izaeragatik" ez izan inolako osasun-arazorik, egunerokotasunean intersex diren pertsonek tratamendu medikuak eta kirurgikoak izaten dituzte euren bizitzaren lehenengo urteetan, inolako baimen barik, euren itxura fisikoa gure jendartean "normal" bezala hartuta dauden sexu bietako batera egokitzeko. Gai honetan sakontzeko *Intersexualidad* dokumentu tematikoa irakur daiteke. Bibliografia ikusi.

bortxaketa[12]. Mundu osoan ume, nerabe eta emakumeek pairatzen duten indarkeriarekiko sentsibilizazio sozialarekin batera, indarkeria horien guztien forma ezberdinak ikertu eta erregistratu beharko lirateke, baina prozesu hori oraindik orain hasi baino ez da egin[13].

Atal honetan ikusiko dugu bikote heterosexual gazteetan indarkeria zelan antzematen den, jendarte osoan horrek kezka sortu baitu. Lehenengo atalean aurkeztu dugun informazio berrien arabera, bikote harremanetan indarkeria salatzen dutenen %30a gazteak dira (30 urte baino gutxiagokoak), eta kopuru hori %70era igotzen da sexu erasoak salatu dituztenen artean. Eta kopuru horietan indarkeria kasu horiek aitortu dituzten emakumeen datuak bakarrik ikusten ditugu. Ezezaguna eta kezkagarria den beste datu bat ere badago, salatzen eta ezagutarazten ez dena: ikusezina den indarkeria da, hautematen ez dena.

Indarkeria matxistaren inguruan egin diren ikerketa ugaritan gizonezko eta emakumezko gazteek maskulinitateaz eta feminitateaz dituzten iritzi eta sinismenak aztertu dituzte, indarkeria mota honekin euren harremana zer nolakoa den aztertzeaz batera. Haatik, kezkagarria den ondorioetako bat honakoa da: emakumeen kontrako indarkeria identifikatzen eta errefusatzen den arren, eta jarrera sexistak eta bazterketa gaitzesten duten arren, gazteek zailtasunak dituzte adierazpen hauek euren jarreretan, euren moduko taldeetan edo euren harreman afektiboetan ikusteko. Honek esan nahi du indarkeria matxista modu abstraktuan gaitzesten dutela, eta beti beste pertsona batzuei eragiten dienean, baina ez gertu dagoenean; baldintza horietan euren ikuspegia aldatzen da, eta, beraz, ez dago jarrera horiek errefusatzerik.

Indarkeriaren pertzepzioa distorsionatzeko lau mekanismorik erabilienak honakoak dira: ikusezin bihurtzea (ez izendatzea edo bakarrik izendatzea oso muturrekoa

---

[12] Sortzen Consultoriak Eusko Jaurlaritzarentzat egindako ikerketan, sexu-erasoak horrela imajinatzen zituzten bertan parte hartu zuten 200 pertsonek. Emaitzak "Agresiones sexuales: cómo se viven, cómo se entienden y cómo se atienden" lanean ikus daitezke. Ikusi bibliografia.

[13] 2007an *El libro negro de la condición de la mujer* kaleratu zen gazteleraz, mundu osoan ematen diren indarkeria forma ezberdinen lekukoak eta analisiak batzen dituen bilketa-lana. Bost atal ezberdintzen ditu: Segurtasunaren kontrako atentatuak (bortxaketak gerra-arma legez, ohore-krimenak, feminizidioak, besteak beste), Integritate edo Osotasunaren kontrakoak (ama-hilkortasuna, ablazioa, bikote-indarkeria...), Askatasunaren kontrakoak, Duintasunaren kontrakoak eta Berdintasunaren kontrakoka. Christine Ockrent-en gidaritzapean, lanaren tituluan mina eragiteko giza-krudelkeria batu duen etiketa erabili du, kasu honetan, mundu osoko emakumeena. Ikusi bibliografia.

denean edo munduko beste leku batean gertatzen denean); normalizazioa (edozein bikotetan ematen den zerbait dela azalduz); justifikazioa (emakumeen errua dela esanez eta erasotzaileari errua kenduz); gutxiespena (arazo isolatua izango balitz bezala azalduz, gertaera bat besterik ez).

Honen ondorioz, genero-indarkeria modu isolatu batean aztertzen da, eta tentazioa egoten da gertaera polizial edo judizial hutsa izango balitz bezala aztertzeko, edo bi pertsonen arteko eztabaida baten ondorio bezala aztertzeko, gertatutakoaren erantzukizuna emakumeari eta gizonari maila berean leporatuz –eta zenbaitetan, emakumeari erru gehiago leporatuz–.

Aurreko atalean aipatzen genuen zeintzuk izan diren FRA[14]k genero-indarkeriaren inguruan egin duen txostenaren ondorioak (2014, martxoa). Ikus ditzagun orain datu horiek zehaztasun gehiagoarekin. 18 eta 74 urteko berrogeita bi mila emakume elkarrizketatu zituzten, eta guztiak ziren Europar Batasuneko 28 estaturen bateko bizilagunak. Euren bizitzan pairatu duten indarkeria forma ezberdinei buruz galdetu zitzaien, eta %78aren arabera, euren herrialdeetan emakumeen kontrako indarkeria oso edo nahiko ohikoa da.

Txostenean argi ikus daiteke pertzepzio horren eta hedabideetan oihartzun zabala izan duten kasu esanguratsuen arteko lotura. Adibidez, Bulgaria eta Txekiar Errepublikako elkarrizketatuentzat emakumeen kontrako indarkeriaren pertzepzioa ez zen horren handia, euren herrialdeetako hedabideetan ere arazo honek ez duelako horrenbeste oihartzunik izan.

Bestalde, Finlandiako elkarrizketatuen %56ak euren lagun eta senideen artean gertatutako indarkeria-kasuak ezagutzen zituen, eta %29ak euren lankide edo ikaskideen kasuan (gaur egungoak edo ikaskide edo lankide ohien kasuan); beste muturrean, Txekiar Errepublikan elkarrizketatuen %16ak ezagutzen zuen horrelako kasurik lagun eta senideen artean, eta lankide eta ikaskideen kasuan kopuru hori %17koa zen (hemen ere, gaur egungo lankide edo ikaskideak edo ohiak).

Europar Batasuneko batazbestekoa baino kopuru altuagoetan, Frantzia, Lituania, Suedia, Luxemburgo, Erresuma Batua, Holanda, Belgika eta Danimarkako elkarrizketatuek euren gertuko zirkuluetan emakumeen kontrako indarkeria eman dela aitortzen zuten. Europako batazbestekotik behera dauden herrialdeetan, pertzepzio honek behera egiten zuen: Bulgaria, Hungaria, Austria, Errumania,

[14] Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentzia.

Polonia, Letonia eta Txipre, besteak beste. Espainia pertzepzio-eskala honetan 18. postuan dago[15].

Aurreko ikerketa Europar Batasunean egiten den mota honetako lehenengo lana da, eta bertan argi ikusten da emakumeenganako indarkeriaren ikuspegia nolakoa den. Parekidetasun-politikak gehien garatu dituzten herrialdeetan pertzepzioa handiagoa da, hots, indarkeria ikusezin egiteko, normalizatzeko, justifikatzeko edo gutxiesteko mekanismoak ez dira arrakastatsuak, eta indarkeriaren benetako neurria argiago ikus daiteke. Parekidetasun politikarik ez duten herrialdeetan, ordea, mekanismo hauek ez diete uzten emakumeei indarkeria kasu hauek argi eta garbi adierazten, presio, kontrol eta eraso adierazpen ezberdinen bidez, sistema patriarkala indarrean mantenduz.

Andaluzian, Extremaduran, Kantabrian, Madrilgo Erkidegoan, Valentziako Erkidegoan eta Gaztela-Mantxan bizi diren 14 eta 19 urteko neska eta mutilen artean berriki egindako ikerketa batean (Rodriguez y Mejias, 2015) honakoa ikusi da:

- %88ak esan zuen, batazbeste, mutil batek neska bati eragindako 5 indarkeria kasu ikusi zituela gertuko bikoteetan; %83ak idenfitikatu zituen mutil batek neska bati eragindako 3,7 indarkeria kasu, batazbeste.
- Kontrolarekin lotutako jokabideak oso orokortuta daude gazteak diren bikoteen artean.
- Neskek eragindako kasu gehienetan, batik bat, bere bikotearen harremanen eta ekintzen gaineko kontrola dago: sakelako telefonoa begiratu, non dagoen kontrolatu edo beste lagun batzuekin egotea galarazi. Portzentaje ia berdinetan, mutilek ere kontrol hori eragiten dute.
- Beldurrarazteak, kontrol pertsonal eta emozionalak, indarkeria fisikoa eta ahozkoa, intimitatearen bortxaketa, degradazioa eta abar, maiztasun gehiagorekin ematen da mutilen aldetik nesken aldetik baino. Mota honetako ekintzak oso gutxitan ematen dira nesken aldetik, eta kasu batzuetan, salbuespena direla esan daiteke.

Ikerketa honen emaitzarik harrigarriena honakoa da: nerabe eta gazteen artean zabaldu da –uste orokortua dela esan genezake– genero-indarkeria bi

[15] Datu hauek "Violence against women: an EU-wide survey. Main results" txostenetik jaso dira. Ikusi bibliografia.

norabideetako jokabidea dela, hau da, bai mutilak eta bai neskak erasotzaileak direla. Arabako Foru Aldundiak egindako inkesten txostenean ikusten den bezala –aurretik aipatu duguna– ideia hau nesken %17ak eta mutilen %14ak babesten du.

Neskak mutilak bezain bortitzak edo bortitzagoak direla defendatzen duen usteak, eta, beraz, gaur egun ezin dugula alde bakarreko indarkeriaz hitz egin (gizonek emakumeei eragindakoa) defendatzen duen uste horrek, berraztertze sakona behar du. Rodriguez eta Mejiasen (2015) ikerketan ikusi dugun bezala, kontroletik haratago doazen jokabideak mutilek eragiten dituzte batez ere, eta beraz, ezin dugu esan genero biek maila berean indarkeria eragiten dutenik.

Aurrerago bikoteari kontrola eragiteko ekintzan sakonduko dugun arren, arretaz aztertu behar dugu neskato, nerabe eta emakumeek orohar euren burua defendatzeko jarrerak nola interpretatzen dituzten. Hezkuntzaren eremuan, gatazkak konpontzen ikasten den espazioan, genero indarkeria eta borroka bat maila berean parekatzea arriskutsua da.

Nahiz eta garrantzitsua izan, indarkeriaren fenomenoaren pertzepzioaren analisiak ere mugak ditu. Ikerketa hauen bidez jakin dezakegu momentu jakin batean gazteek arazo jakin bat nola ikusten duten, baina euren ikuspegia alda daiteke euren hartu-emanen ondorioz, egiten duten hausnarketaren ondorioz eta euren ideia eta esperientzaren erkaketaren ondorioz. Nahiko ohikoa da nerabeek taldearen presioa jasotzea uste kolektibotik urruntzea galarazteko, baina uste horiek ez dute halabeharrez euren jokabidea bideratu behar.

Pertzepzioen inguruko ikerketak erreminta garrantzitsuak dira usteak identifikatzeko, eta gero horien gainean prebentzioa bultzatzeko, baina ez dira baliagarriak jarrerak iragartzeko. Hauek askoz konplexuagoak dira eta hurrengo orrietan aztertuko ditugun faktoreek parte hartzen dute.

## 4. ZERO URTETIK, TOLERANTZIA ZERO

Indarkeria, hots, beste pertsona bat mintzea helburu duen jokabidea, ez da naturala, ez da sortzen senak bultzatuta. Jaiotzeko momentutik sortzen den ikasketa-prozesu bat da, inguruak indarrean dauden pauta kulturalak irakasten dizkigulako. Sozializazioaren bidez, umeek ikasten dute euren inguruan zer den "normala" edo/eta onargarria, eurengandik zer espero den ala ez, nola jokatu behar

duten onartuak izan daitezen, zein defentsa- eta hurbilpen-estrategiak diren onargarriak eta zeintzuk ez, zer nolako zigorra jaso ahal duen horrelako arauren bat haustekotan, hau da, sozializatzea bizitzarako gaitasunak ikastean datza.

Sozializatzeko prozesu honen baitan indarkeriarekin lotutako hiru ezaugarri garrantzitsu ikasten dira:

- Bere naturalizazioa, hau da, adingabeek ikasiko dute egunerokotasunean harremanak izateko eta jokatzerako orduan, indarkerian oinarritutako hartu-emanak zilegizkoak direla. Euren nortasunaren baitan integratuko dira, eta jokabide jakin bat errefusatzen bada, pertsona hori errefusatzen ari dela pentsatuko du. Naturalizazioaren eraginez, jokabide horiek ezaugarri genetikoen parte direla interpretatuko da, edo herentzian jasotakoak, edo bere garapen ebolutiboaren parte direla.

- Bere normalizazioa, hau da, horren ohikoak eta egunerokoak direnez, jokabide horiek jada ez dira arrotzak bihurtzen eta pertsonekin eta pertsonen arteko harremanekin identifikatzen ditugu. Umeek txiki-txikitatik ikusten dute indarkeria, eta azkenean erakargarri egiten zaie: umeek egun osoan zehar indarkeria ikusi eta entzuten dute, eta horrekin jolasten dute. Aldi berean, indarkeriaren kontrako mezuak ez dituzte irmotasun berberarekin entzuten, eta gainera ez dira horren erakargarriak.

- Bere esanahi, erabilera eta ondorioak. Modu diferentzialean, umeek ikasiko dute indarkeria noiz eta noren kontra erabil dezaketen, eta bere ondorioetatik nola ihes egin ahal duten. Neska-mutilak indarkerian oinarritutako estrategiak garatzera animatuko dituzte, munduan euren lekua zein den argi eta garbi aldarrika dezaten, edo bestela etsai-giroan bizi direla esango diete, beldurra izan dezaten. Ikasketa hauek jolasei, jostailuei, ipuinei, telebista-saioei... eta orohar, umeek ikusten dituzten produktu kultural guztiei lotuta daude. Era berean, indarkerian oinarrituta ez dauden eta errespetua ardatz duten jokabideak ere irakatsi daitezke, euren identifikazioa, euren ondorioak eta euren gaitzespena irakastearekin batera.

Testuinguru honetan, genero-indarkeria ere ikasten joaten da, ez bere aldeko mezuak igortzen direlako, baizik eta indarkeriaren esangura eta erabilera berezituak erakargarritasun-, erantzun-, harreman- eta gaitzespen-patroiak sortzen dituelako, erabiltzen duenaren generoaren arabera. Orokorrean, neskatoen

indarkeria ez da onartzen genero tradizionalen estereotipoekin bat egiten ez duelako; ostera, jokabide bortitzago eta kontrolatzaileagoa maskulinitate hegemonikoaren parte bezala ikusten da, eta, beraz, jarrera hauek gehiago onartuko dira eta, kasu batzuetan, bultzatuko dira. Gure kulturan dagoen egiturazko homofobiaren arabera, mutilek ez badute indarkeriaren inolako zantzurik, euren maskulinitatea galtzeko "arriskua" dago.

Sozializazio honekin batera, eta paradoxikoki, helduok saiatzen gara umeak indarkeriarengandik babesten, eta, horretarako, askotan, adingabeak babesteko indarkeriaren ezeztatzea erabiltzen dugu. Hau da, uste dugu, nahiz eta erratuta egon, indarkeria eta bere inpaktua modu zuzenean aipatzen ez badugu, biolentzia ez dela larria izango. Baina ez dago hori egiaztatzen duen inolako probarik, kontrakoa izan daiteke: umeen artean genero-indarkeria gertatzen denean –adibidez, eredu maskulino hegemonikotik urruntzen diren mutilak baztertzea, edo neskei ileetatik tiratzea mutila idartsuagoa dela erakusteko– "umeen kontuak" direla pentsatzen badugu, horrek indarkeriaren naturalizazioa bultza dezake.

Horregatik, indarkeriaren sozializazio prebentiboan lan egiteko ezinbestekoa da indarkeria hori identifikatzea, ez onartzea eta aurre egitea. Sozializazio prebentiboa lantzeak esan nahi du gure arreta ez dugula bakarrik biktima eta erasotzaileengan jarri behar, pertsona GUZTIEI irakatsi behar zaie genero-indarkeriaren inolako adierazpenik ezin dugula onartu, eraso hauek ikusi eta jakitun dena ere erasoen esku-hartzailea delako.

Inguruaren konplizitateak gertaera bortitzaren larritasuna ikustea eragozten du, eta sozializazio prebentiboaren bidez, konplizitate hori eta ikasketa-prozesuan duen esangura apurtzea lortuko dugu; arazo honen aurrean sortzen den isiltasun-ituna apurtuko da, eta, gainera, neska eta mutilei adiskidetasun eta laguntasunaren garrantzia irakatsiko zaie. Irmotasunarekin, honakoa mezuak irakatsiko zaizkie:

- Erasotzen dituztenak ez ditugu inolako taldeetan onartuko, euren jarrera arbuiatuko dugu eta barkamena eskatu arte eta txarto jokatu dutela aitortu arte baztertuko ditugu. Lagunak izango gara berriro euren jokabidea aldatzen dutenean eta mina eragin dutela onartzen dutenean.
- Tratu txarrak koldarrek baino ez dituzte eragiten, itsusia da, gaiztakeria.
- Erasotzaileari aurre egin behar zaio, baina ez berak egiten duen gauza bera eginez; indarkeriaren lengoaia erabiltzea ez da defentsa ona, adimena erabili

behar da, kolpe edo irainen bidez adierazten duen hori hitzekin egin dezala eskatuz.

- Taldeak biktimarekiko babes-talde bat sortuko du eta honek jakin behar du beti izango duela laguntza, bai ikaskideen artean eta baita helduen artean ere.
- Jokabideak BETI aitortuko ditugu, eztabaidatu eta zigortu. Ez ditugu INOIZ estigmatizatuko indarkeria eragin edo pairatzen duten umeak, edo bortizkeria horri aurre egiten dioten umeak. Genero-indarkeria ikusezina izatea ekidin nahi dugu, baina ez dugu landu nahi zigorren bidea bakarrik jorratuz. Ume eta nerabeen ikasteko eta aldatzeko gaitasunean konfiantza izan behar dugu.

Umeen sozializazio prebentiboaren prozesu honetan, pertsona helduek arazoak izan ahal dituzte euren sozializazioagatik, eta mezu hauetako batzuk edo mezu guztiak leuntzeko joera izan dezakete. Arazoetako bat umeen jarrera bortitzek sortzen duten erakargarritasuna izan daiteke, jarrera horrek maskulinitateaz dugun iritziarekin bat egiten duelako.

Indarkeria erabili duena ume bat denean, pena sentitu ahal dugu umeari errieta egiterako orduan, eta pena hori are handiagoa izango da umea adinez zenbat eta txikiagoa izan. Umea babesteko joera izan dezakegu, eta, horren eraginez, bere jarrera gutxietsi ahal dugu eta zigorra kendu. Hori dela eta, garrantzitsua da jarrera bortitzen ondorioek bat egitea erasotzailearen adinarekin eta erasoaren tamainarekin, baina ezinbestekoa da indarkeriak beti ondorioren bat izatea.

Errukitasuna balore garrantzitsua da, baina horrek ezin du indartu zigorgabetasuna. Ezin diogu galdetu gure buruari nork merezi duen gure errukitasuna: bere jarreragatik zigorra jaso behar duen mutikoak, edo erasoa jaso duen neskatoak? Biktimaren jarrerak ez baditu betetzen helduek berarengandik dituzten espektatibak –biktima batek nolakoa izan behar duen edo nolako jarrera izan behar duen–, neskatoak bere burua defendatzen badu, protesta egiten badu, edo modu desegokian erantzuten badu, posible da helduek perspektiba galtzea eta ahaztea erasoa jaso duen neskatoa biktima bat dela, bere jarrera edozein dela ere. Genero-indarkeriaz ari garenean, biktimak gertatzen zaienaren erantzuleak direla edo euren jarrerarekin indarkeria hori eragin dutela defendatzen duen ustea oso errotuta

dago, eta, horregatik, biktima bat zer den arautzen duten sinesmenak modu sakonean berraztertu behar ditugu[16].

Arrazarekin, izateko edo janzteko aukera ezberdinekin edo ez-ohikoak diren jokabideekin ditugun aurreritziak ere berraztertu behar ditugu. Aurreritzi horiek espero ez genuen bezala erantzuten duten biktimekiko enpatia osoa garatzea eragozten digute (adibidez, negar egin eta laguntza eskatu beharrean, haserretu eta erantzuten duten biktimekiko enpatia). Aurreritzi horien eraginez ere, zailagoa egiten zaigu ulertzea biktima horiek euren eskubideen urraketak pairatu dituzten ume eta nerabeak direla. Biktimak ez dira biktima bihurtu euren jarreragatik, norbaitek erasotu dituelako baizik, eta guk aitorpena, egindako minaren konponketa eta justizia egitea eskaini behar diegu.

Sozializazio prebentiboan kontuan hartu beharreko beste elementu bat ume eta nerabeen gainean ditugun sinismenak dira, batez ere helduei laguntza eskatzeko dituzten erresistentzien inguruan, eta jarrera bortitza izan duen erantzulea identifikatzeko orduan. Erresistentzia hauetan kulturarekin lotutako bi faktore ditugu:

- Ume edo nerabe "indartsu" batek bere arazoak laguntza barik konpondu ahal dituela defendatzen duen ustea. Laguntzarik ez eskatzeak ez du esan nahi tratu txarrak pairatu dituenak modu egokian bere burua defendatu duenik; hori lortu beharreko erronka bat dela pentsatzeak erasotuaren babesa arriskuan jar dezake eta ez du sustatzen taldeak eskaini dezakeen babesa.
- Beste alde batik, erasotzailea nor izan den ez kontatzeak indarkeriaren prebentzioa zailtzen du. Gaiztakeria nork egin duen kontatzen duenari ("chivato" gazteleraz) ezaugarririk txarrenak egokitu ohi zaizkio: traizioa egiten duena da, berdinen arteko oreka hausten duena, eta, beraz, bazterketa merezi duena. Umeen artean eta, batez ere, nerabeen artean, pertsonai honek erasotzailea bera baino izen txarragoa du.

---

[16] Genero-indarkeria kasuetan biktimek duten erantzukizunaren inguruko ustea neurtzeko asmoz, ikerketa egin zuten 2012an Estatuko Segurtasun Indarretako 169 poliziren artean (153 gizonezko eta 16 emakumezko). Ikerketa horretan poliziei galdetzen zitzaien, genero-indarkeriaren biktimak erasotzaileari erantzuten dionean eta hil egiten dutenean, emakumeek zer nolako erantzukizuna duten. Ondorioa honakoa izan zen: "erasotzailea hil duena erakargarria baldin bada, partehartzaileek erantzukizun handiagoa leporatu zioten, eta, aldiz, emakumea 'ez bazen erakargarria', orduan ez zioten horrenbeste erantzukizunik leporatzen". 2012. urteko urriaren 8an publico.es hedabidean argitaratua.

Isiltasunak, ez salatzeak, eta ondorioak isilik sufritzeak gure jendartean duen balioak indarkeriaren sozializazio prebentiboa lantzeko trabarik handienetakoa da. Hori dela eta, txikitatik irakatsi behar dugu, lehenengo hartu-emanetatik, ez dela egokia ume batek beste bat salatzea mintzeko asmoz, inbidiagatik edo nolabaiteko etekinik lortzeko. Baina ikusitakoa, entzundakoa edo bizitakoa kontatzen badiogu autoritate gehiago duen pertsona bati edo modu erangikorragoan lagundu ahal digun pertsona bati, horrek erasoak gelditzen lagundu ahal digu, eta, beraz, hori egitea ausarta izatea dela esan behar dugu, eta ez koldarra. Koldarrak dira ahulagoak edo erasotzeko errazagoak diren pertsonez baliatzen direnak.

Neska eta mutilei babestuta egoten irakatsiko diegu: euren burua babesten eta taldea babesten. Eta batez ere, argi utziko dugu indarkeriaren edozein agerpen ez dela umekeria. Arreta indarkeriaren esanguran jarriko dugu, hau da, jarrera bortitzetik harago ikustea eta indarkeria hori zergatik sortu den aztertzea.

Garrantzitsua da ezberdintzea eta ezberdintzen irakastea eztabaida (ezaugarri antzekoak dituzten pertsona biren artekoa, baldintza berdinetan) eta eraso baten arteko aldea (erasotzen duena indartsuagoa da, eta bere ekintzekin indar hori azpimarratu nahi du eta mina eragin nahi du). Eta adiskidetzen eta ahazten saiatu baino lehen, gertaera nola gertatu den ikertu behar da, eta taldeak horren aurrean zer egin duen. Aztertzen diren indarkeria-ekintza guztiak ikasketarako momentuak izateko aproposak izan daitezke, eta hau adiskidetzeko beharra baino garrantzitsuagoa da.

Guraso edo irakasle bezala gertaera hauei ematen dizkiegun erantzun hauen bidez lortuko dugu sozializazio prebentiboa erangikorragoa bihurtzea, emozioetan arrastoa uzten dutelako, eta umeen jokabidea eraldatzen lagunduko duten esperientzia esanguratsuak sortzen dituztelako, umeen lehenengo urteetatik eta euren lehenengo hartu-emanetatik.

Neurozientziak ikasketa-prozesuen ezagutzan sakontzen duen bitartean, jakin izan dugu emozioak ezinbestekoak direla ikasketa-prozesuen baitan. Ideia garrantzitsu bakoitzak gure burmuinean arrastoa uzten du, eta arrasto hori indartu eta sakondu ahal izango dugu burmuinaren plastikotasunari esker eta neurona berrien jaiotzari esker. Beraz, indarkeria jarrera desegokia dela argi uzteko, indarkeriarekiko erantzuna emozioekin batera landu behar dugu: sorpresa, tristura, haserrea... eta indarkeria eragin dutenek eta pairatu dutenek euren emozioak adierazi beharko

dituzte, etorkizunean ere arrasto hori utz dezagun. Posiblea da, eta, gainera, desiragarria.

## 5. ERAKARGARRITASUN ETA AUKERATZE EREDUAK

Nerabezaroa oso momentu garrantzitsua da pertsonen sozializazio prozesuan. Autoirudia, autoestimua, talde bateko kide sentitzea edo harreman afektibo eta sexualak bizitzaren aro honetan garatzen dira. Umeak garenean, sozializazioak genero identitatean eta harremanak izateko pautetan eragin handia izaten du. Baina ikasketa-prozesuarentzat oso garrantzitsua da beste pertsona batek sortutako erakargarritasunean[17] oinarritutako lotura egokiak egiten ikastea. Beste modu batera esanda, maitemintzen ikasten dugu maitemintzen garenean, aurreko harremanetan izan ditugun esperientziak baliatuz, baina orain arte ezezagunak egin zaizkigun ezaugarri berriak ere ezagutuz. Horregatik, lehenengo bikote-harremanak positiboak izatea oso garrantzitsua da.

Harremanak izateko pertsona egokiak aukeratzen ikastea eta hori guztia hartu-eman positiboen bidez egitea ikasketa-prozesu bat da, alderantzizkoa egitea ere ikasketa-prozesu bat den moduan: guri mina sortzeko edo gurekin indarkeriaz jokatzeko aukera asko dituzten pertsona desegokiak aukeratzea. Garrantzitsua da hau azpimarratzea, nerabeek uste dezaketelako (eta helduek batzuetan ere), gazteak diren bitartean, arriskua duten harremanekin "esperimentatu" ahal dutela, sekula euren bikote "serioak" izango ez liratekeen mutil eta neskak aukeratuz, konturatu barik horrekin kontrola eta tratu txarrak normalizatzen ari direla, besteak beste.

Aurreko ataletan aipatu dugun generoaren sozializazioaren eraginez, emakumezko nerabe askok erakargarritasuna sentitzen dute ganoraz tratatzen ez dituzten mutilengandik. Euren etsipena gainditzen laguntzea garrantzitsua da, baina

[17] Aurrerantzean, erakargarritasunaz ari garenean, honakoak kontuan hartuko ditugu: bere baitan parte hartzen duten elementu afektiboak (emozioen eta sentimenduen prozesuaren parte direnak eta normalean maitemintzearekin identifikatzen direnak) eta beste pertsonak sortzen duen desira sexualarekin identifikatzen direnak. Jarraian aurkeztuko ditugun eta erakargarritasunarekin lotura duten ideia hauek, ustez, neska eta mutilentzat baliagarriak izan daitezkeen arren, eta sexu bereko bikoteentzat ere baliagarriak diren arren, irakurgai hau irakurterrazagoa egite aldera, bikote heterosexualen eta nesken kasua aztertuko dugu. Aukeraketa hau ez da bakarrik egiten lengoaiaren ekonomiaren aldetik: honi buruz egin diren ikerketa gehienak bikote-eredu hau izan dute aztergai, eta, bestalde, genero-indarkeriaren dinamika ulertzeko eredu hau erreferentziazkoa denez, neskengan eta harreman heterosexualek sortzen dizkieten zailtasunengan arreta jarriko dugu. Erakargarritasunaren eredu hau, gainera, indarrean dagoen heteronormatibitatean oinarritzen da, eta horregatik erabaki dugu lengoaia hau hautatzea.

erakargarritasunaren atzean dagoen eraikuntza sozial eta kulturala ere ulertzen lagundu behar diegu, erakargarritasuna eurek kontrolatu dezaketen zeozer dela uler dezaten. Faltsua den arren, horren zabaldua dagoen bat-bateko maitemintzearen kontra lan egin behar dugu, gustua eta erakargarritasuna alferrik azal dezakegulako; argi azaldu behar diegu zergatik mutil batzuk erakargarriagoak iruditzen zaizkigun, non dagoen erakargarritasun hori, neskek zer bilatzen duten euren arreta bereganatu nahi dutenean, zergatik koadrilako guztiei mutil berbera gustatzen zaien, zer nolako harremana dagoen erakargarritasun-eredu jakin batzuen artean eta genero-indarkeriaren artean eta abar[18]. Eta hori guztia hartu-eman positiboa duen giro baten baitan, eurak epaituak sentiarazi barik eta euren kontraesanak eta zalantzak argitzeko aukerarekin[19].

Prozesu honen baitan presente dauden kultur ezaugarrietan arreta jarri nahi dugu, askotan neskei begira egindako genero-indarkeriaren kontrako kanpainetan neskak euren erabakien errudun egiten dituztelako, eurak modu indibidualean egindako aukeraketa bat izango balitz moduan. "Ez zaude burutik sano" esaten badiogu, ez dugu prebentzioan urrats handirik egingo, eta ez dugu lortuko bikote-harreman desegokiak (behin-behinekoak edo luzarokoak) baztertzea. Prozesu hau eurekin batera egin behar dugu, denon artean eredu guztiak aldatuz: erakargarritasuna, aukeraketa eta harremanak sortzeko ereduak. Hori da genero-indarkeriaren prebentzioan urratsak egiteko eta bere lehenengo adierazpenetan aztertzeko bide bakarra, bere kronifikatzea eragotziz.

### 5.1. Erakargarritasunaren funtzionamendua

Erakargarritasuna ez da bakarrik norbait begiratzen dugunean eta sabelean tripazorriak dantzan jartzen zaizkigunean. Hori bere adierazpenetako bat da, argi

---

[18] Hemen garatutako ideiak Jesus Gomez Alonsoren ekarpenetan oinarrituta daude. Bera ikerketa-eremu honetan aitzindaria izan zen. Bibliografian ikus daiteke egile honen erreferentzia-testua.

[19] Irakasle bezala, egoera guztiei erantzuna emateen saiatzeko tentazioa izan dezakegu. Gaitasun hau, zalantza barik, garrantzitsua izan daiteke ikasleekin lan egiterako orduan, baina garrantzitsua da ikasleek euren kabuz euren ideiak adierazteko espazioa izatea, gertatzen ari zaiena inolako bitartekaritzarik gabe konta dezaten. Euren burua aireztatzen utzi behar diegu, hau da, euren sentimenduak landu barik botatzea, eta modu honetan, emozioen karga husteko aukera izango dute. Agian barrenak husteko behar honek alarma sor dezake gure baitan, baina euren beharrizan bat da, eta horri esker sentitzen dutenari buruz pentsatu ahal izango dute. Konfiantzazko harreman baten oinarrian barrenak husteko horrelako espazioak baimendu behar dira, bizipenak entzutzeko, jasotzeko eta hausnartzen laguntzeko balioko du, eta modu honetan, esperientzia horretatik ikasteko aukera izango dute.

dago, baina askotan erakargarritasunaz hitz egiten ari garenean, puntu horretan geratzen gara. Momentu horretara heltzeko bide bat egiten dugu, horretaz jabetzen ez garen arren, eta bide hori etenik gabekoa den arren.

Pertsona batzuei jendartean erakargarritasuna egokitzen zaie, eta beste batzuei ez, eta hori gertaera historikoa da. Euren burua erakargarritzat jotzen duten mutilek eredu jakin bat jarraitzen dute: bortitzak dira, seguruak, azkarrak, badakite (edo badakitela aditzera ematen dute) euren ikuspuntuak eta arauak ezartzen, euren emozioak kontrolatzen dituzte, bizitzari aurre egiteko beldurrik ez dute... "mutil gaiztoaren" eredua jarraitzen dute. Nesken kasuan, erakargarritasuna ez dago horrenbeste euren jarreran, euren fisikoan baizik.

Baina adi, horrek ez du esan nahi mutil eta neskek ezaugarri horiekin jaio direnik, hori da gai honetan landuko dugun mitoetako bat. Erakargarritasunaren eredua *aurretik ezarritako gidoi sozial* bat da, eta bere onarpenaren, kritikaren edo baztertzearen arabera indartzen da. Eredu honen bidez, mutil eta neskek modu kontziente edo inkontzientean ezaugarri hauek garatzeko helburua izaten dute nerabezaroan sartzen diren momentutik aurrera.

Horrela, bere buruaz harro dagoen mutil "gaiztoa", lider sexuala, arrakasta gehien izango duena da, eta mutilen artean eredu positibotzat hartuko dute. Bere ezaugarriak honakoak izango dira: indarkeriaren erabilera integratu eta normalizatuko du, ezberdinak direnak jazarri ahal eta behar ditu, neskei buruz mespretxuz hitz egiten du; ez du inolako arazorik izango ligatu duen nesken argazki intimoak sare sozialetara igotzeko, gero euretaz barre egiteko... eta nahiz eta mutil eta neska batzuen kritikak jaso, pizgarri ugari topatuko ditu jarrera horiekin jarraitzeko, modu zuzenean (lagunen artean, eta desiratzen duten nesken artean) eta zeharka (inguratzen gaituzten produktu kultural guztietan bultzatzen den irudi maskulinoa delako).

Nesken kasuan, erakargarritasunaren eredua fisikoagoa da: zuzenean edo zeharka egindako presio guztia "neska katxarro" bat sortzeari begira dago, mutilen desira piztu nahian.

Argi utzi behar dugu erakargarritasunaren egituraketan parte hartzen duten sozializazio-elementuak ez direla bakarrik familiak edo gertuko inguruneak sortutakoak. Berdinen arteko taldeak, hedabideak, publizitatea, internet... horien guztien egitekoa funtsezkoa da. Guraso askok esango dute, harriduraz, euren

seme-alabek etxean ez dutela horrelako jarrerarik ikusi, eta agian arrazoia izango dute, baina ezaugarri hauen egituraketan modu zuzenean egiten diren aholku eta mezuak baino askoz gehiago dago: "desiraren egituraketa" bezala izendatu ahal dugun industria oso bat dago atzean. Izan ere, erakargarritasunaren atzean desiraren lengoaia dago, begiradak, irribarre egiteko modua, ibiltzeko modua, zutik egotekoa, hitz egitekoa, helduei hitz egiteko modua, janzkera... Eta horrek guztiak berezi sentitzeko beharrarekin lotura du, emozio sakonak bizitzeko gogoarekin.

Neska nerabe askorentzat, lehenengo harremanetan euren lehentasuna ez da oreka eta bizitza-proiektu bat partehartzeko beharra izango duen bikotea topatzea, hori geroago etorriko da (etorri behar bada); beste batzuk, ordea, euren lehenengo mutilarekin euren etorkizuneko bikotea topatuko dutela irudikatzen dute hasieratik. Baina biek ala biek pasioan oinarritutako maitasuna bilatzen dute, hori da euren motibazio nagusia. Hori dela eta, neska nerabe askoren artean, honako ustea errotu da: errespetuzkoa eta maitakorra den mutila nagusiagoak direnean topatuko dute, bitartean mutil erakargarrien eta arrakastatsuen arreta bereganatuko dute, orokorrean maskulinitate hegemonikoarekin bat egiten duten mutilak (modu honetan, pasioa eta oreka bateraezinak direla babesten duen bikote-eredua indartzen da).

Izan ere, parekidetasunean oinarritutako eredua jarraitzen duten mutilak ez dira erakargarriak izaten nerabezaroan eta lehenengo gaztetasunean; gaur egun ere, errespetua eta parekidetasuna ardatz duten jarrerak ez dira sexiak, ez dira segurtasunarekin lotzen. Edo beste modu batera esanda, jokabide parekideek izan ahal dituzten abantailak eta justizia kolokan dago. Hori dela eta, mutil parekideek lagun onen taldeko kide izatera igaroko dira: konfiantza dago eurengan, "edozer gauzari buruz" hitz egin daiteke eurekin, eurekin hitz egingo dut etsipen-momentu bat dudanean... Hau da, adiskidetasun-harremana egongo da bien artean, baina ez da egongo neskei "burua galtzea" eragiten dien intentsitate hori.

Guk ondo aukeratzeko mezuak etengabe bota arren, ez dute eurengan eraginik izaten, behintzat euren lehenengo harremanetan. Mezu hauek etikaren lengoaiaren eragina dute (zer dagoen ondo eta zer dagoen txarto), eta, beraz, nerabe eta gazteek "komeni" zaien mutilekin harremanak izatea bilatzen dute, baina ez dute kontuan hartzen zeintzuk diren euren erakargarritasunaren erreferenteak. Gure egitekoan, beraz, garrantzitsua da etikaren eta desiraren lengoaia batzea, parekideak diren harremanak desiragarriak eta emozioz beteak direla adieraztea, eta ez bakarrik "gomendagarriak".

Azpimarratu nahi dugu: indarkeriaren sozializazio prebentiboan garrantzitsuena ez da ZENBAT, baizik eta NOREKIN. Neska batzuek harremanak izango dituzte mutil batekin, bost mutilekin, edo batekin ere ez, hori baldin bada euren desira; baina beti errespetatzen, baloratzen eta ondo tratatzen dituzten mutilak aukeratu behar dituzte, kasu guztietan: unean-uneko harremanak direnean edo luzarorako harremanak direnean.

Beste alde batetik, mutilek ere ikasi behar dute harremanak izan ahal dituztela neska batekin, bost neskarekin, edo batekin ere ez, hori baldin bada euren desira, baina beti ere neskak maila berean tratatuz, eta ez neska etengabe kontrolatuz, unean-uneko harremanak direnean edo luzarorako harremanak direnean.

Eta mezu hau baliagarria da neskekin harremanak dituzten neskentzat eta mutilekin harremanak dituzten mutilentzat ere. Kasu honetan, nabarmendu behar dugu bikote barruan errespetua egon behar duela, eta baita bikotearen inguruan ere, aukeraketa hau guztiz normalizatuz: erakargarri egiten zaigunaren beste aukera bat baino ez da.

Parekidetasunean eta tratu onean sozializatuko direla bermatzeko, berme bakarra aukeraketa hori modu egokian egiten dutela da.

### 5.2. Modu askean erabakitzeko mitoa

Harreman afektibo-sexualen sozializazioan parte hartzen duen beste elementu garrantzitsu bat modu askean erabakitzeko ahalmena dugula babesten duen mitoa da. Neska eta mutilek uste dute edozein harreman mota hasterako orduan, beste pertsona hautatzeko erabakia askatasun osoz hartzen dutela, inork ez dituelako behartzen pertsona jakin bat hautatzera. Baina askatasun hori erlatiboa da. Askatasun indibidualari garrantzi gehiegi ematen zaio, eta uste badugu aukeraketa horretan ez dagoela inolako baldintzapenik, ezin izango ditugu ikusi aukeraketa horretan eragina izan duten faktore sozialak. Ikus ditzagun horietako batzuk:

- Aurreko atalean deskribatu ditugun erakargarritasun-ereduen eragina. Neskek euren erreferentzia taldearentzat erakargarriak diren mutilak aukeratzeko joera izango dute; arrakastatsua den mutil batekin egoteak euren autobalorazioa indartzen duelako eta beste neska eta mutilen aitorpena eskainiko diolako.

- Neskek harremanak sortzeko pairatzen duten presioa. Normalean presio hori bere taldetik etortzen da, neskak arraro ez sentitzeko beharrizana izaten du, inorekin harremanik ez duen bakarra ez izateko; adin jakin batean, berdinen arteko taldearen iritziz, nolabaiteko esperientzia sexual edo rolloren bat izan "behar" da, baloratua sentitzeko eta baztertua ez izateko.
- Neska nerabeek bizi duten *parekidetasunaren espejismoa* (eta helduek bultzatzen dutena). Horren bidez, neskek uste dute nahi duten mutila hautatzeko aukera dutela, eta horren ondorioz, ezin dute ikusi zer nolako asimetria dagoen harremanak norekin izan nahi dituzten erabaki behar dutenean. Parekidetasun ezaren istorioa hezkuntzan edo ekonomiaren arloan bakarrik entzuten badute, erakargarritasun-ereduetan eta genero-roletan indarrean dagoen ezberdintasuna identifikatzeko arazoak izango dituzte.

Beraz, harreman afektibo-sexual bat sortzea erabakitzen duten neskek modu indibidualean egiten dute, baina ikasitako eredu sozial batzuen baitan. Eta kanpotik ikusita neskek nahi dutena eta nahi dutenean erabakitzen dutela pentsatu ahal badugu ere, errealitatean onartuak sentitzeko presioa eta beharrizana daukate, eta horrek eragin zuzena du euren erabakian, eurek aitortuko ez duten arren. Pentsa dezakegu neska batzuei edo guztiei, gorputzak eskatu izan diela euren bizitzaren momenturen batean inolako harremanik ez izatea, edo teorian arrakastatsuak ez diren mutilekin harremanak izatea, baina benetan egin dezakete? Beharrezkoak dituzten erreminta guztiak dituzte euren buruari kasu egiteko, eta euren erabaki guztiekin aurrera jarraitzeko?

### 5.3. Rolloa, mutil-laguna... Nola erabakitzen da?

Erakargarritasuna edozein harremanaren hasieraren oinarria da, bere iraupena edozein dela ere, eta, beraz, edozein harreman-mota hasterako orduan, aukeratzeko irizpideak berdinak dira kasu guztietan. Haatik, harreman horren egonkortasuna edo iraupenaz hitz egiten hasten garenean, hasierako erakargarritasunetik haratago bestelako faktoreak kontuan hartzen ditugu. Egoera honetan harreman-ereduak oso garrantzitsuak dira, harreman gatazkatsu, bortitz, posesibo eta biolentoak mantentzea eragin ahal dutelako.

Aukeratzera irakatsi digute, eta guk irakatsi diguten hori aukeratzen dugu. Eta jendartean ikasi dugu maila jakin batean posesiboak diren gizonak erakargarriak direla. Halaber, irakatsi digute zailak eta gatazkatsuak diren harremanek

emozionalitate handiagoa dutela, segurtasuna eta konfiantza eskaintzen diguten beste harreman parekide batzuk baino.

Genero-indarkeriaren eta harreman egonkorren artean sortu den loturarekin amaitzea garrantzitsua da. Genero-indarkeria ez da bikoteek edo bikote-ohiek sortzen duten zerbait: emakumeenganako bortizkeria ematen da unean-uneko harremanetan, rolloetan, izenik ez duten harremanetan (adiskidetasuna eta sexuaren artean mugitzen diren harremanetan, konpromiso erlatiboa dutenak, uneoro eta azkartasunez gaurkotzen eta/edo aldatzen direnak)...

Unean-uneko harreman esporadiko batean bizi ahal dugun mina beste harreman batekin kendu ahal izango dugula pentsatzeak, edo harreman horrek iraupen handirik izan ez duenez azkar ahaztu ahal izango dugula pentsatzeak, harreman horietan indarkeria-maila altuak onartzea ekar dezake. Edo pentsa daiteke, unean-uneko harremanetan pasioa intentsoagoa denez, intentsitate horrek nahitaez bortizkeria-maila jakin bat izan behar duela.

Luzeagoak diren harremanetan, eztabaida edo liskar baten ondoren sortzen den adiskidetzea erakargarria bihur daiteke. Errealitate hori kezkagarria da, indarkeria saihestu beharrean, indarkeria onartzeko joera egon daitekeelako, gero adiskidetzea pasioz betea dagoelako.

Gazte eta nerabeen artean harreman afektibo-sexualen eredu tradizionalen moral bikoitza behin eta berriz errepikatzen da: pasiorik gabeko maitasuna (harreman parekideak, adiskidetasuna oinarri dutenak, rollo ona, baina erakargarritasunik gabe) edo maitasunik gabeko pasioa. Alde batetik, pertsona erakargarriak daude, eta, bestetik, ondo tratatzen duten lagunak. Eta eredu honek genero-indarkeria babesten du.

Neska batzuentzat, harreman baten erakargarritasuna (esporadikoa den arren) mutilik arrakastatsuena euretaz maitemintzea lortzeko erronkan egon daiteke, gau bateko rollo hutsa izan beharrean. Esfortzu horren baitan, neskak tratu txarren maila jakin bat onar dezake (tratu txar horrek normalizatzeko eta gutxiesteko joera izango du), garaipenaren parte bezala. Neskak pentsa dezake mutilak bere jarrera bortitza aldatuko duela (itxaropen horren baitan, neskak pentsa dezake erantzukizuna berea dela, eta presio gutxiago egingo dio mutilari, mutilak nahi duena eginez...). Azkenean, indarkeriaren lehenengo zantzuei mugak jartzea

zailagoa izango da; eta indarkeriak jarraitzen duenean, neskak tratu txarretan oinarritutako harreman bat duela onartzeko lotsa sentitu dezake.

Mutilentzat, maskulinitatearen fantasia perfektua neska erakargarria eta sexia topatzean datza, bakarrik bere jabetzarena dena, nahiz eta beste mutil guztiek desiratu. Horrela, kontrolatzeko behar hori justifikatzen dute, jeloskor jarriko da "euren" lurraldearen parte direlako eta dominazioa agertzen da, neska on bat izaten jarrai dezan.

Aukeratutako mutilak hegemonikoa den maskulinitate tradizionalaren eredua jarraitzen duenean, neskak hainbat arrisku izan ditzake: etiketatua izatea (erreza den neska, emagaldua, urdanga...), gainontzeko nesken irainak jasotzea, estatus gutxiago izatea (mutilak neskez txarto hitz egingo duelako, gutxietsi, bere garaipenez harro agertu...) eta horrekin guztiarekin, bazterketa hasi edo handituko da. Bakarrik egonda, zailagoa egingo zaio indarkeriatik ihes egitea.

Mutil eta nesken jarrera sexualak ebaluatzerako orduan, oraindik orain moral bikoitzak indarrean jarraitzen du. Mutilek harreman asko baldin badituzte euren estatusa eta balioa handituko dute, baina neskek, ordea, "ospe txarra" izango dute. Ospe txar horren belaunaldian, mutilentzat garaipenaren aldeetako bat konkistaren nondik norakoak kontatzean datza. Beraz, neska batzuen ospe txarra sortzea eragozteko, beharrezkoa da mutilek indarkerian oinarritutako maskulinitatearen ezaugarri horiek alboratzea. Era berean, mutilek pentsatu beharko lukete ez dela etikoa neskak "erakustea" eta euren harremanen inguruan harrokeriaz jokatzea besteen aurrean.

Beraz, nesken ospe txarraren arazoaren kausa, eta tratu txarrak jasotzeko arriskua handitzen duen bazterketaren kausa, ez da harreman gutxi edo asko izatea. Gakoa honakoa da: harreman horiek norekin izaten dituzten, nor aukeratzen duten harreman horiek izateko, zein mutil erakartzen duten, harremanak zer nolako esangura duen, zer nolako lekua duen bizitzan, zer nolako harremanak alboratzen dituzten... Indarkeriaren prebentzio eraginkorrak gai horietan eragin behar du. Arreta bikote heterosexual eta iraunkorretan ematen den indarkeria fisikoan bakarrik jartzen badugu, tratu egokiak hezkuntza onarekin alderatzen jarraitzen badugu, ez dugu indarkeria gelditzea lortuko. Alderantziz, nerabe eta gazteekin loturarik ez duen arazoa dela pentsatzen jarraituko dugu, eta ideia hori gehiago sustatuko dugu.

Indarkeriak ez du zerikusirik harremanaren iraupenarekin: aukeratzen dugun pertsonaren araberakoa da, harremanaren esanahiaren araberakoa da, harremanean jartzen dugun espektatiben araberako da, harremana sortzen den baldintza eta testuinguruaren araberakoa da... eta berdin dio harremana ordu beterako, gau baterako, egun baterako edo bizitza osorako den.

# 6. MASKULINITATE HEGEMONIKOA, ARRISKU

Nola eraikitzen da *mutil gaiztoaren* prototipoa eta nola bihurtzen da erakargarri maskulinitate-eredu gisa?

Hauek dira, zalantza barik, genero-indarkeriaren prebentzioarentzat gakoak izan daitezkeen galderak. Orain arte, emakumeak ulertzen saiatzeko ahalegin ugari egin dira, feminitate tradizionalaren ikaskuntzan sakonduz eta biktimizaziorako tolerantzia aztertuz, horretarako teoria ugari proposatuz. Baina erasotzailearen inguruan ez da horrenbeste hausnarketarik egin, erasotzaile izatera nola heldu den aztertu barik utziz; hezkuntza-zentroetan erasotzaileari begira egiten diren prebentzio-kanpainak anekdotikoak dira, eta muturrekoak eta agerikoak diren jarrera bortitzak baino ez dituzte jomugan.

Erasotzailea ulertzeko ezinbestekoa da mitoak bertan behera uztea: ez da munstro bat, ez da gure jendartearen produktu mespretxagarria, ez da txikitan tratu txarrak jaso zuen gizona eta patroi hori errepikatzen duena mendekuz; ez da psikopata bat, dena kendu dioten eta etsita dagoen gizon bat, erasotzeko beste erremediorik ez duena... Erasotzailea dela edo bere bikotea hil duela jakiten dutenean, euren auzokide, lagun edo/eta auzokideek esaten duten moduan, gizon *normal* bat da, *integratuta* dagoen mutil bat.

Sozializazio prebentiboaren lehenengo urratsean, argi utzi behar da eta horrela adierazi behar da, indarkeria ume, nerabe eta gazte *normalek* eragin ahal eta eragiten dutela. Hau da, ikasle onak izan daitezke, jarrera bortitzek ez dutelako zertan loturarik izan jarduera akademiko eskasarekin; atseginak izan daitezke, modu eta heziketa onak indarkeriarekin bateragarriak direlako. Onartu behar dugu indarkeria eragiten duten pertsonak ongi egituratutako familien baitan ere egon daitezkeela. Familia horietan onartu beharko dute euren semea biolentoa eta bortitza dela, semea laguntzeko biderik egokienak topatzeko asmoz. Mutil askok ez dute horren erraz onartzen euren jarrerak biolentoak direla, eta, beraz, ez dute euren burua identifikatzen gai honekin: ez dute euren erantzukizuna onartzen eta euren jarrera aldatzeko egiten diren deiei ez diete kasurik egiten[20].

---

[20] Baieztapen honen adibide bat Edwards, Bradshaw eta Hinszek (2014) Ipar Dakotako Unibertsitatean egindako ikerketa batean topa dezakegu. Azterketa gizonak, heterosexualak eta estatubatuarrak diren 86 ikaslerekin egin zuten, eta, besteak beste, eskatu zitzaien zer nolako probabilitatea izan dezaketen, adibidez, emakume batek nahi ez duen sexu-jarduera bat egitera behartzeko, eta inork jakingo ez balu eta inolako ondoriorik izango ez balu,

Euren burua biolentotzat ez dituzten mutil eta gizon askok ez dituzte euren neurrigabeko jarrerak ikusten, genero maskulinoaren aginduen ezaugarri "normalak" direla uste dutelako; baina agindu horiek maskulinitate hegemoniko horren ardatzak dira, eta maskulinitate horrek, agerikoak diren adierazpenetan, indarkeria zilegi bihurtzen du, gizonengandik espero den jokabidea indarkeria dela normalizatuz.

Maskulinitatea onartzeak gizon eta mutilak euren garapenean ulertzen lagunduko digu. Izan ere, maskulinitate hegemoniko eta gizonen arteko ezberdintasuna ulertzea ezinbestekoa da. Conellek[21] esaten digun bezala, maskulinitatea, prozesu bat baino, produktu bat da, kultura zehatzetan dagoen generoen arteko loturen sistemetan dagoen praktika-sorta bat da, hain zuzen ere. Eta horren eraginez, botere-harremanak, rol sozialak eta norbanakoen gorputzak erregulatzen ditugu.

*Maskunititatea* kokaleku soziala da, hots, genero-harremanen baitan dagoen gida moduko bat da. Horren inguruan gizonek beren lekua bilatzen dute eta beren jarrerak eta harremanak antolatzen dituzte. Maskulinitate hegemonikoaren baitan emakumeekiko kontrola dago, orokorrean emakume guztien gaineko kontrola eta zehatzago, gertuago dauden harremanetan: ama, arreba, bikotea, laguna. Baina maskulinitate hegemonikoaren "helburuetako" bat mendekotasunetik ihes egiten duten emakumeak kontrolatzea ere bada: *azkarregiak* direnak, *mari-zikinak*, maskulinitateari emandako boterearen aurre egiten dioten errebeldeak.

Maskulinitatea rol sozialak eraikitzeko gida bat da. Gizon bakoitzak erabakitzen du nolakoa izan nahi duen eta maskulinitateen baitan bere burua non kokatu nahi duen, baina identitate hori beti egongo da kontraesanez eta barne-zalantzez betea, pertsonak aldatzen joaten direlako, eta ezaugarri batzuek euren indarra aldatzen dutelako hainbat ezaugarri pertsonalen arabera: adina, jatorria, hezkuntza-maila,

emakume bat bortxatzeko. Gehiengoak (%63) aukera hori baztertu zuen arren, gainontzeko %31,7-ak aitortu zuen emakume bat behartuko lukeela berak nahi ez duen harreman bat izatera, beti ere inpunitatea dagoen bitartean. %13,6-ak gainera, gaineratu zuen bortxatuko lukeela. Ikerketaren ondorioetako bat honakoa da: gizonezkoen zati handi batek emakume bat sexu-harreman bat izatera behartuko luke, baina hori ez dute bortxakeriatzat jotzen.

[21] Raewyn Connellek (1944. urtean Robert William Conell legez Australian jaiotako soziologoa) maskulinitatearen inguruan irakurri beharreko hainbat lan idatzi ditu, batik bat maskulinitate hegemoniko eta genero-indarkeriaren arteko loturari buruzkoak. Edizio dataren arabera, bere lanak Robert, Roewyn edo RW Connell bezala irakurriko ditugu. Atal honetan agertzen diren ideia batzuk "La organización social de la masculinidad" lanean oinarritu dira. Ikusi bibliografia.

egoera sozio-ekonomikoa, edo, adibidez, familiaren baitan duen leku erreal edo sinbolikoa. Genero-identitateek ez dute zertan mugiezinak izan, ezarritako balore eta eredu ezberdinen arteko negoziaketarekin eraikitzen dira. Horrez gain, ezartzen diren hartu-emanek eta garatzen diren testuinguruek ere zerikusia dute genero-identitateetan.

*Maskulinitatea* gorputzaren bidez adierazteko modu bat ere bada: nola bizi den, bere burua nola aurkezten duen, bere burua nola zaintzen duen. Emakume eta gizonen gorputzek balorazio sozial ezberdina dute. EMAKUMEEN gorputza GIZONEN desirarako eraikitzen da, eta, beraz, gizonak ederra eta itsusiaren epaile bihurtzen dira, emakumeen gorputzen estetikan zer den egokia edo desegokia erabakitzen dutenak dira.

Maskulinitate hegemonikoa mendean dauden gainontzeko maskulinitateekin negoziazio etengabean dago. Hau da, gizonek ez dituzte harreman horiek emakumeekin bakarrik eraikitzen, gainontzeko gizonekin ere bai. Mutil "gaiztoek", adibidez, maskulinitate hegemonikoaren prototipoa jarraitzen dute, eta, horren ondorioz, erakargarriak dira neskentzat. Baina erakargarriak dira euren modukoak izan nahi duten mutilentzat ere, mutil horien desira euren modukoak izatea delako, eta euren testuinguruaren parte diren heinean, horretaz baliatuko dira (edo hori pentsatuko dute eurek), mutil gaizto horien inguruan dagoen botere eta erakargarritasunaz aprobetxatuz.

Maskulinitate hegemonikoak indarkeria eta bortizkeria handia du. Egitura honen zati garrantzitsuenetako bat emakumeekiko kontrola da. Kontrol hori hainbat modutan ezarri daiteke: paternalismoaren bidez ("zuretzat onena nahi dudalako egiten dut, zuk ez dakizulako edo ezin duzulako"), indarkeriaren bidez ("niri kasu ez egiteagatik edo nik ezarri dizkizudan rolak ez betetzeagatik merezi duzuna jasoko duzu"). Lehen ikusi dugun bezala, kontrol hori txikitatik ikasten da.

Mutilen artean sortzen den hierarkian, indarkeria gutxien erabiltzen duen mutila mendean hartzeko joera dago, "horren gizona" ez delako, baina jarrerak dinamikoak direla uste badugu, pentsa dezakegu jarrera ez bortitzak ere mutilen artean erakargarriak bihur daitezkeela, eta gaur egun erakargarritasun-ereduak direnak irauli daitezkeela.

Kontrol hori ezartzen den *forma* oso garrantzitsua da eta horren gainean lan egin behar dugu, mutiko, mutil eta gizonen jarrera biolentoak zigor barik geratu ez

daitezen. Honako ustea kolokan jarri behar dugu: maskulinitateak eskubidea duela kontrolatzeko, aukeratzeko, babesteko eta neskentzat ona edo txarra dena aukeratzeko. Hau da, gizonak autoritatearekin identifikatzen duen ideia zalantzan jarri behar da, zilegitasuna kenduz.

Horregatik, ezinbestekoa da maskulinitate hegemonikoa ume, nerabe eta gazte guztiekin lantzea eta zalantzan jartzea, eurek maskulinitate hegemonikoa alboratu ahal dutela azpimarratuz (alde sexista eta alde biolentoa). Indarkeria aktiboa erabiltzen duten mutilek, hots, erasotzen dutenak, jazartzen dutenak, neskak edo ustez ahulagoak diren mutilak iraintzen dituztenak, gutxiengoa izan daitezke; baina autoritate maskulinoan eta eskubide "natural" bezala erabiltzen dutenak gehiengoa dira. Baina autoritate maskulinoaren uste honek ez du esan nahi gero egunerokotasunean autoritate erreala dagoenik. Hau da, mutil batzuek praktikan agian ez dute inolako autoritaterik ezartzen, baina uste dute gizon izate hutsagatik emakumeenganako autoritatea dutela.

Beste alde batetik, autoritate erreala duten gizon askok ez dute maskulinitate hegemonikoa jarraitzeko beharrik. Haatik, maila askotan botere eta autoritate errealik ez duten eta euren rola eta pribilegioak zalantzan jarri gabe hezi diren nerabe askok, eredu harroputz eta bortitz hori jarraitzen dute, neskentzat erakargarria delako eta berdinen arteko taldean boterea ematen dielako, azken hori nerabezaroan erreferente garrantzitsua baita. Horregatik garrantzitsua da mutilen autoestimua eta jarrera ez biolentoetan euren segurtasuna nola eraikitzen duten lantzea.

"Mutil gaiztoaren" erakargarritasuna bultzatzerako orduan taldea gakoa da, urrunekoa edo abstraktoa den eredua ezagun, ikaskide edo lagun batean gorpuzten delako, eta bere boterea bere alboan egoten direnei ere kutsatzen dielako. Horrela, gainontzekoak ez dira bakarrik geratuko eta "mutil gaiztoaren" alboan egoteak segurtasuna emango die. Baina taldea maskulinitate-eredu horri zilegitasuna kentzeko faktore garrantzitsua izan daiteke. Hori lortzeko, eredu hori zalantzan jartzeak lehentasuna izan behar du, maskulinitate hegemonikoa arriskutsua delako neskentzat, maskulinitate mota hori jarraitzen ez duten mutilentzat eta parekidetasuna kontzeptu teoriko hutsa dela pentsatu beharrean, jarduteko eta bizitzan egoteko modu bat dela pentsatzen dutenentzat.

Mutilek maskulinitate hegemonikoa arbuiatzea ezinbestekoa da. Maskulinitate hegemonikoa antzematen ikasi behar dute, onartezina eta arbuiagarria dela

pentsatuz. Egia da komunikabideek eta kultur ekoizpenak indar handia dutela, eta maskulinitate-eredu hori egunerokotasuneko produktu guztietan uneoro dagoela (fikziozko pertsonai ugarik, adibidez, manipulatzen eta txarto tratatzen dute abenturetan garaile izateko asmoz, eta euren saria neska erakargarria izan ohi da); badakigu kirolariek[22] eta politikariek gorpuzten duten eredu sozialek eredu hau bultzatzen dutela. Badakigu; eta kasu horretan, indarkeriaren prebentzioa arlo sozialean landu behar da, baina horrek ez du esan nahi influentzia horri aurre egin ezin ez diogunik, egunero lan eginez, hezkuntzaren hartu-emanak eskaintzen dizkigun aukerak baliatuz, genero-indarkeriaren prebentzioan modu egokian aurrera egin dezakegu, maskulinitate hegemonikoaren eredu hau arbuiatzen dugun bitartean.

[22] Kirolariak maskulinitate hegemonikoaren erreferente oso garrantzitsua dira, batik bat kirol-elitearen parte diren eta oihartzun publiko handia duten futbolariak. Futbola hedabideetan oihartzun gehien duen kirola da, eta kirol honetan batez ere indarkeria, arrazismoa eta sexismoa egoten dira presente, futbol-taldeen jarraitzaileen artean sexismoa arrazismo edo indarkeria baino onargarriagoa den arren. Baieztapen hau hamaika adibiderekin arrazoitu daiteke, agian esaguratsuena 2015. urtean Betiseko zelaian gertatu zena izan da, Sevilaren kontrako norgehiagoka batean. Zaleek genero-indarkeriaz inputatuta dagoen futbolari bat babestu zuten, honakoa oihukatuz: "Ruben Castro alé, Ruben Castro alé, no fue tu culpa, era una puta, lo hiciste bien". Oihu hauek publikoki gaitzetsi ziren arren, ez zen taldearen kontrako bestelako ekinbiderik egon.

## 7. NESKEN GORPUTZA OBJEKTU BIHURTZEKO ARRISKUA

Indarkeriaz jokatzeko enpatia falta beharrezkoa da. Hau da, emakume edo neska bat erasotzeko, emakume edo neska hori objektu bihurtu behar dugu, bere gizatasuna kenduz. Prozesu hau ez da gauzatzen erasoa egiteko momentu berean, aldez aurretik hausnartzen ibili garen sozializazioarekin lotura du. Ume, nerabe eta gazteen kasuan, objektu bihurtzen duen sozializazioa ez da erabatekoa, aurreko belaunaldiekin konparatzen badugu behintzat; mugimendu feministak lorpen ugari lortu ditu azken hamarkadetan eta, horri esker, emakumeak subjektu bihurtu dira, erabakitzeko gaitasunarekin eta euren herritartasunaren aitorpenarekin[23].

Baina arlo batean, emakumeen objektibazioak –objektu bihurtzeak– presente jarraitzen du: sexualitatea. *Objektibazio sexuala*ren bidez, emakumeen gorputza objektu bihurtzen da, gizonen plazer sexuala asetzeko tresna hutsa. Sozializazioaren bidez, gizonak subjektu desiragarria dira, eta eurek baloratuko dute zein emakume den erakargarria eta zein ez; emakumeak, beraz, euren desirarako objektu bihurtzen dira. Objektibazio hori jada ez da heldutasunera mugatzen; nerabe eta neskatoak ere objektu sexualizatu[24] bihurtu dira.

Objektibazio horren eraginez, txiki-txikitatik nesken gaitasuna batik bat edo bere osotasunean euren itxura fisiko eta erakargarritasunagatik baloratuko da, bestelako ezaugarriak alboratuz: oraindik ibiltzeko gai ez den neskato baten aurrean, helduek "zelako polita!" esateko joera dute, mutilei "zelako indartsua!" esateko joera dagoenean. Aurrerago, objektibazio hau erakargarritasun fisikotik balorazio erotikora salto egingo du: neska politak neska sexietan bihurtuko dira.

Emakumeen gorputzen hipersexualizazioaren ondorioetako bat emakumeen auto-objektibazioa da, hau da, eredu hori jarraitzeko presioa neskek edo euren berdinen arteko taldeak eragiten duenean. Neskek euren burua mutilenganako desira-

---

[23] Erabakitzeko gaitasun hau ez da bizitzaren arlo guztietan berdin gauzatzen, eta eskubide hori etengabe defendatzen ibili behar da.

[24] Nesken gorputzaren sexualizazioak kezka handia sortzen du, eta hainbat eztabaida sortu dira honen inguruan, batik bat hedabideetan agertzen denean, 2011. urteko Vogue aldizkariko azal batekin gertatu zen bezala. Moda eta edertasunaren industriak adinaren muga gero eta gehiago jeitsi du, eta hainbat ikerketek azaleratu duten bezala, elikadura-arazoak hamar aldiz gehiago ematen da nesken artean mutilen kasuan baino.

objektu bezala ikusten dute, eta, horren eraginez, itxura eta pisua etengabe neurtzen ari dira, larritasunera heldu arte. *Neska katxarroaren* ideiarekin lotzen den eredu arrakastatsua betetzen ez badute, lotsa sentitu ahal dute, euren burua baztertuz.

Sexu-protipo hori lortzeko asmoz neskek neskei eragiten dieten presio hau sexualitatean ere topa dezakegu. Gaur egun, oso ohikoa da neska-mutilek nesken sexu-askatasuna ideia honekin lotzea: adin jakin batean (gero eta lehenago) sexu-harremanak izateko betebeharra, inolako lotura afektiborik sortzeko beharrik gabe harremanak izateko aukera. Berdinen arteko taldeak presioa egingo du neska batek ustezko sexu-askatasun hori erabiltzeari uko egiten dionean.

Historikoki, eredu hau sexualitatearen eredu maskulinoarekin lotuta egon da. Orain eredu hau neskengana ere zabaldu da, parekidetasunaren ustezko lorpen bat izango balitz bezala. Noski, neskek eskubidea izan behar dute nahi dutenarekin nahi dutenean sexu-harremanak izateko, baina eskubide horretan ere, neskek sexu-harremanik ez izateko aukera izan behar dute; harreman egonkor baten baitan sexua izatea erabaki ahal dute, edo seguruago sentitzen diren adin batera itxaroteko eskubidea ere izan behar dute. Aukera horiek beste aukerak bezain onargarriak dira; garrantzitsuena da neska bakoitzak eskubidea izan behar duela bere sexualitatea nahi duen moduan esperimentatzeko, eta erabaki horrek besteen errespetua jaso behar duela.

Bestalde, sexu-eredu honen ondorioak alderatzen baditugu, neskentzat eta mutilentzat berdinak ez direla ikus dezakegu, benetako parekidetasuna bermatzen duten baldintzarik ez dagoelako. Mutilek maitasuna eta sexualitatea ezberdintzeko tradizio luzea dute, eta nahi dituzten bikote sexualak izan ahal dituzte, horregatik gaitzespen moralik jaso gabe; maskulinitate hegemonikoaren sozializazioari esker, mutilek eredu hau normalizatzen duten barne-mekanismoak dituzte; euren berdinen taldekoen konplizitatea dute eredu hau gauzatzeko, nesken errefusatzeari aurre egiteko baliabide nahikoak dituzten bitartean, neskengana joateko ekinbidea edo iniziatiba mutilena delako.

Noski, mutil guztiek ez dute maskulinitate hegemonikoaren eredua modu berdinean barneratu, eta batzuek nahita eredu hori arbuiatuko dute. Horientzat, sexualitate mota hori jarraitzera behartzen dituen presioa oso indartsua izan daiteke, eta isolatuak, "zalantzazko mutilak" edo "maritxuak" izateko arriskua dute, ereduari erresistentzia egiten diotelako.

Neskek, euren aldetik, ez dute tradiziorik ustezko sexu-askatasun honetan. Are gehiago, euren jarrera "libre" honek ezinegona eta gaitzespena sortu ohi du helduen artean, eta baita gainontzeko neska eta mutilen artean ere: jokabide hau izatera bultzatzen dituzten bitartean, jarrera hau izaten dutenean kritikatzen dituzte. Egia esan, irudieria kolektiboan mezu bi egon ohi dira: alde batetik sexualitate maskulinoa emakumeei hedatzea arbuiatzen duena (eta ez eredua bera arbuiatzen duena), eta, beste alde batetik, ustezko sexu-askatasun hori neskei ere aitortu behar zaiela defendatzen duena. Mezu bien arteko borroka horretan, neskek ez dute euren zalantzak adierazteko espaziorik izaten.

Sexuarekin lotutako moral bikoitz hau indarrean dagoela landu behar dugu neska eta mutilekin. Moral horren eraginez, neskak beti egongo dira kritika eta gaitzespenaren jomugan (euren jarrera edozein dela ere), eta mutilak bakarrik kritikatuak izango dira maskulinitate hegemoniko hori ez jarraitzekotan.

Sexualitate askea lorpen edo konkista kopuruarekin lotura duela defendatzen duen mitoa ere kolokan jarri behar dugu. Neskek harremanik ez izateko askatasuna izan behar dute. Era berean, mutil batzuen erakargarritasunik handiena euren errespetuzko jarrera edo minik ez eragiteko jokabidea izan daiteke, eta neskek mutil horiek aukeratzeko askatasuna izan behar dute.

## 8. SEDUKZIOA ETA LORPENA: JOLAS[25] ARRISKUTSUAK

Genero-indarkeriak neskei eragiten die, horretan ez dago inolako zalantzarik, zenbakiek hala gogorarazten digute egunero. Hala ere, gure jendartean oso barneratuta daude indarkeria honek hartzen dituen forma batzuk, edo, bestela, helduen ikuspuntutik bakarrik aztertzen dira. Maskulinitate hegemonikoaren eraikuntza ulertzen badugu, horrelako jarrerak adinarekin pasatuko direla pentsatzeari utziko diogu; hipersexualizazio eta auto-objektibazioen prozesuak ulertzen baditugu, neskek eta mutilek bizitzaren fase horretan indarkeria maila berean erabiltzen dutela pentsatzeari utziko diogu eta, horrela, indarkeriaren prebentzioa irizpide berdinekin landu behar dela pentsatzeari utziko diogu. Ideia hauek gure arreta ekintzetan jartzen dute harremanetan jarri beharrean, harremanak sumatzeko zailtasun gehiago ditugulako naturalizazio-maila altuak direla eta.

Harreman afektibo-sexualak abiatzen ditugunean, generoaren sozializazioaren ikasketa guztiak martxan jartzen dira. Neska eta mutilek modu indibidualean aurre egiten dioten ariketa bat dute aurrez aurre, baina berdinen-arteko talde baten baitan burutzen dute, eta hori oso garrantzitsua da. Noski, hartu-eman horien ondorioak segurtasuna eta autoestimua bezalako ezaugarri pertsonalen araberakoak izango dira, baina taldearen presioari aurre egiteko erresistentzia eta neskek euren babeserako dituzten mekanismo eta inguruneek ere eragina izango dute. Ikus dezagun eremu honetan *igoera-ispilatzea*[26] bezala deitua izan den mekanismoa nolakoa den.

"Mutil gaiztoaren" rola betetzen duen mutilarekin harremanak izatekotan –gehienetan harreman horiek esporadikoak izango dira–, neska batzuek euren burua erakargarritzat jo dezakete, harreman horiek izateko aukeratuak izan direlako.

---

[25] Jolasez ari garenean, ez dugu bere esanahi ludikoa kontuan hartzen, gidoi zehatzak jarraitzen eta ikuspuntu ezberdinetatik mugitzen diren pertsonen arteko hartu-emanez ari gara. Harreman hauek dituzten izaera dinamikoa nabarmendu nahi dugu, pertsona batek duen mugimenduak beste pertsonak duen jarreran eragina duelako. Genero-indarkeria ezaugarri indibidualetatik bakarrik aztertzen dituzten analisiak alboratu nahi ditugu, nesken ezaugarriak (gehienbat) edo mutilenak izan. Aldez aurretik aipatu dugun normalizazioaren ingurune honetan, ezaugarri hauek indartzen dira euren artean harremanetan hasten direnean, eta horretan arreta jarri nahi dugu.

[26] Bibliografian gai honekin lotutako lan bi bildu ditugu, eta eurei esker, gazteen arteko harremanetan eragina duten mekanismo honetan sakontzeko aukera izango dugu.

Agian erakargarriak izango dira, edo agian ez, baina arestian aipatu dugun bezala, bestearen desirak bihurtzen ditu erakargarri, eta taldearen liderrak neska bat aukeratzekotan, neskaren estatusak gora egiten du lorpen hori gauzatzea lortu duelako –hori da neskak uste duena–, baina errealitatean, mutilak aukeratu du neskarekin harreman hori izatea. Eta neska hori aukeratu du batez ere "mutil gaiztoaren" rol horrek konkistak eskuratzea eta horretaz harro agertzea eskatzen duelako.

Horrela, hasiera batean, neskaren estatusak gora egingo du, taldearen liderrarekin harreman bat izatea lortu duelako, eta, horren eraginez, desiragarriagoa bihurtuko da gainontzeko mutilentzat. Baina estatusean ematen den gorakada hau ispilu hutsa da, ez da benetakoa, neskak aurrerago egiaztatu ahal izango duen moduan. Izan ere, balorazio hau kanpotik etortzen da, eta mantenduko da liderraren arreta bereganatzen duen heinean, baina hori ez da luzaroan mantenduko. Haatik, askotan gertatzen den moduan, mutilak unean-uneko neska[27] horren intimitatea lau haizetara zabalduko du, eta horren ondorioz, neskak irainak jasoko ditu eta bazterketa pairatuko du, lehen miresmena sortzen zien nesken aldetik eta laudorioak jasotzen zituen mutilen aldetik. Bere igoera, beraz, faltsua zen, liderraren arretak sortutakoa zen, eta azkenean zikloa horrela amaituko da: "neska erreza" bihurtuko da, ez da lagun gomendagarria izango, eta sexu-kontuetarako ere ez da baliagarria izango.

Neskek mota hauetako mutilak aukeratzen dituztenean (eta ez da erreza eurei kasurik ez egitea, arrakastatsuak eta erakargarriak direlako), euren ustezko sexu-askatasuna euren kontra bihurtzen da. Orokorrean, neska hauek ez daude prest bazterketa eta irainak pairatzeko, euren intimitatea lau haizetara zabaldua izateko edo jazarpenaren deribazio ezberdinak sufritzeko. Txikitatik ikasi dute harreman konplikatuak harreman-motarik onenak direla, eta maskulinitate hegemonikoaren eredua jarraitzen ez duten mutilak ez direla arrakastatsuenak, eta, beraz, ez dituzte erakargarri ikusten. Sozializazio honen eraginez ere, ez dira gai euren harremanean bizi duten ezberdintasun egoera ikusteko, ez dute euren burua biktimatzat jotzen, ezinegona sentitu eta jazarpena pairatu arren, eurek erabaki

[27] Teknologia berrien eraginez, gainera, lorpen horiek di-da batean zabaldu daitezke gaur egun, eta neskaren umiliazioa are handiagoa izan daiteke, sexuarekin lotura duten argazki edo bideoak lau haizetara zabal daitezkeelako. Horrela, indarkeriarekin lotutako eszenatoki berriak sortu dira, aurrerago ikusiko dugun bezala.

dutelako mutil horiekin harremanak izatea, eta, beste alde batik, euren autonomia pertsonalaren[28] parte den aukeratzeko askatasun "hori" aldarrikatzen dutelako..

Eta gainera, nori kontatuko diote? Agian bere lagunek ez diote babesik emango, edo, bera bezala, zalantzez beterik egon daitezke. Bera baino nagusiagoa den neska bati edo heldu bati kontatzekotan, agian errua berari botako diote; horrela, jazarpenaren forma hau desegingo da eta neskentzat ondorio ugari izango ditu, mutilentzat inolako ondoriorik ez dagoen bitartean.

Kontrola eragiten duten jolas maskulino hauen baitan ez sartzeko modurik onena neskek euren buruan eta euren gaitasunetan modu irmoan sinistea da. Izan ere, jolas horien helburua ez da neska batekin harreman egoki bat sortzea, lagun-taldean lidergoa mantentzea baizik. Hori ekiditeko, emakumeen gorputzaren des-objektibazioan lan egitea beharrezkoa da, eredu honen eta indarkeriaren arteko harremana agerian uzten dugun bitartean.

[28] Aurrerago baimen eta onespenaren ideian sakonduko dugu, indarkeriaren kontra aritzeko babes-mekanismoetan oso garrantzitsuak direlako.

# 9. MAITASUNA EZ DA INDARKERIA

Genero-indarkeriaz ari garenean, oso ohikoa da gure diskurtsoa bikote harreman egonkorren ingurukoa izatea. Horrelako mezuekin, gazteei ez diegu inolako ekarpenik egiten euren egoera konpontze aldera. Eurek esaten duten bezala, maitemintzen banaiz, mina jasotzeko arriskua baldin badaukat... zer egingo dut? Maitasuna ekidin? Nire bizitzatik ezabatu?

Gai honetan neskei erantzunak emateko asmoz eta mutilak gai honen parte sentiarazteko asmoz, ideia batzuk garbi uztea oso garrantzitsua da. Ideia bat, modu berezian, arreta handiz kontuan hartu beharko dugu:

MAITASUNAK EZ DU INOIZ INDARKERIA BERE BAITAN HARTZEN

Beste modu batera esanda, mugimendu feministek behin eta berriz emakume eta gazteei begirako mezuetan esan duten bezala:

MAITASUNA ETA INDARKERIA BATERAEZINAK DIRA,
MAITASUNA EZ DA "LA OSTIA",
JOTZEN BAZAITU EZ ZAITU MAITE,
KONTROLATZEN BAZAITU EZ DA MAITASUNA...

Neskek euren harreman afektibo-sexualekin amesten dutenean, indarkeria ez da sekula amets horietan agertzen. Agian amets horretan oso errealistak ez diren ezaugarri batzuk egongo dira (normala da, esperientziarik ez dutelako eta kultur produktu ezberdinen eragin handia dutelako), besteak beste, "dena" uneoro beste pertsonarekin konpartitzea; batak besteari erabateko dedikazioa izatea; egiten, pentsatzen eta nahi duten guztia kontatzeko konfiantza osoa izatea; sortu daitezkeen arazoak elkarrizketaren bidez konpontzeko gaitasuna izatea; pasioa bermatuta izatea; proiektu amankomuna, askatasuna, errespetua... baina indarkeria inoiz ez, inolako formatutan. Neskek ez dute inoiz amesten euren bikotearengandik jazarpen, gezur edo jipoirik jasoko dutenik; inoiz horrelako ideiaren bat euren burutik pasatzen bada, amesgaiztoaren forma hartuko du, ez ametsarena.

Eta nerabezaroak eta gaztetasunak ematen dien segurtasunetik, honakoa pentsatu eta esan ohi dute: inoiz telebistan ikusten dituzten tratu txar egoera horietako bat

pairatzekotan, ez nuke lehenengo iraina, oihua eta are gutxiago lehenengo kolpea onartuko. Zintzoki esaten dute, horretan benetan sinisten dutelako.

Hori bai, neskek hainbat kontraesan topatuko dituzte euren ametsetako harremana errealitatean gorpuzten dutenean. Maitasuna eta indarkeria bateragarriak ez direla pentsatzen duten arren, mutil bortitza erakargarri egingo zaie, hots, maskulinitate hegemonikoaren ereduaren ezaugarriak bete-betean betetzen dituen mutila –aldez aurretik deskribatu duguna–. Mutil horrek neskari mina eragiteko aukera ugari izango ditu, bere xarmarekin batera, neskak mespretxuz tratatzea bere erakargarritasunaren parte delako.

Hau guztia zentzugabekeria da. Kontraesan honen azalpena emakumeek txiki-txikitatik jasotzen duten sozializazioan topa dezakegu. Horren arabera, maitasuna, bere maitasuna, gauza ororen gainetik dago. Eta "guzti" horren baitan, pentsatzen dute euren maitasunarekin mutil-gizon bortitz hori mutil-lagun edo senar fidel, maitakor eta atseginean bihurtuko dutela. Emakumeen identitatean maitasuna ez da kanpoko zeozer, maitasuna ardatza da, eta horregatik kostatzen zaie horrenbeste ulertzea maitemindu diren pertsona horren jokabidea ezin izango dutela aldatu. Eta horregatik ez dute sinisten mutil-gizon bortitzaren jokabidea aldatu ezin izango dutenik, mutil-gizonaren harremanak izateko modua bortitza den arren.

Gainera, mutil bortitz horren jokabidea aldatu ahal izango dutela pentsatzeak hainbat arazo ekarri ahal dizkie neskei. Lehenengoa honakoa da: horrenbeste gustoko duten "mutil gaiztoa" aldatzeko gai izango balira, seguruenik jada ez lukete erakargarritasunik sentituko mutil horrekiko, eta bestea faltan botako lukete, bortitza izateagatik maite zuten mutil hori, alegia. Beste arazoa honakoa da: mutilak ez badu beharrik ikusten bere burua aldatzeko (eta arrakastatsuak diren mutil bortitzek gutxitan ikusten dute horren beharrik, arrakastatsuak direlako), neskaren esfortzuek harresi baten kontra joko dute.

Harreman konplikatuak horrenbeste goraipatu duen maitasunaren kulturak "zapaten orkoien" inguruan hitz egiten du, hau da, honako ustea defendatzen du: pertsona bat aldatzea lortuko dugu horretarako gaitasun "egokia" duen pertsona agertzen denean. Hori guztia, gezurra izateaz gain, mina sortzen du, nahaste-borrastea areagotzen du. Mutil gaizto bat ez da sekula aldatuko arrakasta duen bitartean, berak ez du inolako arrazoirik ikusiko aldaketa hori gautzatzeko. Beste alde batetik, neskek ikasten dute sedukzioaren jolasean euren desirak

manipulatzen ikasi behar dutela: gauza bat sentitu baina kontrakoa erakutsi. Neskek ezin dute beti aitortu mutil bortitzenganako erakargarritasuna sentitzen dutela, eta askotan erakargarritasun hori mutil hori aldarazteko ideiarekin mozorrotu beharko dute... benetan mutil bortitz horren atzean neskaren beharra duen ume gaixo bat dagoelako.

Indarkeria pairatu duten emakume helduen kontakizunetan oso ohikoa da horrelako argudioak entzutea: "egia esan, bere barnean gizon ona da eta asko maite nau, baina oso denboraldi txarra igarotzen ari da", "nik ere erruaren zati bat dut pasatu naizelako eta oso urduri jarri dudalako". Benetan esaten dute, horretan sinisten dute.

Nesken usteen eta emakumeen esperientzien artean badago zerbait amankomunean: emakume bat, emakume on bat, arrakastatsua izango da bere harremanetan mutila "eramaten" ikasten duenean, bere mugak ezagutzen dituenean, bere kexekin mutila aspertzen ez duenean. Horren bidez, neskak lortuko du mutilak bere aginduak betetzea, mutila konturatzen ez bada ere. Mezu hauek aldebakarrekoak dira, hau da, mutilek ez dituzte jasotzen, ez dira euren ikasketa-prozesuaren parte, mutilek eurek nahi dutena egiten dute neskek mugak jarriko dizkielako. Mutilak ez baditu muga horiek errespetatzen, gainera, errua beti izango da neskarena.

Mekanismo honek ba ote du inolako loturarik maitasunarekin? Inola ere ez. Harreman asimetrikoak eraikitzen duen egitura ideologikoa baino ez da. Emakumeei errua leporatzen dion eta indarkeria justifikatzen duen egitura. Hala ere, egitura honek indar handia izaten jarraitzen du emakume eta gizonen artean, neska-mutilek etengabe indartzen dutelako. Arriskutsua den arren, honi "maitasuna" deitzen zaio.

Hori dela eta, indarkeriaren sozializazio prebentiboa bermatzeko ezinbestekoa da hau ez dela maitasuna behin eta berriz errepikatzea. Maitasuna ezin da inoiz kaltegarria izan, hedabideek askotan indarkeriarekin lotutako albisteen titularretan "pasio-krimena" edo "maiteminduta zegoen erasotzailea" jartzen duten arren. Maitasunak tripazorriak dantzan jartzen ditu, aurpegietan irribarreak margozten ditu, zure bikotea babestera bultzatzen zaitu, berarekin atsegina izatera, guapa edo guapoago egotera bultzatzen zaitu... baina indarkeria kontrola, mina eta iraina da.

Ezin ditugu nahastu bi ezaugarri hauek. Ezin diegu neskatoei erakutsi, mutil batek ileetatik tiraka egiten dienean, hori maitasun erakustaldi bat denik. Inoiz ez. Maitasun eta indarkeriaren arteko loturak min handia sortu du eta gaur egun ere sortzen jarraitzen du, emakumeentzako oso arriskutsua baita. Txiki-txikiak direnetik prebentzioaren jomugan tratu txarrak, kontrola eta indarkeria jarri behar dugu, inola ere ez maitasuna. Mutikoei erakutsi behar zaie maite duzun horri ezin zaiola minik eragin.

Maitasuna hainbat bertsiotan ager daiteke: erromantikoa, pasioz betea, abentura-zalea, dibertigarria, irudimentsua, intentsoa, lasaia... guztiak dira ongi etorriak, pertsona bakoitzaren gustu eta bizitzaren fasearen arabera. Beti ere maitasuna den bitartean.

Maitasuna ere ikasi egiten dela irakatsi behar dugu, ez dela bat-batean sortzen den sentimendu bat, ez dela arrazoirik gabeko sentimendu bat, maitasunak dena justifikatzen duela, ez dela konponezina edo ustekabekoa[29]. Maitasunaz dugun ideia hau arriskutsua da, harreman asimetriko eta/edo biolentoak sortzen lagundu ahal duelako[30].

Maitasuna sozialki eraikitzen den prozesu konplexua da. Sozializazio-prozesuek eragin handia duten gure gustu, desira eta lehentasunetan. Nor maitatzen dugun eta nor ez dugun maite erabakitzeko aukera daukagu. Ezin ditugu onartu, maitasunaren izenean, "ezin dela ezer egin" defendatzen duten justifikazioak (horien bidez kontrola edo indarkeria normalizatzen edo justifikatzen baldin bada).

"Maite dut" edo "maiteminduta nago" oso esaldi ohikoak dira nerabe eta gazteen artean, justifikaezinak diren jarrerak justifikatzeko. Maitasunak ez duela balio ezer justifikatzeko azpimarratzeaz gain, gogoratu behar dugu nerabezaroan sentimendu eta beharrizan ugari ditugula, eta ez dutela zertan maitasunarekin loturarik izan.

Beharrizan eta sentimendu horietako batzuk honakoak dira: desira sexuala, onartuta sentitzeko beharra, baldintzarik gabe zure alboan egotea, konplizitatea, gatazkak konpontzeko modua, galera, fusioa, konfiantza, gorrotoa, kontrola,

[29] Ideia hauek Jesus Gomez Alonsok indarkeriaren sozializazio prebentiboari eta erakargarritasunaren prozesuei buruz egindako ikerketetan oinarritu dira. Lehen ikusi dugun bezala, prozesu horiek lotura zuzena dute generoaren sozializazioarekin.
[30] Gai honek hausnarketa eta eztabaida eragin du egile feministen artean, bibliografian topa daitekeen prebentziorako material ugari sortuz.

adiskidetasuna... Horiek guztiak modu egokian kudeatzeko, beharrezkoa da aldez aurretik horiekin esperimentatzea. Era berean, nabarmendu behar da harreman afektibo batean sortzen diren sentimendu guztiak ez dutela zertan maitasuna izan; sentimendu horiek guztiak orokortzekotan, maitasunaren ideia gehiago nahastuko dugu. Jendartean maitasunaren ideia konfusioz beterik badago ere, are nahasiagoa da sentimendu hori gazteen artean.

Monogamia, fideltasuna eta heterosexualitatea integratzen duen eredu tradizionala zalantzan jartzen hasi da, konpromisorik gabeko maitasun askearen forma ezberdinak esperimentatzen hasi direlako, harreman ireki batzuetan lotura bakarra maitasunik gabeko sexua da, edo hainbat bikote elkarrekin bizi dituzten harremanak... Ez dago maitasuna bizitzeko forma bakarra, maitasun forma batek ez ditu beste guztiak faltsu bihurtzen, harreman esporadikoak izatea aukera daiteke, esporadikoak ez direnak, egonkorrak, bat-batekoak, ezberdinak, bikoterik gabeko garaiak, maitasun homosexualak izatea, heterosexualak, pansexualak...

INDARKERIARIK EZ BADU, EDOZEIN MAITASUN-EREDUK BALIO DU

Gaur egun, maitasunean oinarritutako harremanak sortzeko zailtasun handienetako bat honakoa da: generoaren espektatibak modu ezberdinean aldatzen ari dira emakume eta gizonen artean. Modu honetan, emakumeek harreman batetik kanpo autonomia eta arrakasta maila altuak lortzen duten arren (batik bat eredu maskulinoa izan dena orain arte), emakume askok ez dakite egoera hori bere bikote-harremanarekin bateratzen, gizonak bere autonomiari uko egitea eskatzen diolako –eta bere inguruak ere norabide horretan presioa egiten dio– maitasuna eta zaintzaren izenean.

Emakumeek euren harremanetan duten erronka berrietako bat maitasunaren ideia berformulatzean datza. Maitasunak ez du esan nahi gure proiektuei uko egin behar diegunik (gizonek ez dute sekula horrela bizi izan). Uko egite hori ezin da inoiz harremanaren parte izan, eta izatekotan, beti ere negoziatua izan beharko litzateke.

Kontua ez da gure bizitzetatik maitasuna ezabatzea, kontrakoa baizik. Baina gaur egun, emakume eta neska askok jada ez dute behar gizon bat euren bizitzei zentzua topatzeko, baina agian bikote bat euren alboan izan nahi dute bizitza eurekin partekatzeko.

Eta neska batek uste badu bere bizitzaren gauzarik garrantzitsuena maitasuna dela eta maitasun horregatik, bere lagunak, denbora, iritzia eta erabakitzeko gaitasuna... alboratzeko prest baldin badago, neska hori harreman asimetrikoak eta potentzialki bortitzak pairatzeko ARRISKUAN DAGO.

Neska batek pentsatzen badu maitatzea kontrolatzea dela, edo beste norbaitek bera kontrolatzea... neska hori harreman asimetrikoak eta potentzialki bortitzak pairatzeko ARRISKUAN DAGO.

Neska batek pentsatzen badu arazo hauetan sartzeko modurik egokiena ez maitemintzea dela, eta hegemonikoa den eredu maskulinoa kopiatzen badu, estimurik gabeko harreman sexualak izanez... neska hori harreman asimetrikoak eta potentzialki bortitzak pairatzeko ARRISKUAN DAGO.

Neska batek pentsatzen badu maitasuna irrazionala dela eta entzuten diren alerta guztiak tontakeriatzat jotzen baditu, maitasunak guztiarekin ahal duelako... neska hori harreman asimetrikoak eta potentzialki bortitzak pairatzeko ARRISKUAN DAGO.

Eta orduan, nola garatuko dugu modu egokian indarkeriaren prebentzioa? Arestian aipatu dugun bezala, modu aktiboan maitasuna eta indarkeriaren arteko loturak bertan behera utzi behar ditugu.

Horrez gain, prebentzio-kanpainetan landu diren beste ezaugarri batzuk ere kontuan hartu behar dira eta euren lanketarekin jarraitu beharra dago. Esate baterako, mutilek ulertu behar dute neska batek ezetz esaten duenean ("orain ez dut nahi", "hori ez dut nahi", "horrela ez dut nahi", "ez dut nahi"), ezetz esan nahi du.

Mutilek ulertu behar dute "ez" esaten denean "ezetz" esaten dela, eta beharrezkoa da jendarte osoak mezu hau irmotasunez zabaltzea. Horrela, mezu hori normaltzat jotzen duten mutilek, ez dute barrerik egingo nesken estrategia bat dela pentsatzen duten beste mutil batzuek horren inguruko txantxak egiten dituztenean, mezu hori nesken estrategiatzat jotzen dutelako, mutilak konkistatu nahian. Jendarte honek egiteko garrantzitsu bat du: mutilek ulertu behar dute neskek borondate propioa dutela eta eurek borondate hori errespetatu behar dutela, gizonek emakumeen kontrako inolako erasorik egin edo babestu ez ditzaten.

## 10. KONTROLA ETA JELOSKORTASUNA EZ DA MAITASUNA

Azken urteetan gazteria eta indarkeria aztertzen duten lan ugari egin dira. Bertan, gazte eta nerabeek kontrolari eta jeloskortasunari buruz dituzten iritziak jaso dituzte. Helduek harriduraz jaso dituzte bertan agertzen diren hainbat datu: adibidez, indarkeriaren adierazpen fisikoa argi eta garbi baztertzen den arren, bikotearen jokabidea kontrolatzea onargarritzat jotzen dute gazte eta nerabe askok.

"Oro har, bikoteak gure lagun eta senideekin ditugun harremanak kontrolatzen saiatzea ez da onartzen (%95-96). Baina kontrola bakoitzak egin dezakeen edo egin ezin dezakeen ekintzen gainekoa denean (emakumeek maiztasun handiagoarekin kontrol mota hau saihestezina dela uste dute), onargarritasunak gora egiten du (%85-86k uste du ezin dela onartu), eta are gehiago bestearen ordutegiak kontrolatzeaz ari garenean (%73). Hiru nerabe/gazteetatik batek (%33) galdetzen ari garen kontrol mota hauetako baten bat egon daitekeela onartzen du" (De Miguel, 2015).

Emaitza hau horren larria da? Gure ustez, kontrolaren gaineko ideiak adinaren arabera nola aldatu diren sakontzen eta ezagutzen jarraitu behar dugu. Izan ere, nerabeek euren lehenengo harreman afektibo-sexualak aldez aurretik familian eta eskolan bizi izan dituzten harreman asimetrikoetan oinarritzen dituzte. Harreman hauek asimetrikoak dira (eta horrek ez du esan nahi autoritarioen sinonimo direnik) mugak non dauden ikastea identitate pertsonalaren eraikuntzaren ezaugarri nagusietako bat delako.

Mugez ari garenean, honetaz ari gara:

- Beste pertsona batzuen espazio erreal eta sinbolikoa aitortzea eta errespetatzea.
- Gure desiren gaineko autokontrola, beste pertsona batzuen desiren adierazpena ez erasotzeko.
- Harreman batean espektatibak eta beharrizanak negoziatzeko gaitasuna.
- Beste pertsona batzuekin harremanak ditugunean, jokabide egoki eta desegokien arteko muga.
- Testuinguruak ezartzen dizkigun mugak identifikatzeko gaitasuna.

- Muga horiek kolokan jartzeko gaitasuna, beste pertsona batzuei minik eragin gabe.

Mugak jartzea ikasketa sozial bat da, eta txikitatik jokabideak kontrolatzen diren heinean ezartzen joaten da. Mugak jartzea ezinbestekoa da eta ona da muga horiek argi eta garbi adieraztea, azaltzea eta negoziatzea, bizikidetza egokia lortzeko asmoz.

Eta berriro ere nabarmendu behar dugu harreman interpertsonaletan jartzen diren mugak ezberdinak direla neska eta mutilentzat. Nesken jokabideei muga gehiago ezartzen zaizkie, eta gainera muga horiek zurrunagoak dira. Neskek kontrol sozial indartsua pairatzen dute eta gainontzeko neskei ere presio hori eragiten diete (berdinen taldean baztertua izateko beldurrak jokabidearen autokontrola sustatzeko motibazio indartsua izan daiteke), eta neskek mutilen jokabideei mugak jartzeko erantzukizuna izan ohi dute. "Neskak, ez utzi zuen sakelako telefonoa kontrola dezaten" bezalako oharrek bestelako esanahi bat dute: mota honetako oharrak kultur egitura oso baten parte dira, eta horren eraginez, mutilei ez zaie ia-ia inolako mugarik jartzen, eta ez dute beharrik izaten euren burua autokontrolatzeko eta harremanari muga egokiak jartzeko.

Horrelako mezuekin, mutilek ikasten dute eurek ez dutela euren jokabideetan inolako mugarik ezarri behar. Are gehiago, pentsa dezakete neskak kontrolatzea euren rol maskulinoaren parte dela, neskek ez dakitelako euren buruari mugarik jartzen. Baina konfusio kanpaina honen baitan, kontrolaren gaineko mezuak behin eta berriz igortzea arriskutsua izan daiteke, neska-mutilek parekidetasunean oinarritutako harreman bat sortzeko oinarrizko erremintak ez dituztelako. Gurasoek euren seme-alabak parekidetasunean hezten dituztela esango dute, baina adibidez neska edo mutil bat gauez irten nahi duenean, mezuak ezberdintzen dira eta alarmak neskei begira bakarrik sortzen dira. Mutilek, ordea, ez dute ezertaz kezkatu beharrik, gaua eta kalea eurenak direlako eta badakitelako zer nolako jokabidea izan behar duten.
Kontrola ardatz duten harremanak ekiditeko, bikotearen bizitza autonomoa errespetatu behar dela irakatsi behar da, bakoitzak bere lagunak bestearekin partekatuz, denbora librea bakoitzak bere aldetik gozatuz, proiektu indibidualak gauzatuz... eta hori guztia bikote-harreman bat dugun bitartean. Haatik, hau ikasketa-prozesu bat da.

Nerabeen eta gazteen arteko harremanetan sortzen den kontrola alarma-mezuetan oinarritu beharrean, konpromisotik landu behar da. Hau da, sor daitezkeen harreman afektibo-sexual ezberdinak definitu eta eztabaidatu behar ditugu, eta lotura horiek sortzen dituzten konpromisoak aztertu behar dira. Konpromisoak librea izan behar du, baina baita negoziatua ere, arina, bikotearen kide bakoitzaren beharrizan eta egoeraren araberakoa izan behar du... beste mende bateko gai bat dela dirudi, kontuan hartzen badugu gaur egun mezu gehienak askatasunarekin lotuta daudela.

Eta batez ere larritu behar gara kontrola jazarpen bihurtzen denean. Kontrola eragiten duenari behin eta berriz esaten zaionean bere jokabidea ez dela egokia, ez dela bidezkoa, ezarritako muga ez duenean onartzen, eta hala ere bere jokabidearekin jarraitzen duenean, orduan jazarpenaz hitz egiten ari gara. Jazarpen hori identifikatu behar da, neska-mutilak lagundu behar ditugu jazarpen hori identifikatzen eta horri aurre egiten, eta eurek euren lagunei irakatsi behar diete jazarpen horretaz hitz egin beharra dagoela, prebentzioan laguntzeko. Behin eta berriro saiatzearen eta jazarpenaren arteko muga oso estua da, eta ezinbestekoa da guztiontzat ezberdintzen asmatzea. Ezberdintasun hau irakastea indarkeriaren sozializazio prebentiboaren helburu garrantzitsuetako bat da.

Baina harreman batek ere konpromisoa eskatzen du. Ikus dezagun nerabezaroan ematen diren harremanen ohiko adibide bat: neska eta mutil batek hitzordu bat jarri dute euren artean baina mutila ez da heltzen eta ez dio neskari hotsik egin; neskak telefonoz deitzen dio jakiteko zer egin behar duen, itxaron, alde egin, beste plan bat pentsatu; mutilak ez dio deia erantzuten uste duelako ez duela horretarako beharrik, bera askea delako eta neska astun horri ez diolako zertan azalpenik eman; neskak hurrengo egunean azalpenak eskatuko ditu (hori egiteko modu asko egon daitezke) baina bere azalpen-eskaerari uko egingo zaio. Egoera honen ondorioa honakoa izan daiteke: mutil horrek eta bere koadrilak pentsa dezakete neska guztiak kontrolatzaile hutsak direla; neskak eta bere koadrilak, ordea, mutilek aurpegi gogorra dutela pentsa dezakete.

Helduek agian ez diote mota honetako egoerei garrantzirik emango, istorio honen aurrean irribarre egingo dute, harreman parekide batean askatasunaren mugak zeintzuk diren azaldu gabe. Kasu honetan ikusi dugun bezala, horrelako bizipenekin gure esperientzia pertsonala eraikitzen joaten gara. Gauza bera gertatzen da mutila saiatzen denean neskaren janzkera ezartzen, edo neskak harreman jakin batzuk debekatzen dizkionean mutilari. Neska-mutilek euren konpromiso afektiboaren

mugak eztabaidatzeko espazioak behar dituzte, eta muga horiek ustez euren rol femenino eta maskulinoek ematen dizkieten eskubideekin alderatu behar dituzte. Harreman bat sortzerakoan gauza batzuei uko egin behar zaie, eta horren inguruan zer nolako ideiak dituzten eztabaidatu behar da, egunerokotasunean nola aplikatzen duten egiaztatzeko.

Zalantzarik gabe, indarkeriari aurre egiteko eraginkorragoa izango da harreman baten ondorioak zeintzuk diren modu gidatu batean irakastea, kontrolaren ideien inguruan alarma sortzea baino. Gainera, ideia horiek ez dira beti edo automatikoki ezartzen. Eta eztabaida honekin batera, maite dugun pertsonarekin hainbat ezberdintasun baldin baditugu (ideietan, beharrizanetan, desiretan eta abar), oso garrantzitsua da egoera hori kudeatzen jakitea. Ezberdintasun horiek errespetatzen eta negoziatzen ikasi behar dugu, indarkeria mota guztiak alboratuz, indarkeriara jotzeko tentazioa ezabatuz eta genero-estereotipoak oinarri dituzten argudio deskalifikatzaileak saihestuz.

Nerabeekin jeloskortasunaz hitz egitea ere beharrezkoa da. Harreman afektibo-sexualak esklusibitatez sozializatzen dituzten forma kultural guztietan, jeloskortasuna maitasunaren ziurtagiritzat jotzen da. Askotan jeloskortasuna ez da ekintza biolentotzat jotzen, baina indarkeria sortzeko aitzakia izan daiteke. Jeloskortasuna ez da bakarrik mutilen ezaugarria, neskak ere jeloskor egon daitezke eta euren bikotea kontrola dezakete. Jeloskortasuna normalizatu eta onartzen da, are gehiago, jeloskortasunik ez duten bikoteak aspergarriak direla pentsatu ohi da.

Nerabeek ikasi behar dute aukeratu zuten pertsona horrek bere espazioa behar duela. Izan ere, jeloskor sentitu gaitezke bestearen beharrak sortzen duen segurtasun faltaren ondorioz. Sentimendu hauek batu eta aztertu daitezke, horrelako mezuekin eskatu beharrean ("maite banauzu, ezin duzu hori egin, beste honengan pentsatu, pertsona horrekin hitz egin..."), beste modu batera adierazteko. Maitasuna beste estimu eta harreman batzuekin bateragarria dela ikasi behar dugu.
Ikasketa horretan negoziazioa eta sentimenduen azaleratzea adostu behar da, beti ere errespetua ardatza izanik. Ikasketa horretan honakoa azpimarratu behar da: neskek maitasunaren izenean ez dute inolako erasorik pairatu behar, eta ezetz, mutilari denborarekin edo maitasun gehiagorekin ez zaiola pasako; mutil batek uste badu mutil izate hutsagatik berak bakarrik harremanaren nondik norako guztiak

erabaki behar dituela eta neskaren mugimendu guztiak kontrolatu behar dituela, neskak harreman hori ahalik eta lasterren hautsi behar du.

Ikasketa horretan, mutilek kolokan ikusi behar dituzte euren ustezko nagusitasunaren inguruko usteak. Era berean, euren bikoteenganako autoritate-rolei aurre egin behar zaie, eta euren harremanen ardatzak aldarazi behar zaizkie, errespetuan, elkarrizketan eta estimuan oinarrituz, eta euren beldurrak uxatuz.

Noski, honetarako beharrezkoa da ingurunearen, taldearen, familiaren, hedabideen... mezuak zalantzan jartzea, nerabe eta gazteak askatasuna eta konpromisoa oinarri duen harreman-eskema batean sozializatu eta bersozializatzeko helburuarekin.

## 11. ZIBER-INDARKERIA

Azken urtetan, teknologia berrien bitartez indartsu erreproduzitzeko espazio berria aurkitu du genero-indarkeriak. Sare sozialen, smartphon mugikorretako aplikazio sozialetan (momentuko elkarrizketak ahalbidetzen dituzten aplikazioak –whatsApp edo antzekoak- edo gertuko kontaktuen kokalekuak antzematen dituztenak – tinder edo bikotea ezagutzeko sareak, esaterako-) eta online bideo-jokoen bitartez, besteak beste, neskak eta mutilak elkar ezagutzen eta harremantzen dira. Horren ondorioz sortzen diren gatazkek *indarkeria digitala* sor dezakete.

*Berdinen arteko jazarpena*[31] deiturikoa, sare sozialak sortu baino askoz lehenago gertatu izan da ikasgeletan. Beraz, ez da gertakari ezberdina, baizik eta aldi berean ematen dena. Neskak eta mutilak erasotuak dira, baina, aldi berean beraiek dira erasotzaileak sare sozialetan, ikasgeletan, eskolako patioan eta kalean.

Berdinen arteko jazarpena zehazteko honako elementuak adierazten ditu ISEI-IVEI 2012, irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundeak:

- Min emateko, beldurra sortzeko edo larritasun egoerak sorrarazteko asmoarekin egitea.
- Erasotzaile eta erasotuaren artean, botere harremanean oinarritzen den harreman desorekatua egotea.
- Jokaera errepikakorra izatea.

Jazarpen birtuala edo offline bidezkoa, pertsona konkretu baten aurka etengabe errepikatzen den jokaera izaten da. Modu sistematikoan gertatzen da, persona hori gaizki sentiarazteko helburuarekin. Eremu birtualean, aldiz, jende askok zabaltzen du aldi berean mezu erasotzaile hori, beraz, ohikoa bihurtzen da.

Nerabeek eta gazteek sare sozialak eta aplikazioak erabiltzen dituzte beraien lagunei buruzko zurrumurruak hedatzeko edota irain eta erasoak zabaltzeko

[31] *Kontzeptu hau erabiltzen dugu, gehien zabaldu dena izan delako. Bestalde, harremanen ezaugarrietako bat finkatzen du, adin eta roletan oinarritzen dena. Kontzeptua berrikusi beharra dago, izan ere, parekidetasun eza da jazarpenari mesede egiten diona. Adin berdina edo antzekoa duten haurren, nerabeen edo gazteen artean ematen da jazarpena. Ezarritako botere harremanek, ordea, ezberdintasuna eta desoreka sortzen ditu.*

klasean edota eskolan. Pertsona baten aurkako jokabide hauek errepikakorrak bihurtzen direnean lagun edota talde baten bitartez, jazarpena gertatzen ari dela esan dezakegu. Jazarpenak aitzakia bezala erabiltzen du ezaugarri fisiko edo pertsonala, heziketa behar berezia, egindako zerbait, ezberdintasunen bat edota bere sexuari ez dagokion portaera edo ekintzaren bat. Ez dago, ordea, arrazoi zehatz bat, beraz, jazarpenaren arrazoia ez dugu bilatu behar jazarpena sufritzen duten pertsonengan, baizik eta jazarpen hori eragiten dutenengan.

Teknologia berriek erraztu egin dezakete indarkeria eragiten duten elementuak errepikatzea esfortzu handiegirik gabe. Hau da, pertsona batek etengabe iraintzen duenean beste pertsona bat, pertsona-pertsona arteko erasoa dela ulertzen da. Zenbaitetan, aldiz, sareetan ematen den erasoa ez du eragiten pertsona konkretu batek, baizik eta aldi berean mezu berdina errepikatzen duten pertsona ezberdinek sortzen dute. Horretarako, nahikoa da mezu iraingarri hori bertxiotzea edo “lagunekin partekatzea”.

Sare sozialetan ematen diren hainbat eraso, aurretiazko asmorik gabe egin ditzakete erasotzaileek. Sare sozialetan etengabean jasotzen diren mezuak inkontzienteki edo automatikoki partekatzen dira, sarea sozialek eskaintzen duten azkartasun eta anonimotasunaren bitartez. Ondorioz, zailagoa da kontzientziatzea pertsona konkretu bat dagoela eremu birtualean zabaldu den milaka mezu horien atzean. Jazarpena, beraz, ez da kontsideratzen pertsona konkretu baten jarrera errepikakorra, baizik eta hori zabaltzen parte hartzen duten guztiena. Esaterako, botoi bat sakatuz. Broma baten zabalpena edo hari baten hedapena izan daiteke, erasotua izaten ari den pertsona ezagutu gabe.

Sareetan erasoa zein formetan ematen ari den jakitea zaila da, ezinezkoa baita jakitea zenbat pertsona dauden erasoaren atzean, nork hasi duen, nola edo zein mezurekin edota zein eragin izan duen gezur eta zurrumurruen hariak. Ziber indarkeria gertatzearen arrazoia ez da espazioa bera, hau da, sareen erabilera txarragatik hauek erruduntzat hartzeak ez du laguntzen ziber indarkeriaren jatorria zein den ulertzen. Ziber indarkeria egoteak esan nahi du bizitza errealean ere indarkeria existitzen dela, sarean bezala, izan ere, sarea ere bizitza erreala da.

Ziber indarkeriren jatorria honakoa dela esan dezakegu: Ezberdintasunari intolerantzia, errespetu eta balore falta, sexismoa, matxismoa eta arrazismoa. Zein modutan ematen diren jakitea ezinbestekoa da, errotik deuseztatu ahal izateko zein heziketa garatu behar dugun pentsatzeko. Horrek ez du esan nahi teknologia kendu behar dugunik gazteen bizitzetatik (ezinezkoa litzateke egun), baizik eta ematen

diren kasuak aprobetxatuko ditugu arazoak ikustarazteko (matxismoa edo arrazismoa, esaterako) eta, ondorioz, lan egiteko eremu birtualean zein errealean.

Nerabeentzat sare sozialak ez dira soilik komunikatzeko herramienta, baizik eta harremantzeko tresna dira. Orain gutxi eginiko ikerketen arabera, beraien berdinekin modu honetara harremantzeko modurik ez dutenak bazterketa soziala jasateko arriskuan daude. Ondorioz, sareetan ematen den indarkeria saihesteko estrategia aldatu egin da;  Gazteentzat estrategiak diseinatu dira sarean indarkeria erabili gabe harremantzen erakusteko. Orain, aldiz, besteei buruz esan dezaketenak izan ditzaken ondorioen inguruan kontzientziatzeko eta esaten dutenaren, esaten ez dutenaren edota egin dezaketenaren inguruan arduratsu jokatzeko estrategiak garatzen dira.

Ziber jazarpena genero ikuspegitik aztertzen badugu, ikus dezakegu sarean egiten diren irain publiko horien atzean gazteek finkatzen dituzten harreman afektiboak eta sexualak daudela (jeloskortasunaren ondorioz sortutako indarkeria, harremanen haustura, ezartzen diren harreman sexualak, zurrumurruak sortzea…) eta adinak zein generoak zenbait ezberdintasun eragiten ditu jazarpenaren maiztasunean eta ondorioan. Horrela, lehen eta bigarren hezkuntzan ematen den jazarpena esperotakoa baino handiagoa da. Erasotzaileak, gehienbat, mutilak dira eta taldean erasotzen diete beraien adineko beste mutil batzuei.[32].

Mutilentzat, erasoa egiteko arrazoi nahikoa dira orientazio sexuala, jokabide ez oso maskulinoak edota talde txiki bateko kide izatea (arraza,jatorri edota behar bereziak dituztenak). Nesken kasuan, erasoa gehienetan ezaugarri fisikoei lotuta egoten da, edota dituzten harreman sexualei eta afektiboa (edo hauen zurrumurruei). Neskek maiztasun handiagoarekin jasaten dute jazarpen sexual motaren bat.

Sare sozialetan ematen den bikote harremanetako indarkeriari dagokionean, kontrolaren maiztasuna nabarmentzen da edota bikoteak dituen eduki eta harremanak begiratzea, zein ordutan eta zein maiztasunekin konektatzen den eta sare hauetan egiten diren iruzkinak eta jartzen diren mezuak nolakoak diren. Kontrol edo zelatatzea maiztasun handiarekin gertatzen denean eta interes edo maitasun keinutzat justifikatzen denean, horrek eragin dezakeena da jarrera horiek normaltzat hartzea. Normaltasun horren ondorioz, jokabide horiek ez dira alarma kontsideratzen, baina posible da genero indarkeria izatea jokabide horien guztien

[32] *Bibliografiaren atalean hainbat gida azaltzen dira ziber jazarpenaren sintomak zein diren ikusi eta horiek nola landu aztertzeko.*

arrazoia. Bestetik, normaltasun horren ondorioz ez da ikusten sortzen ari den harreman horretan kontrola jokabide ohikoa eta naturala dela (Estebanez, 2012). Hainbat ikerketen arabera, ziber jazarpena eta kontrola gazteen artean ematen den genero indarkeria mota ohikoa da (Gobernuaren Ordezkaritza 2014 eta 2015).

Inolako baimenik gabe eduki erotikoak partekatzea edota iraindu dezaketen edukiak publiko egiteko xantaia egitea ere indarkeria birtuala da. Indarkeria mota hau maiztasun handiarekin ematen da gazteen artean. Ziberindarkeria sexual kasu hauen maiztasunaren ondorioz, ikastetxeetako ikasle guztiek jaso dute momenturen batean eduki erotikoa, sensuala edo sexuala duen dokumenturen bat.

Normalean mezu hauetan agertzen diren irainak gehiago dira nesken aurkakoak. Horrek berriro ere baieztatzen du, sexu modelu tradizionalak indarrean jarraitzen duela eta moral bikotzaren paradigmak neskei eragiten diela. Zenbaitetan neskak zein mutilak agertzen dira eduki horietan. Mutilen kasuan bideo edo argazki erotiko horiek beraien "gizontasuna" goraipatzeko erabiltzen dira, eta nesken kasuan, aldiz, iraindu egiten dira "balio faltagatik". Diskurtso honetan neska zein mutilek hartzen dute parte, baina gehienbat neskak jotzen dira erruduntzat argazki horiek egiteagatik eta egiten uzteagatik. Erruduntzat ez jotzeko eta edozertarako jendearen baimena behar dela ikustarazteko, ezinbestekoa da heziketa sexuala eta emozionala. Modu horretara, sexualitatearen inguruan dituzten mito eta estereotipoak eztabaidatzen dira, eta, baita, nesken sexu pratiken inguruan ere.

Hainbat kasutan, eduki erotikoa duten argazkietatik eta bideoetatik abiatzen diren irain sexualak komunikabide masiboetan azaltzeko bezainbeste biral bihurtzen dira. Beraien sareetan jende askok partekatzen duenean irudia edo elkarrizketen bitartez zabaltzen denean, jende horrek guztiak umiliazio publiko horren zabalpenean hartzen du parte, bertan agertzen direnak ezagutu edo ez.

Neska batek bere burua grabatzen badu kitzikatzeko edo beste pertsona batekin harreman aizateko whatsapp, snapchat edo bestelako aplikazioen bitartez, horrek ez du esan nahi baimena ematen ari denik horren zabalpena egiteko. Espazio publikoan, esaterako diskotekan egoteak ere ez du esan nahi baimena ematen ari denik ezkutuan grabatu eta irudiak zabaltzeko. Lagun batek bidalitako pertsona ezezagun baten irudi edo bideo umiliante batek ez du esan nahi pertsona horren baimena daukagunik zabalpena egiteko. Parte hartze kolektiboaren ondorioz

errepikatzen da behin eta berriz indarkeria mota hau. Argazkia egin edo bideoa grabatzetik haratago doa parte hartzea[33].

Indarkeria mota hau abiadura eta dimentsio horretan zabaltzeak esan nahi du jendarteak parte hartzen duela beraien mugikorren bitartez harreman sexualei buruzko diskurtso zitala eta **errudunzale**a sortzen. Beraz, indarkeria honi aurre egiteko, biktima izan den pertsonan zentratu beharrean, ingurunearekin egingo dugu lana. Ziber indarkeria lantzeko honako gai hauetan zentratu gaitezke: Zergatik pentsatzen dugu praktika sexual eta sensual konkretu batean parte hartu duen pertsona "guarra" dela, nola ligatu daiteke edo ziber sexua praktikatu segurtasun handiagoa duten sareetan, zergatik ez ditugu borratzen mugikorrera iristen zaizkigun eduki umilianteak, zergatik isiltzen gara beste pertsona batzuei egiten ari zaienaren aurrean, edota zergatik partekatzen ditugu eduki hauek.

Bestalde, adierazi behar da adin txikikoen edukiak zabaltzeaz gain, jaso dituena ere haurren pronografia delituan parte hartzen ari dela, baita edukia borratu badu ere edota salaketa egin asmoz zabaldu badu ere. Delitua bera kontuan izan gabe, heziketa komunitate bezala dugun perspektibatik hezi eta hausnartu egin beharko dugu errealitate birtual hauek azalerazten ari direnaren inguruan.

Azken urteetan, indarkeria mota hauei "indarkeria berriak" deitzen zaie. Ziberbullying (berdinen arteko jazarpena), stalking (perfil eta edukien kontrola), sexting (eduki erotiko eta sexualak bidaltzea argazki eta bideoetan) eta sextorsioa edo mendeku pornoa (baimendu gabeko eduki erotikoekin xantaia egitea eta publikatzea).
Indarkeria modu hauek kontzeptu teknologiko bezala planteatzen diren arren, gainontzeko eremuetan bezala hemen ere jatorria berbera da: parekidetasun-eza, sexismoa eta intolerantzia. Indarkeria modu hauek online eta offline eremuak hartzen dituzte, izan ere, ez da eremu birtualera mugatzen, hau da, hori jasaten dutenek ondorio zuzenak pairatzen dituzte beraien bizitzetan.

Argi adierazi beharra dago indarkeria hauen oinarri sexista: Nesken aurkako irainak, dituzten harreman afektiboengatik; lesbianen, gayen,bisexualen edo transexualen aurkako irainak beraien orientazio edo identitate sexualagatik eta nesken gorputzarekin egiten den kontzeptualizazioa objetu sexy gisa. Horren

[33] *Mundu birtualean ere klik baten bitartez eraldatzen da errealitatea. Kasu askotan biralak bihurtu dira zenbait argazki, ez zirenak adierazitako tokikoak.*

bitartez, beraien argazkiekin trafikatuz eta askatasuna kontrolatuz. Teknologiek beren eragina duten arren, jendartean dagoen kultura sexistak sortzen ditu irainak, etiketak eta kategorizazioak.

Beraz, garrantzia eman nahi badiogu, indarkeria modu gisa izendatu behar da. Ezin da izendatu indarkeria forma berria izango balitz bezala, baizik eta ohiko indarkeria mota bezala hartu behar da, kolektiboaren babesaren bitartez hezi eta saihesteko.

## 12. JABEKUNTZA ETA LAGUNTZA BABES MEKANISMO BEZALA

Noiz bihurtzen da eraso mutil baten gerturatzea neska batekiko? Ipurdia ukitu dion neskak salatu egin behar du? Zigorra merezi al du eskolako patio erdian neska bati gona altxatu dion mutilak? Neskak baietz esan badu eta ondoren damutu eta ezetz esan badu, erasoa al da hori?

Horrelako hainbat galdera sortzen dira genero indarkeriari buruz hitz egiten dugunean, eta are gehiago sexu erasoa ematen denean. Inpotentzika eragindako diskurtsoa sortzen da orduan. Mugen inguruko zalantzaz beteriko diskurtsoa. Adostasun falta dago, hain zuzen ere, emakumeak ez direlako aitortzen baimena emateko ahalmena duten sujetu bezala.

Hainbat gizon heldu eta mutilek zalantzak planteatzen dituzte mugen inguruan. Neskek eta emakumeek, aldiz, argi daukate non dauden mugak: Egonezin pertsonala da horren adierazle nagusia eta, neurri hori erabiltzen dute jakiteko noiz zeharkatu den muga, eta, beraz, noiz izan diren erasotuak. Egonezin hori, ordea, ez da beti adierazten, eta, beraz, emakume batek isilean gorde dezake ez delako ausartzen adierazten.

Zalantza horiek handituz doaz jerdartean indartzen ari diren diskurtso neomatxista horien ondorioz. Diskurtso honek dio emakumeek gizonezkoak suntsitu nahi dituztela. Ondorioz, erasotuak sentitu diren zenbait emakumek ez dute salatzen, histerikotzat hartuko dituztenaren beldurrez edota ezin dutelako mantendu beraien salaketa, erasotzaileak erasoa ukatzen duelako, modu horretara emakumea oraindik eta gehiago umiliatuz.

Ezinbestekoa da mutilek ikastea EZETZA, EZETZA dela beti. Ez da agian, beharbada edo beranduago. Garrantzitsua da, baita, hori onartzen ikastea inolako azalpenik eskatu gabe. Ezetz esaten duten emakumeak ez daude derrigortuta azalpenak ematera, izan ere, ezezko horrekin beraien nahia adierazten ari dira. Azalpena bera exijitzearekin eskubide hori ukatzen da , eta zalantzan jartzen da erabakia.

Baliteke ezezko hori momentu horretarako eta mutil horrentzat izatea soilik. Ez duelako gogorik, nekatuta dagoelako egun horretan, ez dagoelako baldintzarik onenean… edozein dela ere arrazoia, onargarriak dira, beraz, ulertu egin behar dira bestelako presiorik egin gabe.

Neskek, bestetik, ikasi behar dute beraien ezezkoak ez duela azalpen gehiagorik behar eta okerrago dela beraientzat azalpenak ematen saiatzea. Izan ere, mutilak egoera ulertu eta neskaren egoeran jartzea lortu nahi badugu, horrek eztabaida sor dezake. Ondorioz, inolako justifikaziorik behar ez duen erabakia arrazoitzen bukatuko luke.

Ezetzaren beste aldean baiezkoa dago. Baiezkoa ere muga batzuen barruan interpretatu behar da eta momentu konkretu bateko baiezkoak balio dezake harreman sexual eta afektiboak izateko, gerturatze fisiko mugatu baterako, ukiturik gabeko elkarrizketarako, grabatutako harremana izateko baina argitaratzen ez dena… baiezkoak ez du esan nahi eskubidea dagoenik nesken nahietatik haratago joateko.

Neskek sentitu behar dute eskubidea dutela baiezkoa esateko nahi dutenean. Ez daude derrigortuta nahi ez dutena egitera, beste pertsona mintzeko beldurrez. Baietz esanda ere mugak jarri ditzakete. Gerturatze fisiko sexuala hasteak ez du esan nahi koitoan amaitu behar duenik harreman horrek.

Baiezkoa, bien arteko ituna eta akordioa izan behar da, eta ez presio eta jazarpenak erangidako nekearen ondoriozko lagapena.

Bestalde, mutilek argi izan behar dute isiltasunak ez duela adierazi nahi baiezkoa. Isiltasunak esanahi ezberdinak izan ditzake: Hausnarketa, ezetz esateko zailtasuna edo ezezkoa esateko modurik egokiena zein den bilatzea, besteak beste. Baimena oso argi adierazi behar da. Baimen honek mugak izan ditzake neskentzat zein mutilentzat. Mutilek ere jakin behar dute baietz edo ezetz esan dezaketela. Ez dute zertan egon beti prest sexu harremanak izateko eta, beraz, ez dute zertan azalpenik eman.

Neskek eta mutilek ikasi behar dute baiezkoak eta ezezkoak bere kabuz ulertzen eta onartzen. Ezezkoak ez du zertan adierazi erakargarritasun falta. Autoestima eraikitze fasean duten nerabeentzat zaila izan daiteke ikasketa prozesu hau. Era berean, neskek erasoa jasateko eta identifikatzeko gaitasunik ez izatea ekidin nahi da.

Beste pertsonaren nahia errespetatzea osagarria da ulerkortasunarekin. Ez da nahikoa neskek erakustea baietz eta ezetz esaten beraien nahien arabera. Mutilei ere erakutsi behar zaie erabaki horiek errespetatzen ikasi behar dutela. Ez badugu aspektu hau nabarmentzen, berriro ere indarkeriaren prebentzioaren pisua nesken gain jarriko dugu soilik eta errudun sentituko dira biktima direnean.

Neskei esan behar zaie ulerkortasun hori ezinbesteko babesa dela. Baita lagunen babesa ere beraien erabakiak berresteko.

Nesken burujabetasuna eta jabekuntza ezinbestekoak dira, baina ez dugu nahi prebentzioa neskek pentsatzeko beraiek soilik gai direla indarkeriari erantzuteko edota beraien jarreraren ondorio izango dela indarkeriarekin amaitzea. Ez dugu bultzatu nahi nesken gehiengoak urruti sentitzearen ondorioz erreferentzia poositibo izango ez den modelu femenino bat.

Azpimarratu behar da, laguntasuna, enpatia eta elkartasunaren garrantzia. Enpatia beharrezkoa da neska bakoitzaren baldintzak ezagutzeko eta laguntzeko, inongo momentuan epaitu edo salatu gabe ez bada gai izan ezezkoa mantentzeko, garbi adierazteko edo bere nahiak argi adierazteko trebetasunik ez badu.

Laguntasuna eta elkartasuna ezinbestekoa da emakumeen artean lehia bultzatzen duen sistema patriarkalari aurre egiteko. Neska bat bestearen aliaturik egokiena izan liteke, baldin eta ulertzen bada indarkeria ez dela kontu pertsonala. Elkar laguntzea eta konkistaren joko arriskutsua alboratzea ezinbestekoak dira maskulinitate hegemonikoa birsortzen duten mutilengandik babesteko.

Laguntasuna garrantzitsua da baita mutilentzat ere. Ulertuaraziz benetako laguntasunak ez duela onartzen ez ikusiarena egitea taldeko kide bat neska baten aurka indarkeria erabiltzen ari bada. Laguntasunak esan nahi du jarrera horien aurka egin eta geldiarazi egin behar direla, eta, ez barkatu edo barre egin. Mutilen arteko laguntasuna ezin da bihurtu jarrera maskulinoen konplize. Ez da soilik neskak babestea (nahiz eta garrantzitsua izan), baizik eta indarkeriaren aurka dauden mutilak gai izatea horrelako egoerak eragiten ari direnei aurka egiteko eta portaera horien aurkako gaitzespen sareak sortzeko.

Laguntasuna sustatzea, indarkeria saihesteko moduetako bat da.

Orrialde hauetan zehar adierazi dugun bezala, indarkeria ikasketa prozesua da, ez da inolaz ere jokabide naturala eta saihestezina. Beraz, ezin dugu zentratu prebentzioa jarrera indibidualetan oinarritzen diren modeluak eskaintzen (garrantzitsua izan arren, ez da nahikoa). Indarkeria gertaera soziala denez, modu kolektiboan egin behar zaio aurre. Zenbait kasutan, biktima beraren inguruak indarkeria onartzen du, horrelako kasuen aurrean isildu egiten da edota erasotzailea babesten dute erantzukizuna kenduz.

Ez da oso eraginkorra prebentzioa soilik biktiman zentratzea, izan ere, errudunago sentiarazten ditu. Horrek arriskua dakar, indarkeriatik babesteko gai diren heroi

bakartien modelu irreala sortzeko. Indarkeria saihestu behar dugu, horretarako lagunarteko giroa sortuz, errespetuzkoa eta berdinen arteko elkarrekintzan oinarritzen dena. Haurren, gazteen eta nerabeen artean elkartasuna sustatuz non neskak ez diren ausartak izan behar aske sentitzeko.

# 13. HEZIKETA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN HAURRAK

Berdinen arteko indarkeria eta jazarpena, normalean jendartean "normaltzat" hartzen ez den pertsonen aurka erabiltzen da edo arrazoi ezberdinengatik bestelako ezaugarriren bat duenaren aurka. Behar bereziak dituzten haurrak, etorkinen taldeak edo gutxiengo taldeen parte direnak, estereotipo femenino hegemonikoaren aurka erakusten direnak, estereotipo hegemoniko maskulinoa puskatzen dutenak, homosexualak, transexualak, edertasunaren ezaugarri ohikoekin bat egiten ez dutenak, jarrera erakargarriak ez dituzten haurrak edo ezberdintasun fisikoren bat dutenak.

ISEI-IVEIren 2012ko informearen arabera %21koa da tratu txarren indize orokorra lehen hezkuntzako hirugarren zikloan eta %14,6 bigarren zikloan. Heziketako bi etapa hauetan, tratu txarrak klasekideek eragiten dituzte. Familiarengana edo lagunengana jotzen da maiz laguntza eske. Ikus dezakegu, jarrera hauek moztu edo informatzerakoan gero eta gazte gutxiagok hartzen duela parte.

Ezgaitasunak dituzten haurrei buruz UNICEFek egindako informearen arabera (2013), 17 herrialdetan egindako ikerketek argi adierazten dute arrisku handiago dutela indarkeria jasateko. %26,7ko da indarkeria fisikoa eta sexuala pairatzen dutenen portzentaia. Indarkeria fisikoa %20,4 da eta indarkeria sexuala %13,7. Ezgaitasun motak eragina dauka eta handitu egiten da indarkeria pairatzeko aukera. Esaterako, ezgaitasun intelektuala duten %4,6ak aukera handiagoak ditu indarkeria sexuala pairatzeko.

Eskola eremuan ere, gehienbat behar bereziak dituzten haurrak dira tratu txarrak eta jazarpena jasaten dutenak. Batzuek jada arazoak dituzte harreman sozialak garatzeko eta lagun arteko arazoak konpontzeko. Eraso fisikoaren bitartez gertatzen den jazarpena (bere aparatuak ezkutatzen, esaterako), hitzen bidezko erasoak edo irainak, haurrak baztertzea ekintza kolektiboetatik, tratu txarrak eragitea modu pasiboan, hau da, behar duten atentzioa ez ematen edota beraien ezberdintasuna markatzen besteekiko. Beste batzuetan jarrera agresiboak izatea egozten zaie, beraiek oso ondo ulertu gabe zer ari den gertatzen.

Beste hainbat ikerketen arabera[34] autismoa duten haurren erdiak baino gehiagok asteroko jazarpenak pairatuko lituzke eskolan. Jazarpen hauek lehen hezkuntzan hasten dira.

Heziketa behar bereziak dituzten ikasleek modu ezberdinetara kudeatzen dute jazarpena, xehetasun ezberdinak dituztelako erasoek. Gehiengoak, ordea, beraien gurasoei edo irakasleei eskatzen diete laguntza eta ez beraien ikaskideei. Izan ere, azken hauek baitira erasotzaileak. Beraien ikaskideekin harremantzeko dituzten zailtasunak ere eragiten du hauen aldetik laguntza gutxiago jasotzea.

Aipatu beharra dago, jendarteak ez dituela barnebiltzen heziketa behar bereziak dituzten pertsonen berezitasunak. Hainbatetan, ikasgelan egiten diren bizikidetza programak aldaketaren hasiera dira, pertsonak hauek ere kontuan hartuak izateko. Horregatik, eskola bizikidetza eta justizia espazio bihurtu daiteke.

Haurrak elkarrekin bizi dira eta derrigortuta daude horretara, beraz, hor ere agertzen dira gatazkak, enpatia eta errespetu falta, edo jendarteko araudiarekiko ezberdinak diren pertsonen onarpen eta errespetu falta. Inklusioak erakusten duena da hezkuntza komunitateak nola erantzuten dion aniztasunari. Ikasgelan nahasten den jende guztia kontuan hartzeaz gain, errespetua eta behar bereziak dituzten pertsonen eskubideak bermatu behar ditu inklusioak.

Bestalde, indarkeriaren prebentzioa aztertzerakoan, bi eremutan jarri behar dugu arreta: Alde batetik, erasoen bitima izateko arriskuan egon, eta behar bereziak dituzten haurrak eta, bestetik, erasotzaile portaera hartu dezaketen gainontzekoak. Horregatik, beharrezkoa da erasoen biktima diren haurrak babestea eta jendartean kontzientzia zabaltzea horrelako beharrak dituzten pertsonak iraintzeak izan ditzaken eraginen inguruan. Modu horretara, erdigunean jarriz enpatia eta konturatuaraziz jarrera erasokorrez eta bidegabeez.

Behar bereziak dituzten haurrak etengabe daude ezberdintasun egoeran beraien berdinak dituztenekin alderatuta. Gaitasunak indartzea eta dituzten mugetan ez zentratzeak pistak emango dizkigu justuagoak izateko beraiekin ditugun harremanetan.

Ikasgelan edo berdinen arteko taldeetan egindako lan bateratua ezinbestekoa da harreman ez-parekideak ekiditeko. Ezinbestekoa da baita, laguntzarako sareak edo

[34] Estatu Batuetan bildutako datuak eta Covalores fundazioak argitaratutakoak.. www.convalores.com

tutoretza eta laguntza programak eraikitzea edo hobetzea, behar bereziak dituzten pertsonen harreman soziala indartzeko.

Indarkeria bere orokortasunean eta, batez ere behar bereziak dituzten haurren aurka ematen dena prebenitzeko, ezinbestekoa da lagun sareak indartzea, harreman sozial garrantzitsuak sustatzea eta bizikidetzan eta errespetuan oinarrituriko kultura bultzatzea.

# 14. GENERO-INDARKERIAREN SEME-ALABAK

Orain arte ikusezinak ziren biktimak ditu genero-indarkeriak: Beraien aita edo amaren bikotearen aldetik tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen seme-alabak. Hezkuntza komunitatea oso eremu egokia da eraso hauek jasaten ari diren haurren beharrak saihestu eta antzemateko. Horretarako ideia batzuk berrikusiko ditugu.

Egin diren hainbat ikerketa fidagarrik ez dute nabarmentzen tratu txarrak jasan dituzten haurrak ondoren erasotzaile bihurtuko direnik. Kontrakoa pentsatuko bagenu, horrek esan nahiko luke ez dugula konfiantzarik pertsona horiek bizitako esperientzia txarrak positibo bihurtzeko duten gaitasunean, ezingo diegula lagundu egoera zailetara egokitzeko beraien baliabideak egokitzen eta, batez ere, ez garela pertsona garrantzitsuak izango berain erresilientzia[35] gaitasuna garatzeko.

Haur horiek gurasoen rolak erreproduzituko dituztela pentsatzeak ez diete laguntzen haur hauei, eta esperientzia honen ondorioz dutena baino min gehiago egin diezaiekete. Asimilatzeko zailagoak diren aspektu negatibo horien araberako tratua jaso izanak eragindako mina. Nabarmena da esperientzia honek eragina izango duela beraiengan, baina faktore ezberdinen ondorioz aurre egin ahal izango dute: Beraien laguntza sarea (aiton-amonak, osaba-izebak, familiaren lagunak, irakasleak, etc.). Adinak eta tratu txarrak jasaten egon diren denborak ere eragina izango du aurre egiterakoan.

Orain arte, genero-indarkeriaren biktima zuzenak ziren tratu txar fisiko, psikologiko edota sexualak jasandako haurrak. Horrela pairatu ezean, zeharkako biktimak kontsideratzen ziren. Bestalde, ama diren emakume biktimen arreta zerbitzuan daudenek eta haurrekin lan egiten duten erakundeek argi ikusi dute; haur horien garapenean eragina dauka haurrek aitaren partetik edo amaren bikotearen aldetik tratu txarrak jasan izanak.

Aitorpen honek legalki islada [36] dauka eta biktima hauen sufrimendua azaleratzen lagundu dezake. Ezinbestekoa da ulertzeko ez dela zertan golpe bat jaso, etxera

---

[35] *Erresilientzia kontzeptuak erreferentzia egiten dio edozein pertsonak daukan gaitasunari egoera traumatikoei eta genero-indarkeriari aurre egiteko eta esperientzia horretatik indartuta ateratzeko. Presio hori gainditu eta emozionalki ez amiltzeko gaitasunak erakutsiz eta trebetasunak garatuz. Muturreko egoeretan beraien burua frogan jartzeko gaitasuna dutenak beraien burua babestearen ondorioz gaitasuna dute bizitzako erronkei egoki aurre egiteko.*

[36] *Orain gutxi, haur eta nerabeen babeserako sistemaren aldaketa gauzatu da, uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa aldatuz, hain zuzen ere. Garrantzia handiko aldaketa da, izan ere, genero-indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriak arautzen dituen abenduaren*

iristen den aita biolentoak eragindako tentsioa bizitzeko; irainak eta oihuak entzun egiten dira lo itxurak egin arren; ateak inoiz ez dira nahikoa sendoak amaren antsietateari eta beldurrari eusteko; amesgaiztoek eta loaren alterazioek zerikusia dute ahul sentitzearen kezkarekin; jarrera erasokorrak edota bereziki otzanak, estrategiak izan daitezke aldi berean beldurra izan eta maite den aita baten haserrea baretzeko.

Gurasoen zereginak ezberdinak dira. Posible da beraien seme-alaben amaren aurka tratu txarrak eragiten dituen aitak ondoren zeregin horietako batzuk egoki egitea. Hornitzaile arduratsua izan liteke, eskola-garapenarekin kezkatuta egon liteke…baina tratu txarra eragina izaten ari da haurraren garapen eta heziketaren bestelako aspektu batzuetan. Hala nola, enpatia, segurtasuna, errespetua, amaren autoritatea… Ondorioz, beraein aita ona dela argudiatzen dute zenbaitetan beraien seme-alabek (zereginak burutzen dituelako edota batzuetan sensiberatasuna erakusten duelako) baina tratu txarrak burutzen dituen aitak ez du erabiltzen heziketarako modelu egokia eta bere seme-alabei ideia arriskutsuak transmititzen ari da: indarkeria onargarria da, gizonak eskubidea dauka emakumea kontrolatzeko, gizonezkoen agintea ez da zalantzan jartzen, etab.

Bestalde, zenbait aitarentzat edota amaren bikoteentzat, beraien haur biologikoak edota bikotearen haurrak tresna soilak dira bikoteari min emateko. Ez zaie axola haurren ongizatea eta erabili egiten dituzte amari min emateko edota manipulatu egiten dituzte eta beraien haserrearen errudun sentiarazten dituzte. Amari buruz gaizki hitz egiten diete eta balioa kentzen diete amek esandakoari edota egindakoari. Ondorioz, haur eta nerabe horiek amekin eta berarekin duten harremana hondoratzen dutelarik.

Aitatasun txar honen beste muturrean daude beraien seme alabei tratu txarrak eragiten dietenak edota hiltzen dituztenak bikotekideei min emateko, harremana puskatu ez dezan presionatzeko edota banaketaren ondoren min ematen jarraitzeko.

---

Indarkeria egoera sufritzen ari diren emakumeak saiatzen dira ahalik eta ondoen betetzen amaren rola. Zenbait kasuetan, beste batzuetan baino hobekiago lortzen dute. Batzuk, gertatzen ari dena ezkutatzen saiatzen dira, pentsatuz modu horretara beren seme-alabak babesten dituztela. Egia da ez dela babesteko modurik egokiena, baina horixe da eskura dutena. Bestalde, ama horren gaitasunak

*28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatzen du. Ondorioz, biktima diren emakumeen seme-alabak legearen sujetu gisa txertatzen dira, modu horretara genero-indarkeriaren biktima gisa aitortuz.*

indargabetuta egon arren –agintea edo eusteko gaitasuna- indarkeriaren ondorioz beraiek dira haur horientzat lotura erreferente garrantzitsuak.

Haurrak indarkeriatik defendatuko dituen amatasuna bultatzen saiatu arren, eragina izango dute faktore ezberdinek: adina, sexua, seme-alaba kopurua, familiako laguntza-sarea, etab. Hobeto funtzionatu dezake haurrak txikiak direnean, gaitasun handiagoa dutenean familian gertatzen ari dena interpretatzeko edota harreman afektibo-sexualen ikasketa prozesu pertsonalean daudenean.

Egoera bakoitza ezberdina da, baina indarkeria jasaten ari den emakumeak laguntza behar du. Orain arte, indarkeriaren biktima direnen emakumeen arretarako politikak, bikote diren emakumeei zuzenduta daude eta ez ama diren emakumeei. Rol horretan ulertzen eta babesten ditugu. Baliabide gutxiago ditugu indarkeria jasaten ari diren amak ulertzeko.

Amaren irudia mezu kontraesankorrez beteta egon da beti: Goratu eta epaitu egiten da aldi berean. Salatu egiten da eta, era berean, ez da babesten. Egiazko amak, ama idealizatu bat dauka aurrean, inoiz iritsi ezingo dena. Ondorioz, horrek errudun sentsazioa eragiten du beraiengan. Beraz, beharrezkoa da figura honen eginkizuna berraztertzea kultura patriarkalean.

Askotan esan da eta hainbat ikerketa eta esperientziek horrela dela baieztatzen dute: Ez daude erasotzaile eta erasotuen perfil konkretuak. Beraz, ezin ditugu eduki adierazleak tratu txarrak ume horiengan dituen eraginak identifikatzeko. Adierazleak edukitzeak segurtasuna emango liguke, baina esperientziak anitzak direnez, ezinezkoa da %100ean fidagarriak diren adierazleak lantzea.

Aldiz, genero-indakerkeriaren dinamikaren inguruan dugun sensibilitatea, esperientzia eta ezagutza baliatu ditzakegu haur edota nerabeen jarrera arraro edo ezberdinak hautemateko. Berehala artatu behar ditugu bapateko jokaera aldaketa nabarmenak: ondo portatzen den ume bat jokaera txarrak izaten hasten denean, errendimentu ona duen neska bat jeisten hasten denean… Posible da baita genero-indarkeria ez izatea jatorria, izan ere, haurrak eta nerabeak sentikorrak dira edozein aldaketei. Halere, baztertu beharko da genero-indarkeria kasuaren aurrean gaudela.

Genero-indarkeriaren aurrean egon daitezkeen erantzun eta erreakzioak ugariak dira. Haur edo nerabe bakoitzak erreakzio ezberdina izan dezake horrelako egoera batean. Batzuentzat, eskola eremu askatzailea izan daiteke, eta nahiago dute ez gogoratu zer gertatzen ari den beraien etxeetan. Defentsarik onena, mingarria den errealitateaz ez gogoratzea izanik; beste batzuek nahiago izaten dute eremu hori

aprobetxatu kontatzeko… Edozein kasutan, haur edo nerabe horrekiko dugun ezagutzaz fidatu behar gara baina batez ere ez dugu txikiagotu behar hautematen dugun edozein jarrera ezberdin edo arraro eta egoera gertatzen ari dena ikertu behar dugu.

Indarkeriaren biktima den haurrak edo nerabeak martxan jarriko ditu bere babes eta erresilientzia mekanismoak. Bere ezaugarri pertsonalaren eta bizitzen ari den egoeraren arabera, mekanismo batzuk besteak baino egokiagoak izango dira. Laguntzeko modurik onena izango da gertu egotea, sentiaraziz eskola eremu segurua eta fidagarria dela.

Hautematen denean, beraien familetan genero-indarkeria pairatzen dela, haurra edo nerabea babesteko dagoen protokoloa jarriko dugu martxan. Horrelako kasuetan parte hartzen duten agenteekin koordinatu behar da: zerbitzu sozialak, osasun zerbitzuak eta polizia zerbitzua behar den kasuetan[37].

Gure gain dago zauri hori ekiditea. Haur eta nerabe hauek garai zailak eta txarrak pasatzen ari dira beraien etxeetan, eta horrek eragina izango du etorkizunean, baina ez du zertan izan indarkeriaren erreprodukzioa**.** Hezkuntza komunitate ulerkorra bultzatu behar dugu, ez dituena jarriko ikaskideen kritikaren erdigunean, egoerei aurre egiteko gaitasuna indartuko duena, sormenaren bitartez beraien sentimenduak adierazteko guneak eskainiko dituena. Horixe da eman daitekeen laguntzarik onena indarkeria ez erreproduzitzeko belaunaldiz-belaunaldi.

[37] Hezkuntza sektorea barnebiltzen duen genero-indarkeriaren aurkako protokoloa berrikuste fasean dago, hilabete gutxi dituen 8/2015 lege organikora doitzeko. Halere, horrek ez du oztopo izan behar hautematen diren indarkeria kasuen aurrean eskuhartzeko. Beti ere, frogak baldin baditugu haur edo nerabeak arriskuan egon daitezkela.

## 15. SEXU-ORGANOEN MUTILAIO ARRISKUAN DAUDEN NESKAK

Bikotean ematen den indarkeria edo indarkeria sinbolikoaz gain, beste indarkeria mota batzuk hasi dira agertzen gure testuinguruan. Migrazioaren ondorioz ematen dira, izan ere, pertsonek beste herrialde batera migratzen dutenean, gehienetan beraiekin daramatzate beraien tradizio eta ohiturak, zenbaitetan bateraezinak neska eta emakumeen giza eskubideekin.

Sexu-organoen mutilazioa egiten diete Euskal Autonomia Erkidegoen bizi diren zenbait herrialdeetako neskei. Atal honetan sartu aurretik adierazi nahiko genuke, beste indarkeria mota bat dela mutilazioa. Ondorioz, dituen ezaugarrien ondorioz, ez genuke beldurtu behar beste kasuekin baino gehiago. [38].

Emakumezkoen genitalen mutilazioa haurren eta emakumeen aurkako indarkeria mota da. Gainontzeko indarkeria mota guztiak bezala, sozialki oso errotuta daude eta burutzen diren jendarteetan gehiengoaren onarpena dauka. Deuseztatu ahal izateko, gizon eta emakumeen harremanen oinarriak eta emakume izatearen ideia desegin behar dira.

Emakumezkoen genitalen mutilazioak, kanpo genitalen extirpazio osoa edo zatikakoa ahalbidetzen dituen prozedura guztiak onartzen ditu. Era berean, emakumeen sexu-organoen bestelako lesioak ere onartzen ditu, osasunari dagozkion arrazoiak ez izan arren. Osasunaren Mundu Erakundeak lau mutilazio mota sailkatzen ditu:

- Klitoridektomia: Klitoria, emakumeen genitaletako organu txikia, sensiblea eta erektila da. Klitoriaren extirpazio osoa edo zatikakoa litzateke eta oso noizbehinka prepuziokoa soilik (klitoria inguratzen duen azalaren tolesdura).
- Eszisioa: Klitoriaren eta ezpain txikien extirpazio osoa edo zatikakoa. Ezpain handien mozketarekin edo gabe.
- Infibulazioa: Baginako irekidura estutzea, mozketaren bitartez seilua sortu eta ezpain txikia eta handia berriz jartzea, klitoriaren erresekzioarekin edo gabe.

[38] *Atal honetan aurkeztutako informazio eta datuak "Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeen sexu-organoen mutilazioa saihesteko programa inplementatzeko diagnostikoa" lanetik hartu ditugu. Emakunden eskaeraz, 2014an Adriana Kaplan, Elo Mayo y Nora Salas-ek egindakoa.*

- Bestelakoak: Kanpoko genitalen gainontzeko lesio prozedura guztiak. Osasun helbururik gabe. Esaterako, perforazioa, inzisioa, arraspatzea edo genital gunearen kauterizazioa.

Emakumeen sexualitatearen inguruko sinesmen hau oso errotuta dago familietan. Baita emakumeek jendartean izan behar duten rola zein izan behar den ere. Horrez gain, garbitasunaren inguruko sinesmenetan ere babesten da. Izan ere, emakumeen genitalak zikinak direla kontsideratzen da. Garbitasunaren esanahia gorputza garbitzetik haratago doa eta emakumeen bertutasun edo purutasunarekin lotzen da. Finean, praktika honekin nesken sexu garapena kontrolatzen da eta nolakoa izango den erabakitzen da, beraien borondatea kontuan izan gabe. Era berean, neska hauek ez dute defendatzeko inolako aukerarik.

Zenbait herrialdetan irizpide estetikoak ere argudiatzen dituzte, mutilatu gabeko genitalak bistarentzat iraingarriak direla kontsideratuz. Jendarte batetik bestera aldatu egiten dira irizpide estetikoak, baina guztiek erdigunean kokatzen dute emakumeen gorputza, beraien neurriak, genitalak, bularrak, hankak… Emakumeen gorputzaren aurkako indarkeria mundu osoan zehar aurki dezakegu. Praktika hauek aldatuz doaz historian zehar.

Orokorrean, alua eta emakumearen genitalen inguruan ez da hitz egiten. Ondorioz, inguruko neska eta emakume askok ez dituzte ezagutzen beraien genitalak eta honen inguruan dagoen aniztasuna. Horregatik, ez da hitz egiten genitalen edertasunaren inguruan eta, beraz, gorputzaren zati itsusia dela kontsideratzen da. Emakumeen genitalen mutilazioari dagokionean, mutilatutako genitalak, beraien forma ezberdinetan, ederragotzat hartzen dira.

Bestalde, emakumeen genitalen mutilazioarekin jarraitzen da, ustez modu horretara gizona babesten delako (genital "arriskutsuetatik") eta emakumea bere nortasun sexual eta amatasun nortasunetik. Mutilatutako genitalak erronka dira gizonezkoentzat harreman sexualetan, izan ere, baginaren sarrera oztopatzen den kasuetan, sarketa bakoitza mingarria da gizonezkoarentzat, baina, are gehiago, emakumezkoarentzat.

Orokorrean, tradizioek balio dute talde batekin identifikatzeko. Emakumeen genitalen mutilazioa burutzen den herrialdetan, erritu hau burutzen ez duten neskak baztertuak izateko arriskuan daude, izan ere, ez dira talde horretako kidetzat hartuko. Helduak direnean ezin izango dute bertan integratu ezkontzaren

bitartez. Horrek ekar litzaken ondorioekin, izan ere, emakumeei ez zaie bestelako aukerarik eskaintzen.

Emakumeen genitalen mutilazioa indarkeria mota da. Praktika hau burutzea ohitura den komunitatetan, neskak gogotsu egoten dira momentua iritsi zain, une hori bizi ahal izateko. Alde batetik, ez dituztelako ezagutzen epe motzera eta luzera beraien osasunean duen eragina. Bestetik, beraiek eta beraien familiak tradizioa jarraitu nahi dutelako, komunitateko parte izaten jarraitzeko. Familiaren helburua ez da haur horiei min egitea, alderantziz, etorkizunean talde erreferente horretako kide izatea bermatu nahi dute.

Tradizio honek lotura zuzena dauka haur horiek heldu izatera pasatzeko fasearekin. Hau jasaten duten neskek (adina aldatu egiten da baina hasierako urtetatik pubertaroaren adinera arte iristen da, beti lehen hilekoa izan aurretik), beraien bizitzako gertakari garrantzisuenetako bat (haur katoliko bate bere jaunartzea ikus dezaken bezala). Erritual honetan, haurrak protagonista diren beste hainbatetan bezala, baimentzeko duten gaitasuna txikia da. Errituala onartzen dute ospea ematen dielako beraien ingurunean baina ez dituzte ezagutzen honen esanahia eta ondorioak.

Erresekzioaren ondorio bezala, eta emakumearen genital normal eta sanoaren ehundura kaltetzeak, emakumearen organismoaren funtzio naturala kaltetzen du. Berehalako konplikazioen artean daude min handia, talka, hemorragia, tetanoa, sepsis, gernu-erretentzioa, zauria genitaletan. Epe luzerako ondorioak honakoak izan daitezke:

- Besikula eta gernu infekzioa;
- Kistea;
- Antzutasuna;
- Erditzean zailtasunak izatea eta haur jaio berriaren heriotza arriskua handitzea;
- Ebakuntza kirurgiko berriak egiteko beharra. Adibidez, itxitzearen prozedura edo baginaren irekidura estutzea zuzendu egin behar dira kirurgikoki, harreman sexualak edo erditzea ahalbidetzeko. Batzuetan berriro ere itxi egiten da, baita erditu ondoren ere. Ondorioz, emakumeak behin eta berriz pairatu behar du irekiera eta itxiera prozesua, horrek momentuko eta epe luzeko arriskuak handituz.

Emakumeen genitalen mutilazioa ez da burutzen afrikako herrialde guztietan eta erlijio islama nagusi den komunitate guztietan. Horrela dela pentsatzeak esku-hartze desegokiak egitera eraman gaitzake. Emakumeen genitalen mutilazioa erlijio kristaua eta judua duten herrialdeetan ere ematen da.

UNICEFek 2013an ateratako datuen arabera, honakoak dira praktika burutzen diren herrialdeetako datuak, eragina izan duen populazioaren portzentajeen arabera.



> Emakumeen genitalen mutilazioa berria da hezkuntza komunitatearen kezken artean. Migrazioa ere prozesu berria delako herrialdean baina ez munduan. Hainbat ikerketa daude horren inguruan, eta zenbat eta gehiago ikertu, egiaztatzen da mapan agertzen diren herrialdeetako etnia propio batzuen errituala dela.

Euskal Autonomoa Erkidegoan 3000 pertsona baino gehiago bizi dira emakumeen genitalen mutilazioa burutzen den lekuetan jaiotakoak. Horietatik 800 baino gehiago 15 urtetik beherakoak dira. Gehienbat Gasteizen eta Bilbon bizi dira, nahiz eta erkidego guztian zehar bizi diren.

Orain gutxi protokoloak egin dira, praktika hau pairatzeko arriskuan dauden neskak babesteko, batez ere oporraldian. Tresna hauen oinarrizko printzipioetako bat da koordinazioa osasungintza, zerbitzu sozial eta hezkuntza komunitatearen artean.

Lehenbiziko zeregina da adi egotea eta kolaboratzea egoera hau sufritu dezaketen neskekin. Besteak beste, bere osasun integralean eta egoera berrira integratzerakoan izan ditzaken zailtasunean.

Garrantzitsua da haur neska horien gurasoak sentitzea ulertzen zaiela. Izan ere, lehen esan dugun bezala, guraso hauen helburua ez da inolaz ere min ematea, baizik tradizioa jarraitzea. Bestalde, ulertu behar dugu migratzen duen populazioaren baldintzak ez direla beti onenak eta ez diete zertan errespetua erakutsi gure legeei, ez bazaie beraiei errespetuz tratatzen. Zenbaitetan, tentsio horien ondorioz jarrerak muturreraino eramaten dira, eta, beraz, bestelako egoera batean mutilazioa egingo ez luketen familiak, burutu egiten dute baieztapen kultural gisa. Berdina gertatu liteke haurrekin, beraz, errespetua eta ulermena ezinbesteko baldintzak dira prebentziorako.

Mutilatuta dauden neskak ezagutzen baditugu, izan EAEn bizi izan direlako edota erritua pasa ondoren bueltatu direlako, ezinbestekoa da beraien gainean egotea, behar dutenean laguntza emateko eta baztertuak izatea saihesteko. Zentzu honetan, sentisibilizazio lana ezinbestekoa da hezkuntza komunitatearentzat. Lana egin behar da herrialde horietatik datozen migratzaileei buruz dauden aurreiritziak ezabatzeko. Praktika horiei buruz zakarkeriaz hitz egitea ekidin behar da, zentzugabekeria eta astakeria gisa kalifikatzea saihestuz. Horrela dira indarkeria mota guztiak, baina hiztegi hau gogorrago erabiltzen dugu gurearekiko ezberdinak diren praktika kulturalei buruz hitz egiten dugunean. Jokabide hauekin lortzen den bakarra da, mutilatuak izan direnak edota arriskuan daudenak baztertzea.

Gai hauen aurrean lasaitasunez aritzen saiatu behar da. Ez da beharrezkoa gai hau lantzea beharrik ez badago, baina betiere garrantzitsua da erantzuna ematea norbait aurreiritziekin eta nahastuta ari bada gai honen inguruan hitz egiten. Zenbait kulturetan genero-harremanak eta emakumeak ulertzeko dagoen sinesmen horren baitan ulertu behar da emakumeen genitalen mutilazioa. Betiere neska edo emakume horiek iraindu gabe. Bestalde, beraien herrialdeetan zenbait emakume antolatuta daude eta praktika honen aurka egiten dute, beraz, garrantzitsua da honen berri ematea. Ondorioz, lortzen ari da erritual hauek egitea mutilaziorik gabe.

Horren ondorioz hausnartu egingo dugu nola dagoen maskulinitate hegemonikoa indarrari eta indarkeriari lotuta beste zenbait kulturetan. Betiere legalki, sozialki eta kulturalki legitimatuta. Gainera, erakunde sozial horretatik onartu, toleratu eta betikotu egiten da haur, nerabe eta emakume horien giza eskubideen bortxaketa.

Ezinbestekoa da praktika hau identifikatzea mundu guztian zehar haur, nerabe eta emakumeen aurka ematen den beste indarkeria mota baten gisa.

# 16. GENERO-INDARKERIA SAIHESTEKO JARRAIBIDEAK

Jarraian datozen orrialdeetan genero-indarkeria saihesteko hainbat jarraibide aurkituko dituzu, hezkuntza-komunitate osoarentzat baliagarriak izan daitezkenak. Horrez gain, ikasgelan garatzeko adibideak, ideiak eta ekintzak.

## 1. ELKARRIZKETARAKO GUNEAK SORTZEA HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREKIN

Genero-indarkeria saihesteko lehen pausua da ulertzea egiturazko dimentsioa duela, eta ez direla ekintza isolatu soilak.

Erakunde sozializatzaile garrantzitsua izanik, hezkuntza komunitateak papel nagusia izan behar du genero-indarkeriaren aurkako sentsibilizazioan, prebentzioan eta kide guztiak kontuan izango dituen ekintzak prestatzen. Biktimak babestu eta erasotzaileak gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen eta bultzatzen duten arrazoik identifikatu eta horretan eragin behar du.

Genero-indarkeria eraikuntza soziala da, hau da, eremu guztietako sozializazio prozesuetan ematen da (familia, eskola, lagunak, komunikabideak…). Beraz, prebentzioak eta arretak ere ezaugarri izan beharko du.

Horregatik, komunitate guztiarekin elkarrizketarako guneak sortu behar dira. Sentsibilizazioa, formazioa, zalantzan jartzea eta hausnarketa bultzatuko dira indarkeriarekiko ikasketa bultzatzen duten eta interakzio sozialen artean.

- *Data zehatzetan familiakoekin (gurasoak, anai-arrebak, aiton-amonak edo bizi diren pertsonak), denbora libreko hezitzaileekin eta gizarte-hezkuntzako teknikariekin egoteko ekintza ezberdinak antolatu: Tailerrak, batzordeak, hitzaldiak, guztientzako formazioak, solasaldiak eta mota guztietako ekintza kolektiboak. Honen bidez honakoa lortuko dugu:*

# Sentsibilizatzea

**Genero-indarkeria herrialde, kultura eta gizarte-maila guztietan gertatzen da.**

Indarkeriaren adierazpen asko normaltzat hartzen dira, beti gertatu bailira moduan. Horregatik, migratzaileekiko edo praktika kultural ezberdinekiko dauden aurreiritziak borratzen saiatu behar gara.  Genero-indarkeria bere adierazpen guztietan erakutsi behar da, baita gertuen daukagun kulturan ematen diren adierazpen normalizatuak ere. Hauek guztiak agerian jartzeko lana egin behar dugu, hau da, indarkeria harreman mota guztietan ematen da, eta ez soilik bikote harremanetan.

Bestalde, ezinbestekoa da indarkeria psikologikoa hautematea eta antzematea. Indarkeria gisa izendatzea jazarpena, kontrola, beste pertsona bat menperatzea, xantaia forma ezberdinak, umiliazioa eta manipulazioa. Era berean, indarkeria modu askotara adierazten dela azaltzea.

Gainera, prebentziorako egiten ari garen ahaleginean, saihestu egin behar dugu etiketa konkretua jartzea behar bereziak dituzten umeei, genero-indarkeriaren biktima diren seme-alabei eta mutilazio arriskuan dauden neskei; saiatu behar gara edozein indarkeria motaren biktima direnak ikusgai ez jartzen bere lagunen eta komunitatearen kritiken aurrean.

# Hezitzea

Komunitate sentikor honen eraikuntzan, genero-indarkeria saihesteko hasiera pausua izango da jakitea nola egin lana berdintasunaren alde: genero estereotipoak zalantzan jarriz, sexu aniztasunarekiko errespetuan heziz, botere harremanen esanahiaren inguruan eztabaidatuz, harremanetan dagoen moral bikoitza eta harreman afektibo-sexualen transmisio tradiziola ikertuz, komunikabideek transmititzen eta indartzen dituzten ereduen inguruan hausnartuz eta zergatik gertatzen eta erreproduzitzen den indarkeria ulertuz…
Hau da, genero-indarkeria, gizon eta emakumeen arteko parekidetasun eza gisa ulertuta.

# Inplikatu

Jazarpena eta indarkeria jasaten dutenei laguntza eman eta jokabide bortitzak gaitzetsi. Jazarpen sexistarekin eta ikasgelan, sarean edo kalean gertatzen den indarkeriarekin amaitu nahi duten taldeen sortzea bultzatu. Ezin da inolako justifikaziorik onartu eta biktimak ez dira kalifikatuko beraien jokabidearen arabera.

Horretarako, haurrei jartzen zaizkien "erasotzaile" eta "erasotu" etiketa goiztiarrak saihestu behar dira. Hezkuntza komunitatean heziketa egin nahi dugu honako ezaugarri eta programa hauen bitartez: hezkidetza, elkarrizketa, berdintasunezko interakzioak eta edozein indarkeriarekiko gaitzespena.

Pertsona bat "erasotzaile" gisa etiketatzea ez dagokio hezkuntza sistemari. Izan ere, badakigu posible dela jokabideen aldaketa eta ikasketa. Hala ere, indarkeria zer den zehaztu eta mugak jartzea dagokigu, ezin dugu onartu oharkabean pasatzea eta lan hezitzailearen bitartez landuko dugu. Ikasketa eta etengabeko aldaketa fasean dauden adingabekoei buruz hitz egiten dugunean, ezinbestekoa da indarkeriari buruz hitz egitea, beraien indarkeriazko jarrerei mugak jartzea eta horietatik ikastea.

Ikasleei dituzten zalantzekin laguntzen diegun bezala, mekanismoak sortzen ditugu eskolatzen hasten diren hasierako urtetatik indarkeria ekiditeko. Horretarako, berdintasunezko jarrerak erakargarri izatea eta indarkeriazko jokabideak errefusatzea bultzatuko dugu.

# Eztabaidatu

Lehenik eta behin helduak gara birpentsatu, berriz ikasi eta diseinatu behar dugunak genero-indarkeriaren inguruan, mitoen eta aurreiritzien inguruan eta ikasgeletan, etxean zein inguruko emakume eta gizonezkoekin ditugun harremantzeko moduetan dugun eskuhartze kontzientearen eta inkontzientearen inguruan.

Prebentzio estrategia egiten hasteko modurik onena da, beraz, egiten dugun hori zalantzan jartzea eta ditugun jokabide eta gure harremanetan indartzen ditugun ideien inguruan hausnartzea.

**Komunitate osoarekin arauak adostu.** Garrantzitsua da akordioa egotea guraso eta irakasleen artean.

## 2. TOLERANTZIA ZERO, ZEROTIK

Genero-indarkeria modu eraginkorrean saihestu nahi badugu, ezinbestekoa da nerabeei zuzendutako ekintza prebentiboak antolatzeaz gain, gure ikuspegia zabaltzea haurren hasierako sozializazio prozesutik eskuhartzeko.

Generoan oinarritutako sozializazioa, jaiotzen garen momentuan hasten da, baita jaio aurretik ere.

**Generoak harremana dauka eskolan gertatzen diren gatazka askorekin.** Eragina dauka mutilen nortasuna osatzen den moduak eta nola lotzen den kulturalki eta sozialki maskulinitatea indarrarekin, kontrolarekin, gehiegikeriarekin eta gogortasun emozionalarekin. Horregatik, ezinbestekoa da estereotipoetatik at dagoen sozializazioa bultzatzea genero-indarkeria saihesteko.

Lortu behar dena da, nortasun pertsonalean eta aniztasun sexualean oinarritzen den sozializazioa, berdintasunezko eta tratu onerako harremanak bultzatuko dituena. Modu honetara, erakargarritasuna ematen dio berdintasunezko jarrera guztiei eta indarkeriazko jarrera guztiak identifikatzeaz gain erakargarritasuna kentzen die.

Indarkeriaren ukapena, justifikazioa edo txikiagotzea, estrategia desegokiak dira. Batzuetan "babesteko" helburuarekin erabiltzen dira. Lortzen dena da, ordea, indarkeria naturalizatzea, kontzientzia gabe erreproduzitzea eta sufritzen dutenak biktimizatzea. Ondorioz, batzuetan biktimak ez dira gai gertatzen zaiena antzemateko edota izendatzeko.

**Indarkeria azaleratzeak edo publiko egiteak** hasiera batean beldurtu egiten gaituen arren, inoiz ez da porrota izango. Alderantziz, arrakasta izango da adingabeek identifikatzea lortzen bada. Izendatzea eta identifikatzea lehen pausua da

**Har ezazu zerbait positiboa izango balitz bezala gai honen inguruan lan egitea.**

Ezinbestekoa dira bultzatzea edozein indarkeria motaren biktimak babestuko dituzten hezkuntza komunitateak. Indarkeriaren inolako espresiorik onartuko ez duena edozein adin izanda ere.

Tolerantzia zero sozializatzea, gaizki tratatzen gaituzten pertsonen jokabideen bazterketa sozializatzea da.

Nola?

| 2.1. Laguntasunaren sentimenduan hezi | 2.2. Erakargarritzat hartu berdintasunezko jokabideak. Erakargarritasuna kendu indarkeriazko jarrerei. |
|---|---|
| Horretarako, egoera edo mezu hauek landu ikaslearekin:<br><br>• Beti ondo tratatzen gaituztenak lagunak dira.<br>• Lagunek laguntzen gaituzte beste pertsona batzuek erasotu, baztertu, iraindu, umiliatu…egiten gaituztenean.<br>• Nahi ez duzuna egitera behartzen bazaitu, pertsona hori ez da zure laguna.<br>• Beti esan dezakezu norekin nahi duzun jolastu eta norekin ez.<br>• Zuk ez baduzu nahi jolastu, zure lagunek ulertuko dute.<br>• Ez baduzu nahi muxurik eman ez zaude derrigortuta egitera. | • Indartu publikoki berdintasunezko jarrerak eta erabili desiorako hizkuntza (nola gustatzen zaigun) eta ez etikarako hizkuntza (egin behar duguna eta komeni ez zaiguna).<br>• Ez galdu denbora burla egiten edo erretolika botatzen, izan ere, errazago ikasten da positibo hitz egiten kexarekin baino.<br>• Taldeko jokaeren bidez arbuiatu indarkeriazko ekintzak. Adibidez, taldean mezuak landu ditzakezu gertatu litezken egoeren aurrean erabiltzeko "Ez zaigu gustatzen zuk gu jotzea", "Ez dugu zurekin jolastuko guri ondo tratatu arte", "Ez dugu zurekin jolastuko gaizki egin zenuela onartu eta barkamena eskatu arte"… "taldeko lemak" izan litezke, taldeko norbait gaizki tratatua izan denean erantzuteko. |

| 2.3. Aniztasunean hezi | 2.4. Mugak jarri indarkeriaren edozein adierazpeneri |
|---|---|
| Gainontzeko pertsonen egoera eta jarrera ulertzeko elkarrizketa erabiltzeak enpatia, elkar ezagutza eta hausnarketa bultzatzen du. Familia eredu ezberdinak eta eskolan dagoen sexu eta kultura aniztasuna bistaratu. Horrez gain, sartu eskolako ekintzetan, dinamiketan, ipuinetan, etab.<br><br>Beste pertsona baten "rolean" jartzea praktikatu dezatela bultzatu. Modu horretara ulertu dezakete pentsatzeko, sentitzeko eta ulertzeko modu ezberdinak daudela. Tutoretzetan ariketak egin ulertzeko nola sentitzen den beste pertsona.<br><br>• *Ikasgelan: Saiatu jarduerak egiten, modu horretara neska eta mutilek kasu praktikoen inguruan hausnartuz eta eztabaidatuz, ulertu dezaten nola sentitzen den pertsona bat indarkeria edo intolerantzia sufritzen duenean.*<br><br>• *Dinamikak edo praktikak egin ikasleak sentsibilizatzeko emakumeek, homosexualek edo genero rolak hausten dituzten pertsonek bizi duten egoeraren inguruan. Ariketa hauen ebazpena izango da, bakoitzaren erabakia errespetatu behar dela.* | • Mugak jartzen ditu agresibitatearen edozein adierazpenetan.<br>• Garrantzitsua da gure jarrerak argi lagatzea "bere jarrera" ez dela onargarria. Bere jarrera aldatzen duenean soilik onartuko dugu jolasetan.<br><br>Normalean helduek lastima sentitzen dute zenbait mutilen jarrera agresiboen aurrean irmotasunez jokatzeko ("garai txarra ari da pasatzen", "haurtzaro gogorra izan du.").<br>Ondorioz txikiagotu egiten da erasoa jasan duten pertsonen sufrimendua.<br><br>Gogoratu: Ez da baztertzen pertsona, baizik bere jarrera bortitza<br><br>• *Ikasgelan: Irizpide hau erabili ikasle guztientzat, era berean, guztiek aplikatuko dituzten hizkuntza edo arau bateratuak adostuz; adibidez: "ez zaigu gustatzen indarkeria", "ondo tratatzen gaituztenak gustatzen zaizkigu", "iraintzea eta umiliatzea koldarren kontua da".* |

| | |
|---|---|
| *2.5.* **Ez txikiagotu indarkeriaren inolako adierazpenik.**<br><br>Ez justifikatu edo garrantziarik kendu inolako jarrera bortitzeri. Indarkeriazko jarrerak baimentzeak, normalizatzea errazten du. Entzun beti haurrei. Batzuetan ume jolasetan ezkutatzen diren jarrera agresiboei ez diegu garrantziarik ematen. "Ez da ezer pasatzen, eman eskua elkarri eta bakea" edo "huskeria izan da". Borratu zure jarreretatik eginda dauden esaldi hauek. Ez nahastu eztabaida bat agresioarekin. "Tonta zara" iraina da. "Ez nago zurekin ados" eztabaida da.<br><br>• *Ikasgelan gertatzen diren gatazkak aprobetxatu aukera bezala ikasleekin hausnartzeko generoaren eta gatazka horien arteko harremanean. Soluzioak honakoan bihurtu: "Elkarri eskua emango diogu eta bere horretan utziko dugu" egin beharrean, "taldean hitz egingo dugu honen inguruan"*<br><br>• *Gatazka/desadostasuna eta erasoa/indarkeria bereizteko, egin dinamikak gatazka edo desadostasuna ezberdintzeko berdinen artean eta bestelako egoera batzuetatik non pertsonetako batek bere iritzia inposatzen duen bestearen gainean edota mina ematen saiatzen den.*<br>• *Adibidez egin daiteke solasaldien bitartez, rol-playing jolasarekin, egoera praktikoak analizatuz eta eztabaida ezarriz iritzi ezberdinen artean, betiere berdinen arteko elkarrizketa zabalduz.* | **2.6. Babestu biktimak baldintzarik gabe**<br><br>Bultzatu biktima babestea baldintzarik gabe eta publikoki aitortua izatea gertatzen den talde edo kolektiboan.<br><br>• *Ikasgelan: Indarkeria arazorik ezagutu baduzu, ekintzaren bat egin publikoki frogatzeko biktimak ez duela merezi indarkeria hori eta erantzukizuna beti dagoela eragiten duenaren eskuetan.*<br><br>• *Ikasgelan: Irizpide hau mantendu ikasle guztientzat. Era berean, ikasle guztiei aplikatuko zaizkien hizkuntza edo arau berdinak adostuz. Adibidez: "Zu ez zara gertatu zaizunaren arduradun", "lagunduko zaitugu", "baliotsua zara", "inork ez du merezi gaizki tratatzea".* |

**2.7. Erakutsi frustrazioa lantzen**

Erakutsi beharrak atzeratzen eta frustrazioa onartzen.

Zeregin hau iraunkorra izan beharko litzateke heziketa prozesuan. Haurrak exijitzen duen oro ez da eman behar, zenbait gauza ezin izango dituztela lortu ikasi behar dute. Honek lastima sentimendua sortu dezaken arren, bizitzako zailtasunak kudeatzen lagundu behar zaie.

- *Ikasgelan: Ikasleekin eztabaidatu norbaitek ez badu nahi jolastu edo zerbait egin zurekin, min eman edo frustratzen duen arren errespetatu egin behar da beti bere erabakia.*
- *Beste pertsona batzuen desirak eta beharrak ez direla beti norberaren berdinak ulertzen eta onartzen erakutsi eta ikasi behar dugu.*
- *Erakutsi behar dugu, behar eta desira ezberdin horiek onargarriak direla eta helburua ez dela molestia sortzea edo beste pertsona erasotzea. Horregatik, errespetatu eta onartu egin behar dira.*
- *Ezberdinarekiko errespetuan eta frustrazioa toleratzen hezituz gero, horrek esan nahi duena da ez direla azalpen gehiegi eskatu behar (frustratzen denaren aldetik) eta desioak ere ez direla justifikatu behar (ezetz esaten duenaren aldetik). Honek ez du esan nahi beti horrela izango denik, hau da, erakutsi behar da posible dela nahi izanez gero iritziz aldatzea.*

Edozein modutan, erakutsi frustrazioa sentitzea normala dela baina horrek ez diela eskubiderik ematen indarkeria erabiltzeko.

Gogoratu kultura matxista presente dagoela neska eta mutilen arrazoiketan. Mutilek errefortzu asko dituzte nesken gainetik egotea sentiarazten dietenak. Ondorioz, arazo gehiago izan ditzakete nesken ezezkoa edota beraiek baino gutxioago direla pentsatzen duten mutilen ezezkoa onartzeko.

Bestalde, kultura matxista honen ondorioz, askotan neskek ez dute legitimaziorik sentitzen ezezkoa esateko. Bestetik, beraien esfortzuak bideratzen dituzte besteen desioak betetzera, beraien desira pertsonalen gainetik. Jaramon egin bereziki zailtasun hauei.

## 3. ISILTASUNAREN LEGEA HAUTSI. KONTA EZAZU!!!

Isiltasun kolektiboak indarkeria iraunarazten du. Ondorioz, biktimak bakarrik sentitzen dira eta egoeraren arduradun. Hau aldatzeko ezinbestekoa da isiltasun ezaren kultura bultzatzea. Alde batetik, indarkeria identifikatu eta honen inguruan hitz egitea arrakastatsua delako, izan ere horrek esan nahi du badakigula identifikatzen. Beste alde batetik, erresoluzioa egokia izango delako.

- Indarkeriari aurre egiteko hezi behar dugu eta bultzatu laguntza eskatzea jarrera eta jokabide ausarta dela. Isildu eta beste alde batera begiratzea, aldiz, jokaera koldarra. **Salatzea ausarten jokabidea da, isiltzea koldarrena.**
- Haurrei erakutsi beraien burua zaindu eta babesten eta baita gainontzekoak ere.
- Indarkeria erabiltzen duena ez babesten erakutsi, indarraren hizkuntza ez erabiltzen.

**Nola?**

**Erakutsi salatzea ausarta izatea dela eta besten gauzak kontatzea koldarrena**

- *Ikasgelan: Ekintzaren bat egin dezakezu txibatoa eta koldarra izatea zer den bereizteko. Esaldien edo egoera praktikoen bitartez identifikatu ahal izango dugu, adibidez, norbaiti beste pertsona baten sekretua kontatzea edo gezurra den zerbait zabaltzea norberaren intereserako kontakatilua izatea dela. Pertsona ausartak bagara eta bidegabekeria kasuren bat ikusten ari bagara, esaterako, lagun baten aurkako erasoa edo abusua, pertsona hori lagunduko dugu eta lagundu gaitzaken norbaiti laguntza eskatuko diogu.*

  - *Erasoak, abusuak, bazterketak etab. jasan dituzten pertsonak defendatzen dituztenen ausardiaz hitz egiteko, ipuinak edo edozein indarkeria kasuren aurrean isiltzen ez diren pertsonen istoriak erabili ditzazkegu. Era berean, hauek benetako pertsona ausart gisa identifikatuz.*

- *Kontuan hartu haurrengan sortu ditzaken sentimenduak. Izan ere, mezu hauek ez doaz konkordantzian* beste bide batzuetatik jasotzen dituztenekin. Ondorioz, honek nahasmena sor dezake. Permititu mezu hauen aurrean izan ditzaketen ideiak aireratzea eta izan ditzaketen zalantzen inguruan hitz egitea. Saiatu ez gelditzen ideia soil gisa.

- *Bultzatu haurrek irudiak, soinuak, esaldiak, pertsonaiak…sortzea. Modu horretara emozioak transmititzeko eta mezu horiek barneratzeko.*

| **Ez egin ez ikusiarena** | **Ez isildu** | **Elkartu** |
|---|---|---|
| • *Adibideak jarri ikasgelan. Esaterako, haur batzuek beste bat nola erasotzen duten ikusten dute eta erasotua defendatzen dute. Modu horretara egoeraren inguruan hausnartzeko. Nola sentituko dira haur horiek? Zein eragin eduki dezake beraien jokabideak? Nola uste duzu kontatuko dutela* | Bide ezberdinak antolatu erasoak jasan dituztenek jakin dezaten kontatu dezaketela.<br><br>• *Adibidez, antolatu ditzakezu beste pertsona batzuk babesten dituzten pertsona taldeak, edo horretara denbora bideratzen dutenak. Buzoiak ere jarri daitezke modu horretara jendeak* | Ikasgelako ekintzak ez dira oinarritu behar soilik biktimari esaten ez isiltzeko, baizik eta pertsona guztiei adierazi behar zaie ez garela isildu behar.<br>Taldean posizionatzen erakutsi behar zaie, jazarpenak, bazterketak eta "matoien" eta bere konplize diren jarraitzaileen aldetik umiliazioak jasaten dituztenei laguntzeko. "Zergatik ez diozu zuk esaten" horren aurrean, "guztiok batera esango diogu" filosofia erabiliko dugu.<br><br>• *"Matoien" aurrean taldean lana egitea, erasoak jasaten dituzten pertsonak ahalduntzeko modua da.*<br>• *Mutil batek jarrera agresiboa erabiltzen duenean neska batekin, baliatu gertaera hau gai horien inguruan hitz egiteko ikasgelan. Honen inguruan hitz egiterakoan, ez da* |

| | | |
|---|---|---|
| *egindakoa?* | *kontatu dezan zer gertatzen zaion. Indarkeriaren testigu izan diren pertsonetan oinarritzen diren prebentzio programak edo berdinen arteko elkarlaguntza bilatzen dutenak ere alternatiba izan daitezke indarkeria onartzen ez duen kultura zabaltzeko eskolan.* | *beharrezkoa gertatu den kasu horretan zentratzea, izan ere, horrek gehiegi identifikatuko lituzke inplikatutako pertsonak. Erabili kasu ezberdin bat eta orokortasunean eztabaidatu, izan ere, ez gara ari pertsona horiei buruz hausnartzen, baizik eta indarkeriaren inguruan.*<br>• *Erasoa publikoa izan bada eta testiguak badaude, beharrezkoa izango da horri buruz hitz egitea publikoki.* |

## 4. PLAN AFEKTIBO-SEXUALETAN AURREIKUSTEKO IRIZPIDEAK. NERABEZAROAN PREBENTZIOA.

Dakigun bezala, sozializazioaren eragina genero-indarkerian oso garrantzitsua da. Sozializazio honetan eta bere modeluetan zentratzen bagara erreproduzitzen duten pertsonetan zentratu beharrean, honek estrategia prebentiboak eskainiko lizkiguke. Horretarako:

- Ez da perfil konkreturik existitzen erasotua edo erasotzailea izateko. Genero-indarkeria edozein geruza sozialetan gertatzen da, edozein familietan, edozein adinetan eta harreman moduetan.
- Berdintasunaren espejismoa zalantzan jartzeak nahasketa eta babesgabetasuna sortzen du. Horregatik, emakumeen berdintasunerako aukeretan irabazi dena aipatu behar da, era berean, zintzilik gelditzen direnak aipatuz.
- Genero-indarkeria soilik bikote egonkor eta heterosexualetan gertatzen denaren ideia deseraiki behar da eta agerian jarri edozein motatako harremanetan gertatu litekela.
- Askatasunak esan nahi du aukeratzeko gaitasuna izatea.
- Presio sozialaren eragina erakustea eta norberaren irizpidea mantentzeko zailtasuna presioaren aurrean.

**Nola?**

| **Erakarpena** | **Etika eta desioa** |
| --- | --- |
| Erakarpen eta desio ereduak eztabaidatu sozializazio prozesuan (berdinen taldean, komunikabideetan eta publizitatean). Horrez gain, ezinezkoak direnaren sinesmena eztabaidatzeaz gain, izaera soziala dutela argitu behar da eta neska eta mutilengan irakaskuntza | Etikaren eta desioaren hizkuntza elkartzen ditu. Berdintasunezko harremanak desiragarri edota zirraragarri kontsideratzeko, ez da posible “beharko zenuke” edo “komeni zaizu”.<br><br>Zure adierazpenak eraldatu. Zure esperientziatik abiatutako aholkuak |

| | |
|---|---|
| prozesua ematen dela.<br><br>Horretarako garrantzitsua da arrakasta izan duten ereduak erabiltzea. Aktuala izan behar da eta jarrera kritikoa bultzatu behar da.<br><br>• *Eztabaidatu daiteke zergatik diren beraientzat erakargarriak modan dauden pertsonaiak. Kirolariak, modelu gihartsuak eta mutilen kasuan pertsonai agresiboak eta nesken kasuan emakume hipersexualizatuak.*<br><br>• *Eztabaidatu zergatik gustatzen zaizkien, zergatik ikusten dituzten komunikabideetan, zergatik gustatzen zaizkien beraien berdinei edota zergatik diren aurkezten diren pertsonaiak garaileak. Talde txikietan eztabaidatu erakargarritasun honen izaera soziala.* | ekidin, eta baita “beharko zenuke”, “zuri gertatzen zaizuna da…” bezalako mezuak (etikaren hizkuntza). Beraietaz fidatuz eta eraldatzeko gaitasuna emanez.<br><br>• *Ikasgelan: Saiatu beraiek izan daitezela ondorioak ateratzen dituztenak taldeko dinamiken bitartez (bideratuak). Horretarako, berdintasunezko harremanak dituzten pertsonaia edo pertsonak aurkitu eta beraiei galdetu gustatzen ote zaien harremantzeko beste modua. Eraginkorragoa izango da heldu baten ordez beraiek badira eredu horrekiko iruzkina egiten dutenak.*<br>• *Eredu parekideak azaltzen diren pelikulak ikusi. Era berean, mota honetako pertsonekin harremantzeak dauzkan alde onei buruz hitz egin.*<br>• *Min egiten duten jokabideei buruzko pelikulak ikusi.*<br>• *Abantaila eta desabantailei buruz eztabaidatu. Baita gustuen aldaketei buruz ere (adibidez bazkariak).* |

| **Elkartasuna** | **Laguntasuna eta aukeraketa** |
|---|---|
| Indarkeriaren aurrean laguntasuna eta elkartasuna bultzatu prebentzio laguntza gisa. Ez adierazi neskei jokabiderik onena bakarrik defendatzea dela, nahiz eta indartu behar den horretarako duten eskubidea eta nola egin erakutsi. Azpimarratu behar da kontatzea zein garrantzitsua den eta laguntza behar dela horretatik ateratzeko. | Indarkeriaren aurrean babes mekanismo gisa bultzatu neskengan elkartasuna eta laguntasuna |

| | |
|---|---|
| • *Zure lana da animatzea bakarrik ez egotera. Ikasgelan lana egin taldeak lagundu dezan, aurre egiten lagundu, beldur hori pasatzen lagundu eta babestu…*<br><br>*Emakumezkoen elkartasuna bultzatu eta ikas dezatela neskek beraien artean babesten, erasotua izan den neska edozein izan dela ere. "Neska bat erasotzen badute, guztioi erasotzen gaituzte". Honek esan nahi duena da, erasotua izan den pertsona laguna ez izan arren edota bera erasotu duenaren lagunak izanda ere, biktimari babes guztia erakutsiko diogula. Helburua ez da ikustea zer egin duen, nolakoa den, nola hitz egiten duen, zein taldetakoa den, nola erantzun duen…ulertu behar duguna da biktima izan dela eta inolako kasutan ezin dugula onartu indarkeria.* | • *Norberaren erabakien garrantzia eta bere balioa azpimarratu aniztasuna errespetatzen den ingurune batean.* |

Nerabezaroan hasten dira lehen harreman afektibo-sexualak, horregatik kontuan izan behar dugu bai neskek eta bai mutilek jasaten duten presio soziala, beraien generoari dagokion rol normalizatuan sartzeko. Sozializazio kulturalak izugarrizko indarra dauka komunikabide, publizitate eta sare sozialen bitartez. Hauek eragina dute egunerokotasunean beraiengan, horregatik, kontziente izan behar gara kontzientzia kritikoa eta aukeratzeko gaitasuna bultzatzeak alternatiba gehiago sortuko dituzte gazteengan. Ondorioz, ez ditugu erabiliko honelako mezuak: "Gazteen txorakeriak, lehen egiten ez genituenak" edota gure heldu jarreratik baieztatzea "zer egin beharko luketen".

**Maitatzen ikasi egiten da**

Maitasunaren ikasketa soziala azpimarratu eta ezberdindu zer izendatu daitekeen maitasuna eta zerrekin nahasten den. Esaterako, mitoak, zeloak, posesioa eta norberaren espazio falta.

- *Ikasgelan: Talde dinamikak egin ditzakezu jokaerak identifikatzeko. Harremanen elementuak jarri daitezke, eta*

*ondoren gazteek identifikatu dezatela zein dagozkion maitasunari, eta zein beste batzuei: zeloak, posesibitatea, dependentzia, komunikazioa, norbere bizitzari errespetua, bizipen konpartituak, maitasuna.*

- *Eztabaidatu kontzeptu honen inguruan: "Ez da maitasuna esaten diguten guztia". Horretarako, tradizionalki maitasunari buruz esaten diren mezu eta mitoak analizatuz. Beste pertsona batetiko maitasuna norbere maitasunarekin osatzeko mezuak bilatu behar ditugu, maitasuna bere mugekin identifikatzeko mezuak edota tratu onak ardatz bezela hartzen ikasteko mezuak. Adibidez, laranja erdiaren mitoak desmuntatu daitezke, osatzen zaituen beste pertsonarena, maitasunaren magiak edozer egiten du posible, maitasun bakarra eta benetazkoa eta amaitu esanez pertsonak osoak garela, maitasunak ekintzak behar ditu edota gure bizitzan maitasu asko daude eta ezberdinak.*

**Eraman beti ipinita begirada kritikoa**

Aztertu modu kritikoan gazteek bizi dituzten maitasun eta harreman ereduak. Horretarako, beraien errealitatearekin zerikusia duten adibideak erabiliz.

*Zer esan nahi dute pelikuletan aurkitzen ditugun maitasun ereduek? Zergatik dira emakumezkoak ahulak eta zergatik behar dute protagonistak mundua erakustea edota inguruneaz babestea? Gizonezkoen pertsonaiak arriskutsuak izan arren zergatik esaten digute maitasunagatik aldatzen edo kontolatzen direla? Pertsona zail eta agresiboekin harremanak nahi ditugu? Nola sentiarazten gaituzte?*

- *Har ditzakezu adibide gisa, harremanetarako eredu ez parekideak eta arriskutsuak identifikatzen dituzten pelikula arrakastatsuak.*
- *Adibidez, Crepusculo, bakarrik ezer egin ezin duen pertsonaia femenino ahul eta traketsa da. Banpiro batekin maitemintzen da, eta, beraz, gizaki izateari utzi beharko dio eta familiarengatik urrundu beharko da. Eztabaidatu taldearekin: Banpiro batek eutsi diezaioke maitasunagatik bere banpiro instintoei? Aldatu egiten da maitasunagatik? Utzi dezakezu zu izateari maitasunagatik?*
- *Pelikula honek bi pertsonai maskulino oso ezberdin aurkezten dizkigu. Alde batetik, gizon-otsoa, bere laguna den gizon ona. Den bezala onartzen duena eta fisikoki erakargarriena. Beste aldetik, banpiroa. Hain erakargarria ez izan arren,harrapatu egiten du bizitza aldatu eta berarekin joateko. Kasu honetan zergatik da erakargarriagoa arriskua, eta ez fisikoa? Gizon bat ona bada erakargarritasun guztia galtzen du?*
- *Adibidez, zerutik hiru metrora gizon agresibo eta emakume aberats eta gozoak harreman iskanbilatsua hasten dute. Eztabaidatu taldearekin: Zergatik esaten da eztabaidatzen dutenak desio direla? Ezinbestekoa al da rollo txarrak edukitzea harremana ondo ateratzeko? Sufrimenduaren mugak existitzen dira? Fiatu zaitezke gaizki tratatzen dizun pertsonarekin?*

| **Indarkeriaz libre, bai!** | **Bizitzaren erdigunea baino zerbait gehiago** |
|---|---|
| Bikotea izatea, hainbat bikote izatea, harreman motxak izatea, noizbehinkakoak, izenik gabeko harremanak, orientazio sexual ezberdinetakoak edo bakarrik egotea, erabaki pertsonala da eta modu librean egiteko aukera izan beharko luke.<br><br>*Eztabaida taldeak:*<br>*Galdetu zein harreman mota ezagutzen dituzten eta bakoitzari nolakoa gustatzen zaion. Pertsona guztiek berdin pentsatzen dute harremanei buruz? Behar ezberdinak eduki daitezke bikote batean? Zein modu ezagutzen dituzu ezberdintasun hauek konpontzeko?* | Islatu bikote harremanak beti direla bateragarriak harreman sozialekin, lagunekin, zaletasunekin eta bikote harreman horretako bakoitzaren ibilbide propioekin. Modu horretara, bultzau eta erakutsi interdependentzia ereduak, mendekotasun edo independentzian oinarritzen diren ereduen aurrean.<br><br>• *Ikasgelan: Proposatu ariketa bat hiru harreman eredu hauek ulertzeko. Mendekotasun ereduan bietako bat izango litzake bestea bultzatuko lukena. Independentzia ereduan bi pertsonak beraien kontura dabiltza, beti bereizita eta beste pertsona edo bere erabakiak kontuan hartu gabe. Interdependentzia eredua izango litzateke beraien gauzetarako espazioa duten harremana: beren erabakiak, lagunak, zaletasunak, familia…baina horrez gain, konpartitzen duten eta konpartitu nahi duten gunea dute eta bien erabakiak kontuan hartzen dira.*<br><br>• *Batzuetan independendentzia eredua ikusten da eredu modernu eta desiragarri gisa. Zenbaitetan, ordea, nahastu egiten da baten erabakia (independentzia nahi duen pertsona horrena), beste pertsonaren onarpenarekin. Ondorioz, ez da izan bien nahia, eta pertsona bat bestearen desioetara moldatu da. Guztiz independentea den eredua aukeratzeko klabea da bi pertsonek erabakitzea berdintasunean.* |

| **Kontuan hartu beren ikuspegia** | **Galdera** |
|---|---|
| Maitasunari buruzko diskurtso mamitsuak eta sakonak landu. Beraien iritziarekin eta ikuspuntuarekin kontatu. Modu horretara, mitoak eta sinesmen faltsuak desmuntatzea lagundu eta ez bidali mezu alarmistak maitasunari buruz edota harreman arriskutsuak identifikatzeko.<br><br>Ez dugu hezitzen “maitasunak hiltzen du” bezalako mezuak bidaltzen ditugunean. Maitatu daiteke hil gabe, eta hori da gure helburua. Hitza emango diegu, eztabaidak proposatuko ditugu, hausnarketak sortuko ditugu, beldurra sartu gabe baina informazioa, ereduak, ikuspuntuak etab emanez. Modu horretara berdintasunean maitatzea zer den ulertzeko eta ikasteko. Galdera irekiak: “Harreman eredu hau gustatzen zaizu?”, “Ondo sentitzen zara harreman honekin?”. Honek informazio gehiago eman digu, “honekin kontuz ibili” bezalako informazioa eman beharrean. | Maitasuna bat-batekoa, lagaezina eta irrazionala dela uste izatearen ideia desmuntatu behar da. Oinarrizkoa da eztabaidatzea zer nahi duten eta desio duten maitasunarengatik.<br><br>• *Ikasgelan: Ikasleekin eztabaidatu lehen begiradan sortzen den bat-bateko maitasunaren ideiaren inguruan. Inoiz entzun dute honi buruz hitz egiten? Ezagutzen dituzte honi buruzko fikziozko historiak edo errealak? Bizi izan dituzte? Ezagutzen dituzte ezagutu ondorengo maitemintzeak? Gustatzen zaie? Beraien ustez maitasuna soilik maitemintze prozesua da edo badago haratago doan maitasuna?* |

| **Bikote harremanetako maitasuna baino gehiago badago** | **Bikote harreman eredu ezberdinak erakutsi** |
|---|---|
| Maitasuna gure bizitzako zati garrantzitsua da, beste hainbat bezala. Pertsona bakoitzak erabaki beharko du libreki momentu bakoitzean nolako garrantzia eman nahi dion sentimendu horri.<br><br>Ikustarazi bateragarria dela beste pertsona batzuk maitatzea, norbera maitatzearekin. Diskurtso kulturalean indarra dauka oraindik ere norberarengan pentsatzea berekoia izatea dela. Horregatik, garrantzitsua da batez ere neskekin lanketa egitea, norberaren burua maitatzearen garrantzia, desio pertsonalak gauzatzearen garrantzia, bikote harremanetik haratago egiten denaren balorazio pertsonala. Nabarmendu norbere burua baloratzea, zaintzea, ezagutzea eta bakoitzaren behar eta desioei kasu egitea zein garrantzitsua diren.<br><br>• *Ipini dezakegu adibide gisa karrera profesionalaren aukeraketa eta bikotea izateak eragina ote daukan aukeratzerakoan.*<br><br>Beste pertsonekiko maitasuna, norberarekiko maitasunaren orekan oinarritzen da eta nola ikasten dugun gure burua maitatzen besteek nola maite gaituztenaren arabera.<br><br>• *Ikasgelan: Ariketak egin autoestimuari, autoezagutzari eta autobalorazioari buruz.* | Kontziente izan proiektatzen eta erreproduzitzen ditugun mezu heteronormatiboak eta bikote heterosexual tradizionalaren ideal bakarra.<br><br>• *Ikasgelan: Materiala eskatu Berritzeguneari edo interneten bilatu bikotea emakume-gizon gisa identifikatzen diren bideoak, artikuluak edo iragarkiak. Ikasgelara eraman eta planteatu zergatik ez dauden irudi gehiago bestelako ereduekin.*<br>• *Adibideak bilatu bikote harreman eredu ezberdinena eta galdetu ea ezagutzen dituzten. Lagundu eredu ezberdinak aurkitzen, iragarkiak, mezuak…* |

Lehen irizpide hauez gain, kontuan izan behar dugu diskurtsoak, interakzioak eta beraien berdinak direnekiko jasotzen dituzten ereduak aldakorrak direla eta jendartea ere genero-indarkeriarekiko iritzia aldatzen doala. Jarduerak eguneratu, taldearen beharretara egokitzeko.

- Agerian jarri, pentsatu eta eraiki beraiekin batera bikote harremanen eredu berriak, familia ereduak, maitasun historia eguneratuak eta aniztasun sexual eta kulturala.
- Etengabe aldatuz doan jendarteko neska eta mutilen nahasmenduak, kontraesanak eta anbiguotasuna landu.
- Edozein harremanetan neskek aukeratzeko duten eskumena handitu eta lagunen arteko elkartasuna sustatu.
- Errespetua erakargarri izendatu, eta, beraz, hau erabiltzen duten mutilak.
- Arreta handiagoa jarri elkartasun, laguntasun eta mutilek ikasgelan duten tratu onari. Arreta txikiagoa jarri jarrera errebeldeei edo mutilen protagonismoa eta arrakasta handitzen duten jarrerei.

| Indarkeria ez zaigu gustatzen | Askatasun sexuala bai | Objetu bihurtzea ez |
|---|---|---|
| Saiatu aldatzen miresten diren indarkeriazko jarrerak.<br><br>• *Ikasgelan: Taldean eztabaidatu eta analizatu zein jarrera diren indarkerizkoak eta agresiboak baina erakarri egiten dutenak eta zergatik miresten ditugun orokorrean. Ikertu indarkeriazko jarrerak atsegin ditugun harremanetan eta zergatik gustatzen zaizkigun. Era berean analizatu zergatik animatzen gaituen gizarteak jarrera hauek mirestera pelikula, komunikabide edo publizitatearen bitartez.* | Zalantzan jarri harreman "modernoak" askatasun sexualean oinarritzen direla eta afektuak ez duela axola.<br><br>• *Eztabaidatu askatasun sexualaren inguruan eta zenbat suposatzen duen erabakitzeak noiz nahi den harreman sexuala eduki eta noiz amodiozko harremana.*<br><br>• *Eztabaidatu "erabili eta bota" eredua, modelu bakarra bailitzan eta planteatu ea noizbehinkako elkartze horiek gozatzeko ere tratu ona behar den.*<br><br>Askatasun sexuala da erabakitzea noiz bai, noiz ez eta erabakitzea maitemindu nahi dudan edo ez. | Zalantzan jarri ume eta gazteen irudi hipersexualizatua.<br><br>Azaldu neskek txikitatik jasaten duten presioa beraien gorputzekiko.<br><br>• *Ikasgelan: Eztabaidarako erabili barruko arropen katalogoak, Elle aldizkaria edo spa. Honen bitartez, haurtzarotik egiten den hipersexualizazioa landu.*<br>• *Eztabaidatu kirurgia eskaintzari buruzko artikuluak.* |

**Ezetza ezetza da – Baiezkoa esan behar dizu**

Negoziazioa planteatu, ezusteko hartu-eman sexualetan eta harreman egonkorretan. Horretarako ezinbestekoa da ondo ulertzea zertan oinarritzen den adostasuna. Hartu-eman sozialetan zenbait pertsonek ez dituzte onartzen besteen erabakiak. Garrantzitsua da hitz egitea zer den eta zer ez den onarpena hartu-eman sexualetan:

**Onarpena** pertsonen arteko akordioa da elkarrekin zerbait egiteko. Harreman sexuala elkarte arteko akordioa da eta zintzotasuna, elkar zaintza eskatzen du, izan behin edo bikote egonkor batekin. Bikoteak desio, gusto eta egiteko modu propioak dauzka. Horregatik, gustatzen zaizunari eta nahi duzunari buruz hitz egin behar da eta noraino iritsi nahi den.

**Behin eta berriz errepikatzea erasotzea da**: Ezetz esaten badizute, ezezkoa da harremanaren edozein momentutan. Edozein momentutan aldatu daiteke iritziz, gustora egon daiteke eta disgustora sentitu edozein momentutan.

- *"probokatu egin nau, nere atzetik zebilen…" bezalako esaldiak erabiltzen dira presio sexuala justifikatzeko. Beraz, ezinbestekoa da desmuntatzea ikasleekin. Adierazi, ez badago baiezko garbia, probokazioaren interpretazioak ezin duela justifikatu jazarpena. Adierazi baita posible dela ideiaz aldatzea edo deserosotasuna sentitzea. Beraz, hasiera batek ez du ziurtatzen jarraipen segurua.*

**Onarpenak zure zentzu guztiak behar ditu.** Alkohol eta drogen efektuarekin edo inkontziente eta lo egonda ez da existitzen onarpenaren aukera.

**Aukeratu.** Zenbait pertsonekin ezinezkoa da berdintasunezko harremana, eta, beraz, aukera izan liteke baztertzea.

- *Ikasgelan: Onarpenari buruz hitz egiten duten bi bideo erabil ditzakezu. Horietako bat motzagoa "La taza de té", ikasleekin eztabaidatzeko; Bestea luzeagoa, "Que te digan sí".*

Atal honekin amaitzeko, babesteko zenbait estrategia azpimarratuko ditugu.

| **Ahalduntzea** | **Maitasuna hau da** |
|---|---|
| Nesken ahalduntzea bultzatu. Ahalduntzea ez da beldurrik ez edukitzea eta guztiari bakarrik egitea aurre. Aukeratzeko posibilitatea handitzea, lagunak edukitzea eta elkartasuna beldurrari aurre egiteko. Era berean egoera bakoitzaren aurrean ahalik eta egokien jokatu gure burua babesteko.<br><br>Zalantzan jarri sumisioa edo agresibitatea sustatzen duten rol tradizionalak.<br><br>• *Nabarmendu ezberdin pentsatzeagatik historian papel garrantzitsua lortu duten emakumeen irudia.*<br>• *Agerian jarri nagusitzen den edertasun ereduarekiko ezberdinak diren emakume ereduak.*<br>• *Agerian jarri itxura fisiko, familia eredu edo harreman forma ezberdina duten ereduak.*<br>• *Esploratu neskek landu dituzten erresistentzia eta errebeldia estrategiak, eta beraien funtzionaltasuna.* | Honako osagai hauek harreman sozial eta bikote harremanen parte dira: Elkartasuna, laguntasuna, maitasuna, mimoak eta zaintza.<br><br>*Eztabaidatu ikasgelan ekintza ezberdinen bitartez maitasun eta laguntasun jokaeren inguruan. Testu, ekintza edo dinamika, erreflexio etab.en bitartez. Zeharkakotasunez landu eta ez soilik horretara bideraturiko ekintzetan.* |

## 5. ZIBER INDARKERIA SAIHESTEA

Ziber jazarpen gisa sareetan bizi daiteken indarkeriaren inguruan, gogoratu behar da zenbaitetan ikasgelan izaten diren gaztazkek zerikusia dutela sarean gertatzen ari denarekin, edo alderantziz. Hau da, **sareetan gertatzen dena ez da ezberdina izango bere bizitzan gertatzen denarekin.** Izan ere, sarea bizitzeko beste tresna bat da, beste espazio bat (patioa, ikasgela, kalea) eta pertsonan bizi izan ditzaketen arazo berberak bizi dituzte sarean ere.

Horregatik, garrantzitsua da **ziber indarkeriaren oinarrian dauden gaiak lantzea**. Ikasleei erakutsi behar zaie gune birtualean jartzen diren mezuak publikoak direla eta pribatutasuna eta intimitatea mantzentzea ez dela aukera bat. Horren ondorioz, horrek izan ditzaken ondorio sozialekin harremanduko dira etengabean. Ziber indarkeria saihesteko ez da sare sozialen aurkako kanpainarik egin behar, baizik eta bertan errespetuz egoten erakutsi behar da. Ikasgeletan egoten ikasteko egiten dugun lan hezitzaile berdina egin behar dugu. Gainontzeko pertsonak errespetatu, ezberdintasunak onartu, enpatizatzen ikasi, indarkeria jarrerak ez toleratuz eta hauei kolektiboki erantzuten ikasiz.

Ziber indarkeria lantzeko, genero-indarkeriarekin zerikusia duten gaiak landu behar ditugu. Nesken aurkako irainak, beraien gorputzei buruzko erreferentziak, beraien harremanei buruzko esamesak edota tradizionalki maskulinoak edo femeninoak diren roletatik kanpo geratzen diren mutil eta nesken aurkako irainak. Beraien sexu orientazioagatik pairatzen den jazarpena ere landu behar da.

Jazarpenaren aitorpena ulertzeko ezinbestekoa da gogoratzea aurrez-aurreko erasoa botere harremanean eta biktimaren aurka errepikatzen den indarkeriazko jarreretan oinarritzen dela. Jazarpen hau sareetan pairatzen denean, hainbat elementuren ondorioz jarrera hauek errepikatu egiten dira, ziber indarkeriaren atalean aipatu dugun bezala. Izan ere, jazarpenak dimentsio handiagoa izan dezake, jende askok hartzen duelako parte mezu hori elkarbanatzen, zurrumurru edo iraina zabaltzen edo umiliazio publikoari barre egiten. Beraz, ziber indarkeriarekin amaitzeko ezinbestekoa da **sarean dauden "testigu" guzti horien kontzientziazioa lantzea** eta ez egitea lanketa soilik indarkeria zuzenean erabiltzen dutenekin. Bestalde, ezinbestekoa da isiltasun ezaren kultura eraikitzea.

| **Oinarrian dauden gaiak lantzeko aprobetxatu** | **Sareen erabilera landu ikasgelan** |
|---|---|
| Ziber indarkeriak harreman zuzena dauka intolerantziatik eta diskriminaziotik erabiltzen den indarkeriarekin. Horrelako kasu gat agertzen denean, baliatu jazarpen horren oinarrian dauden gaiak lantzeko.<br><br>Zalantzan jarri sare sozialetan erreproduzitzen diren eredu maskulino eta femeninoak eta proposatu ez ote dagoen bestelako eredurik.<br><br>*Adibidez, ikasleekin eztabaidatu ia ezinbestekoa den neskak erakartzeko gizon indartsu eta muskulosoa izatea edota nesken kasuan sensuala izatea. Telebistan eta sarean ikusten ditugun eredu hauek bezalakoak izan nahi al dute neska eta mutilek? Beharrezkoa al da antza izatea? Posible al da erakargarria izatea ezberdina izaten? Garen bezalakoak onartzen gara edo gure buruaren irudi "postureatua" eman behar dugu?*<br><br>Ziber indarkeria inork merezi ez duen zerbaiten gisa eztabaidatu.<br><br>*Kasu praktikoak planteatu, modu horretara sarean indarkeria jasan duten pertsonekin enpatizatzeko. Adibidez, publikoki bere argazki sexya zabaldu izanaren ondorioz iraindua izan den neska batekin; bikote baten bideo erotikoa, non neska kritikatzen den "zikin" gisa ageri delako, eta mutila, aldiz, indartuta ateratzen da. Pertsona homosexual batek beste pertsona baten iraina jasotzen du eta broma hau birala bihurtzen da. Neska bati buruzko "fake" argazkia zabaltzen da, nahiz eta berak esan ez dela berea… Adibide hauen bitartez lana egin dezakegu sexualitate ereduekin, sexuaren moral bikoitzarekin, aniztasunarekiko dagoen intolerantziarekin edo ezberdinari egiten zaion irainarekin.* | Lagundu neska eta mutilei sareen erabilera ohikoa bihurtzen denean. Ezinbestekoa da ulertzea sareak ez direla gune pribatuak eta ezin direla pasa heziketaren mugak. Ezinbestekoa da sozialki, pertsonan jokatzen dugun moduan portatzea.<br><br>*Ikasgelan: Sare sozialetako pribatutasunaren inguruan eztabaidatu. Era berean, erakutsi behar da ezinbestekoa dela mezu bat ez iristea nahi ez den pertsona horrengana edota esaten dena kontrolatzea zaila dela.* |

| **Sexua ez da arazoa** | **Sarean ez esan gezurrik** |
|---|---|
| Sexu umiliazioarekin zerikusia duten hainbat ziber indarkeria azkenean biral bihurtzen dira (modu masiboan elkarbanatuta). Egoera hauen aurrean ezinbestekoa da honakoa nabarmentzea:<br><br>**Onarpena**. Pertsona batekin harremana izan eta teknologia erabili izanak sexualki topo egiteko edo amets egiteko, ez dio baimenik ematen inori eduki horien zabalpena egiteko. Kasu honetan gogoratu behar da erantzukizuna ez dela argazkiak egin dituen pertsonarena, baizik eta eduki horiek zabaltzen dituenarena beste pertsonaren baimenik gabe.<br><br>**Publikoan zerbait egiten "harrapatzea".** Beste pertsona bati publikoan argazkia egin izanak (transporte publikoan, diskotekan edo kalean) ez digu baimenik ematen zabaldu eta umiliatzeko. Umiliazioa eta iraina, gustatzen ez zaizkigun indarkeria motak dira.<br><br>**Parte-hartze kolektiboa.** Umiliazioa sexuala biral bihurtzen da jende askok hartzen badu parte zabalpenean. Eztabaidatu zergatik elkarbanatzen diren eduki hauek maiztasunez eta ez den mozten zabalpena.<br><br>*Zergatik elkarbanatzen dira kasu hauek? Askatasun sexuala errespetatzen dugu? Zergatik jotzen ditugu erruduntzat umiliatzen dituzten neskak? Erantzukizuna jar dezakegu eduki hori zabaltzen duten pertsona gutzi horiengan?* | Ohikoa da argazki manipulatuen zabalpena egitea sarean ("fakes"), norbaitetaz barre egiteko bromak zabaltzea ("meme" itxuran, adibidez) edota gezur eta zurrumurruak zabaltzea egia bailiran.<br><br>*Ikasgelan: Eztabaidatu interneten agertzen den guztia egia den edota gezurrak zabaltzen diren web gunean, sare sozialetan… Planteatu jarrera kritikoa izatea erakusten denaren aurrean.*<br>*Praktika egin ikusteko zenbateraino zabaldu daiteken gezur bat. Horretarako, argazki bat jarri eta egiaztatu noraino iristen den gezur bat*<br><br>Zerbait sinistu aurretik, egiaztatu eta iraina zabaldu aurretik pentsatu pertsona horrek zer sentitu dezaken. |

| **Guztiak jazarpenaren aurrean** | **Ziber indarkeriarekin moztu** | **Ez egin ez ikusiarena** |
| --- | --- | --- |
| Jazarpenaren aurrean bultzatu erantzun kolektiboa. Horretarako, laguntza kolektiborako estrategiak sortu.<br><br>• *Ikasgelan: Enpatia bultzatu irainak jasaten dituztenekiko. Horretarako, irainaren aurkako intolerantzia bultzatzen duen kultura eraiki ikasleekin. Indarkeriaren aurrean "jazarpenaren aurkako superheroiak" bultzatzen dituzten taldeak bultzatu ditzakezu. Sarean, babes-programetan eta turorizazioetan, edozein irain zantzuren aurrean isiltzen ez diren pertsona ausartak sortuz.*<br><br>Neskek eta mutilek izan behar dute ardura (eta ausardia) eztabaidatzeko eta planteatzeko inork ez duela merezi jazarpena, eta, ondorioz, taldeak ez du onartuko inork irainak, umiliazioa eta jazarpena erabiltzea. | Ziber indarkeria espazio publikoan gertatzen da, hau da, sarean edo interneten. Hauetan zailagoa da parte ez hartzea, izan ere, testigu gara.<br><br>Bultzau ausartak izatea eta ikusten duten edozein indarkeria kasu moztea.<br><br>• *Ikasgelan: Eztabaidatu ikasleekin kasu praktikoen inguruan. Identifikatu sarean indarkeria ikusten dutenak ausartak direla zabaltzen ez dutenean. Era berean, bidali dion horri argi adieraziz ez zaiola gustatu.* | Espazio guztietan zabaldu "indarkeriaren aurrean ez isildu" kultura.<br><br>• *Ikasgelan: Erakutsi ikasleei aktiboak izaten edozein indarkeriaren aurka. Horretarako, eztabaida taldeetan bildu, beraien ideiak muraletan adierazi eta zabaldu "isiltasunik ez" mezua ahal duten toki guztietan: sarean, ikasgelan, etxean eta kalean.* |

## BIBLIOGRAFIA


- Alonso, M.J., Mariño, R. eta Rué, L., (2012). "El espejismo del ascenso en la socialización de la violencia de género". Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado-n, 2012, 73 zk, 75-88orr. Zaragozako Unibertsitatea: Asociación Universitaria de Formación del Profesorado. Web-ean: http://www.redalyc.org/pdf/274/27426483010.pdf

- Amurrio, M., Larrinaga, A., Usategi, E., Del Valle, A. (2008). *Violencia de género en las relaciones de pareja de adolescentes y jóvenes de Bilbao*. Bilbo: UPV-EHU, Bilboko Udala. Web-ean: http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3262821

- Bertomeu, G. (2012). "Nativos digitales: una nueva generación que persiste en los sesgos de género". Revista de Estudios de Juventud-en. Injuve. Adolescentes digitales, 92 zk, 187-202 orr. Web-ean: http://www.injuve.es/sites/default/files/RJ92-13.pdf

- Blanchard, M. eta Muzás, E. (2007). *Acoso escolar. Desarrollo, prevención y herramientas de trabajo*. Madril: Narcea

- Cantera, I., Estébanez, I. eta Vázquez, N. (2009). *Violencia contra las mujeres jóvenes: La violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbo: Módulo Psicosocial de Deusto – San Ignacio. Web-ean: http://minoviomecontrola.com/ianire-estebanez/Informe-completo-violencia-contra-mujeres-jovenes-noviazgo.pdf

- Collin, L. (sf). "Masculinidades diversas y emergentes: los hombres y la identidad de género". Web-ean: https://www.academia.edu/5250195/Masculinidades_diversas_y_emergentes_los_hombres_y_la_identidad_de_g%C3%A9nero

- Connel, R.W. (1997). "La organización social de la masculinidad". Biblioteca Virtual de Ciencias Sociales-en. 31-48 orr. Web-ean: http://www.cholonautas.edu.pe/modulo/upload/Connel.pdf

- De Miguel, L.V. (2015). *Percepción de la violencia de género en la adolescencia y la juventud*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Web-ean: http://www.msssi.gob.es/ssi/violenciaGenero/publicaciones/estudiosinvestigaciones/PDFS/Percepcion___Social___VG___Adolesc_Juv.pdf

- Delegación del Gobierno para la Violencia de Género (2015). *Percepción de la violencia de género en la adolescencia y juventud*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Web-ean: http://www.violenciagenero.msssi.gob.es/laDelegacionInforma/pdfs/Percepcion_VG_Adolescencia_Juventud4.pdf

- Delegación del Gobierno para la Violencia de Género (2014). *El ciberacoso como forma de ejercer la violencia de género en la juventud*. Madril: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Web-ean: http://www.msssi.gob.es/ssi/violenciaGenero/publicaciones/colecciones/PDFS_COLECCION/Libro_18_Ciberacoso.pdf

- Díaz-Aguado, M.J. eta Carvajal, M.I. (2011). *Igualdad y prevención de la violencia de género en la adolescencia*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. Web-ean: http://web.ua.es/es/unidad-igualdad/documentos/recursos/informes/igualdad-y-prevencion-violencia-genero.pdf

- Arabako Foru Aldundia (2015). "A golpe de palabra. De la flor al insulto" Gazteriaren Foru

Erakundea. Web-ean: http://www.araba.eus/cs/Satellite/Juventud/es_ES/inicio/evaluacion-del-programa-de-sensibilizacion-a-golpe-de-palabra/ifj_destacado_fa

- Duque, E. (2006). *Aprendiendo para el amor o para la violencia. Las relaciones en las discotecas*. Bartzelona: Hipatia

- Emakunde (2001). *Modelos y referentes de los comportamientos masculinos y femeninos en la juventud vasca.* Vitoria-Gasteiz: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Web-ean: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/es_emakunde/adjuntos/informe.17.modelos.referentes.comportamientos.masculinos.femeninos.juventud.vasca.cas.pdf

- Emakunde (2009). *EAEko nerabeak: hurbilketa ahalduntzetik abiatuta*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea. Web-ean: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/maqueta_adolescentes_eu.pdf

- Espinosa, M.A., Ochaita, E. eta Ortega, I. (2003). *Manual formativo sobre promoción de la no violencia entre niños, niñas y adolescentes. Programa Daphne II*. Madril: Plataforma de Organizaciones de Infancia. Web-ean: http://portales.mineduc.cl/usuarios/convivencia_escolar/doc/201103041329530.Plataforma_Infancia_Programa_Daphnel_.Manual_Formativo_sobre_la_promocion_de_la_No_violencia_entre_ninos_ninas_y_adolescentes.pdf

- Esteban, M.L. eta Távora, A. (2008). "El amor romántico y la subordinación social de las mujeres: revisiones y propuestas". Bartzelonako Unibertsitatea: Anuario de Psicología-n. 39 liburukia, 1 zk, 59-73 orr. Web-ean: http://cdd.emakumeak.org/ficheros/0000/0598/2225_3.ElAmorRomantico.pdf

- Esteban, M.L. (2011). *Crítica del pensamiento amoroso*. Bartzelona: Bellaterra. Web-ean: http://www.feministas.org/IMG/pdf/mari_luz_esteban_-_critica_del_pensamiento_amoroso.pdf

- Estébanez, I. eta Vázquez, N. (2013). *La desigualdad de género y el sexismo en las redes sociales*. Vitoria-Gasteiz: Gazteen Euskal Behatokia. Web-ean: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/gazteak_bilduma/eu_liburuak/adjuntos/sexismoa_gizarte_sareetan_e.pdf

- Estébanez, I. (2015) "El amor romántico ¿Nuevos modelos?". Bizkaiko Foru Aldundia: Berdintasun Unitatea Gizarte Ekintzako Saila. Web-ean: http://minoviomecontrola.com/wp-content/uploads/2015/05/Amor-rom%C3%A1ntico.-Nuevos-modelos.-Ianire-Est%C3%A9banez.pdf

- Estébanez. I. (2013). "Definición de ciberviolencias". En Glosario feminista en lengua de signos española Pikara Magazine Web-ean: http://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=es&let=c&ter=ciberviolencias

- Estébanez, I. (2012). "Del amor al control a golpe de click. La violencia de género en las redes sociales". Cabildo de Lanzarote: Jornada de Sensibilización sobre VG. Web-ean: http://minoviomecontrola.com/ianire-estebanez/Ponencia.Del-amor-al-control-a-golpe-de-click.-La-violencia-de-genero-en-las-redes-sociales.Ianire-Estebanez.pdf

- Estébanez, I. (2010). "Te quiero… (solo para mí). Relaciones adolescentes de control". Revista Pedagógica Tabanque-n. Valladolid-eko Univertsitatea: Prevenir la violencia de género desde las aulas. 23 zb, 45,68 orr. Web-ean: https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3829792.pdf

- Figueras-Maz, M., Tortajada, I., Arauna. N. (2014). "La erótica del malote. Lecturas adolescentes de las series televisivas: Atracción, deseo y relaciones sexuales y afectivas". Revista de Estudios de Juventud-en. Injuve. La Juventud en la Pantalla, 106 zb, 49-61 orr. Web-ean: http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5082092

- Flecha, A., Puigvert, L. eta Redondo, G. (2005). "Socialización preventiva de la violencia de género"*.* Bartzelonako Unibertsitatea: En Feminismo/s, 6 zb, 107-120 orr. Web-ean: http://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/3184/1/Feminismos_6_08.pdf

- Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa. UNICEF (2013). *Niñas y niños con discapacidad*. Web-ean: http://www.unicef.org/ecuador/SPANISH_SOWC2013_Lo_res.pdf

- FRA (2014). Violence against women: An EU-wide survey. Main Results. Luxemburgo: Publications Office of the European Union. Web-ean: http://fra.europa.eu/sites/default/files/fra-2014-vaw-survey-main-results-apr14_en.pdf

- Gómez, J. (2004). *El amor en la sociedad del riesgo*. Bartzelona: Hipatia

- Gómez-Zapiain, J., Ortiz, M.J. eta Eceiza, A. (2013) *Nerabeen sexualitatea Euskal Autonomi Erkidegoan*. *Nerabeen sexu-portaera eta sexu-hezkuntzaren egoera Euskadiko derrigorrezko bigarren hezkuntzan.* Zapiain. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Web-ean: http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/nerabeen_sexualitatea.pdf

- Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2015). "Emakumeen aurkako indarkeria Euskadin: herritarren pertzepzio eta iritziak". Web-ean: http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informe_estudio/o_15tef3/eu_def/adjuntos/15tef3.pdf

- Gómez-Zapiain, J. (2009). *Apego y sexualidad. Entre el vínculo afectivo y el deseo sexual*. Madril: Alianza Editorial. Web-ean: http://usbornebookswow.com/apego-y-sexualidad-entre-el-vinculo-afectivo-y-el-deseo-sexual-javier-gomez-zapiain/

-Illouz, E. (2012). *Por qué duele el amor*. *Una explicación sociológica*. Madril: Katz Editores

- Instituto de la Juventud (2005). *Jóvenes y sexo. El estereotipo que obliga y el rito que identifica*. Madril: Injuve. Web-ean: http://www.injuve.es/sites/default/files/jovenes_y_sexo.pdf

- Instituto de la Juventud (2012). *Cambios y persistencias en la igualdad de género de los y las jóvenes en España*. (1990-2010). Madril: Injuve. Web-ean: http://www.injuve.es/sites/default/files/2012/42/publicaciones/estudio%20cambios%20igualdad%20genero.pdf

- Instituto Nacional contra la Discriminación, la Xenofobia y el Racismo (2015). "*Intersexualidad".* Buenos Aires: INADI. Web-ean: http://inadi.gob.ar/wp-content/uploads/2015/07/intersexualidad.pdf

- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (2012). *2012. Ikaskideen arteko tratu txarrak LHn eta DBHn.* Bilbo: ISEI-IVEI. Web-ean: http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=ab2a4861-a7de-43c6-9e92-126931d35bd9&groupId=635622

- Jiménez, F. eta Sánchez, A. (2011). "Nos volvemos loquitas: Apuntes lingüísticos sobre la imagen de las lectoras en las revistas para adolescentes". Revista de Estudios de Juventud-en. Injuve. Jóvenes en(red)ados, 93 zb, 61-74 orr. Web-ean: http://www.injuve.es/sites/default/files/RJ93-07.pdf

- Kaplan, A., Mayo, E eta Salas N. (2014). "Diagnóstico para la implementación de un programa de prevención de la Mutilación Genital Femenina en la Comunidad Autónoma de Euskadi". Emakunde

- Leal, D. eta Arconada, M.A. (2011). *Convivir en igualdad. Prevención de violencia masculina hacia las mujeres en todas las etapas educativas*. Madril: UNED

- Mayes, L.C. eta Cohen D.J. (2003). *Guía para entender a tu hijo del centro Yale de estudios infantiles. 23. kapitulua: Los niños y la violencia*. Madril: Alianza Editorial

- Ministerio de Educación, Cultura y Deportes (2015). *IDEALOVE@NAM Socialización preventiva de la violencia de género*. Madril: Centro Nacional de Innovación e Investigación Educativa. Web-ean: https://metodologiainclusiva.files.wordpress.com/2015/11/17146.pdf

- Ministerio de Industria, Energía y Turismo (2015). *Guía clínica sobre el ciberacoso para profesionales de la salud*. Plan de Confianza del Ámbito Digital del Hospital Universitario La Paz, Sociedad Española de Medicina del Adolescente. Red.es. Madril. Web-ean: http://www.chaval.es/chavales/sites/default/files/Guia_Ciberacoso_Profesionales_Salud_FBlanco.pdf

- Monjas, M.I. eta cols. (2014) *Rechazo y victimización al alumnado con necesidad de apoyo educativo en primero de primaria*. Anales de Psicología-n. 30 liburukia, 2 zb. 499-511 orr. Murtziako Unibertsitatea

- Oliver, E. eta Serradell, O. (2015). "Espejismo del ascenso y amor ideal: Claves para el estudio de la violencia de género." Web-ean: https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=2&cad=rja&uact=8&ved=0ahUKEwiEgt2u9ufKAhUIeT4KHbsJA7wQFggkMAE&url=http%3A%2F%2Fwww.fes-sociologia.com%2Ffiles%2Fcongress%2F11%2Fpapers%2F1702.doc&usg=AFQjCNE1aeTy37AsOUpg2B9XfXjIgSaRGQ&sig2=8_UI2VqjhPKpXqsJ0RPAVw&bvm=bv.113370389,d.d24

- Rodríguez, S.J. eta Mejías, Q.I. (2014). *Jóvenes y comunicación. La impronta de lo virtual*. Madril: Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud. Fundación de Ayuda contra la Drogadicción FAD. Web-ean: http://adolescenciayjuventud.org/es/publicaciones/monografias-y-estudios/item/jovenes-y-comunicacion-la-impronta-de-lo-virtual

- Nazio Batuak (2015) "Grupo de Trabajo sobre la cuestión de la discriminación contra la mujer en la legislación y en la práctica". Consejo de Derechos Humanos. Web-ean: http://daccess-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G15/176/30/PDF/G1517630.pdf?OpenElement

- Platero, R. (2008). *La homofobia como elemento clave del acoso escolar homofóbico. Algunas voces desde Rivas Vaciamadrid*. Información Psicológica-n, 94 zb, 71-83 orr. Web-ean: http://trabajemosporelmundo.org/ong-nd/documentos/articulo_homofobia_escolar.pdf

- Ockrent, Ch. (2007). *El libro negro de la condición de la mujer.* Madril: Aguilar

- Ríos, O. eta Christou, M. (2010). "Más allá del lenguaje sexista. Actos comunicativos en las relaciones afectivo-sexuales de los y las adolescentes". Revista Signos-en, 43 zb/Ale Berezi Monografikoa 2, 311-326 orr. Web-ean: http://www.scielo.cl/pdf/signos/v43s2/a04.pdf

- Rodríguez, S.J. eta Mejías, Q.I. (2015). *¿Fuerte como papá? ¿Sensible como mamá? Identidades de género en la adolescencia.* Madrid: Centro Reina Sofía sobre adolescencia y juventud. Fundación de Ayuda contra la Drogadicción FAD. Web-ean: http://adolescenciayjuventud.org/es/publicaciones/monografias-y-estudios/item/fuerte-como-papa-sensible-como-mama-identidades

- Rubio, A. eta San Martín, M.A. (2012). *Subculturas juveniles: identidad, idolatrías y nuevas tendencias*. Revista de Estudios de Juventud-en. Injuve. Jóvenes: ídolos mediáticos y nuevos valores, 11 zb, 197-213 orr. Madril: Rey Juan Carlos Unibertsitatea. Web-ean: http://www.injuve.es/sites/default/files/2012/45/publicaciones/Revista96_11.pdf

- Sarah R. Edwards, Kathryn A. Bradshaw, eta Verlin B. Hinsz. (2014). "Denying Rape but Endorsing Forceful Intercourse: Exploring Differences Among Responders". Violence and Gender, 1 liburukia, 4 zb. Web-ean: http://online.liebertpub.com/doi/abs/10.1089/vio.2014.0022?journalCode=vio

- Schongut, N. (2012). "La construcción social de la masculinidad: poder, hegemonía y violencia". Bartzelonako Uniberstitate Autonomoa: Psicología, Conocimiento y Sociedad 2 (2), 27-65. Web-ean: http://revista.psico.edu.uy/index.php/revpsicologia/article/view/119/73

- Sepúlveda, A. (2006). "La violencia de género como causa de maltrato infantil". Cuadernos de Medicina Forense-n, 12 zb, 43-44 orr. Sevilla. Web-ean: http://scielo.isciii.es/pdf/cmf/n43-44/11.pdf

- Sortzen Consultoría (2013). *Violencia bella. El cuerpo adolescente como territorio de control*. Bilbo: Medicus Mundi Bizkaia. Web-ean: http://www.medicusmundi.es/index.php/bizkaia/educacion_y_sensibilizacion/material_educativo/estudio_violencia_bella_el_cuerpo_adolescente_como_territorio_de_control

- Sortzen Consultoría (2011). *Agresiones sexuales: cómo se viven, cómo se entienden y cómo se atienden*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Web-ean: http://www.diba.cat/documents/232140/0e1a4231-a3c8-4cfc-a042-f3603acfbcd3

- Tremblay, R. E., Gervais, J., eta Petitclerc, A. (2008). *Prevenir la violencia a través del aprendizaje en la primera infancia*. Montreal, Quebec. Centro de Excelencia para el Desarrollo de la Primera Infancia CEECD. Web-ean: http://www.excellence-earlychildhood.ca/documents/tremblay_reporteagresion_sp.pdf

- Vázquez, I. (2015). "Crece el número de víctimas y maltratadores menores de edad en el País Vasco", Bizkaia argitalpenaren inprimaturiko bertsioan kontsultatua 2015ko azaroaren 3an. Web-ean: http://www.siis.net/documentos/hemeroteca/20151103-1.pdf

**Beste esteka batzuk:**


- Amnistía Internacional (2007*). No más violencia contra las mujeres*. Giza Eskubideen Hezkuntzari Buruzko Baliabideak. Web-ean: http://www.educarenigualdad.org/media/pdf/uploaded/material/259_no-violencia-pdf.pdf

- Beldur Barik. 2009an BERDINSAREA sarean sortutako Programa. Gaur egun, organizan Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Berdinsarea-Eudel eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiek antolatzen dute Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea eta EITB-ren laguntzarekin. Web: http://beldurbarik.org/es/

- Consejería de Educación, Universidades, Cultura y Deportes (2009). *Guía para el profesorado sobre acoso escolar: detección, identificación, intervención y prevención.* Kanarietako Gobernua. Web-ean: http://www.gobiernodecanarias.org/educacion/5/DGOIE/PublicaCE/docsup/guia_acoso.pdf

- Departamento de Servicios Sociales y Familia (2007). *Crecer junt@s. Guía práctica para la prevención de la violencia de género en la familia y en la escuela*. Aragoiko Gobernua. Web-ean: http://www.aragon.es/estaticos/GobiernoAragon/Organismos/Instituto%20Aragon%C3%A9s%20de%20la%20Mujer/Documentos/crecerjuntos.PDF

- GENDES (sf). *Amores chidos. Guía para docentes: sensibilización, prevención y atención básica de la violencia en el noviazgo con las y los jóvenes*. Web-ean: http://www.imjuventud.gob.mx/imgs/uploads/AMORes_CHIDOS.pdf

- Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea. UNESCO. (sf) *Poner fin a la violencia en la escuela, Guía para docentes*. Web-ean: http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001841/184162s.pdf

- Sanz Rodríguez, M. García Esteban, J. Benito Amador, Mª T. (2005). *Materiales para prevenir la violencia contra las mujeres desde el marco educativo. Unidad didáctica para Educación Secundaria.* Espainia: Nausícaä Edición Electrónica S.L. Web-ean: http://servicios.educarm.es/templates/portal/administradorFicheros/violencia.pdf

- Servicio de Coordinación del Sistema Integral contra la Violencia de Género (2012). *Guía de intervención con menores víctimas de violencia de género*. Instituto Canario de Igualdad. Consejería de Presidencia, Justicia e Igualdad. Web-ean: http://www.gobiernodecanarias.org/opencms8/export/sites/icigualdad/resources/documentacion/GuiaViolenciaMenores.pdf